

ZU HEMEN ZAUDE

# goiena



## Tradizioa sasoi betean

Santamasak ospatu zituzten atzo Arrasaten, euriari jai-gogoarekin aurre eginez / 10

Dantzariak Txerri dantza egiten, Arrasateko Herriko Plazan, dantzaren sortzaileei omenaldia egin ondoren.

ANDER LARRAÑAGA

# Inbertsioek gora egingo dute

Eguaztenean onartutako Debagoieneko Mankomunitatearen aurrekontua %11,75 handiagoa izango da 2017an / 2

**Gaur hasiko dira Olentzero eta Mari Domingi Debagoieneko herriak bisitatzen** / Ikus 'Herriak' saila

**Bederatzi musikari alboan dituela jardungo du gaur Benito Lertxundik Amaia antzokian** / 40

**Uztaitetik urte amaierara 53 langile kaleratu ditu Edesa Industrialek -Fagor CNA-** / 3

**puntu** Xabier Euzkitze bertsolariari elkarrizketa  
Laguntzeko grina: Gipuzkoako Caritasek 50 urte

### GABONETAKO OPORRALDIA

Honako egunetan jasoko dituzue hurrengo aldizkakiak:

**2016 urtekaria:** hilaren 30ean.

**GOIENA:** urtarrilaren 5ean.

**'Puntu':** urtarrilaren 13an.

Ondo izan!

### SINADURAK

 VALEN MOÑUX / 8	 PAULA AMILBURU / 23
 ENERITZ URRUTIA / 11	 MIEL GURIDI / 35
 MIKEL ARROABE / 17	 AGURINE BARRUSO / 48



# Gastuek behera, inbertsioek gora

Debagoieneko Mankomunitateak hamabi milioi euro pasatxoko aurrekontua onartu du 2017rako. Iazkoarekin alderatuta %11,75 egin du gora, ezohiko bi inbertsio sartu dituztelako; gastuetan, ostera, 1.014.000 euro murriztu dituzte hondakinen gestioan

**Mirari Altube** ARRASATE

Martitzenean onartu zuen 2017ko aurrekontua Debagoieneko Mankomunitateak: 12.092.321 euro, hain zuzen ere. Iazkoarekin alderatuta %11,75 handiagoa da, ezohiko inbertsio bi egingo dituztelako; bestelakoan 2016koa baino txikiagoa izango litzatekeela jakinarazi zuen Unai Elkoro presidentea.

## Epeleko hirugarren fasea

Epeleko industria isurtegiaren lanak egiteko milioi bat euro bideratu dute eta partidak %67ko igoera izan du. Horixe da, hain zuzen ere, inbertsioetako bat: "Isurtegi bigarren gelaxka edo zelda, gaur egun erabiltzen dena, itxi egingo da uda inguruan. Hori ixteko eta hirugarrena gertatzeko obrak egin behar dira derrigorrean. Ez da izan ezusteko kontua, epe luzerako planean sartuta zegoen hori eta aurrez finkatutako epeak beteko ditugu. Ekarpene berezia eskatzen du, baina urte batzuetarako, behintzat, Epele finkatuta geratuko da", zioen Lander Arregik, Mankomunitateko Ingurumen batzordeburua.

Ezohiko beste inbertsioa 1.719.560 eurokoa da eta argiteria publikoaren instalazioak berritzeko IDAE proiektuari dagokio: "Bost herri sartu dira programa horretan, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñati, eta bakoitzean argiteriaren %20 inguru aldatuko da", argitu zuen Elkoro.

Garapen Agentziaren gastuak gora egingo du 2017an, %9,30. "Aldunditik diru gutxiago iritsiko dela aurreikusten da, baina guk garapenaren aldeko apustua egin dugu eta uste dugu enplegua bultzatzeko egiten diren programetan ez litzatekeela



Unai Elkoro eta Lander Arregi 2017ko aurrekontua aurkezten. MIRARI ALTUBE

murrizketarik egon beharko", zioen presidentea.

## Udalek ekarpen gutxiago

Gastuetan murrizketa handia iragarri zuten Mankomunitateko Gobernu Juntako ordezkariak, "hondakinen gestiotik etorri den murrizketa" hain zuzen ere. Elkoroaren esanetan, sisteman izandako aldaketei esker izan da: "Aurten egin diren aldaketak kontuan hartuta, hau da, edukiontzi bidezko bilketara itzulara Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, lortu den murrizketa izan da %13koa, 1.014.000 euro ingurukoa". Arregik gaineratu zuen Cespa enpresak eta hango langileek egindako esfortza eskertu beharrean daudela.

Murrizketa horren eraginez udalek Mankomunitateari egin beharreko ekarpena datorren urtean txikiagoa izango dela iragarri zuten, %5,91 txikiagoa, hau da, 442.684 euro gutxiago

jarri beharko dute guztira. "Diru kantitate polit bat gutxiago eskatuko diegu udalei eta horren zati bat dator zabor bilketaren murrizketatik", zioen Arregik, eta gaineratu zuen: "Hiru alderdi aipatuko nituzke. Eraginkortasuna handitu da bilketan; %80an mantentzen gabiltza eta emaitza bikaina da. Eraginkortasuna ekonomian, zabor gestioan milioi bat euro aurreratuko dugulako. Eta hirugarren, satisfazio puntua dago herritarren artean gustura dabilelako sistema horrekin". Horregatik guztiatik eskerrak eman gura izan zizkieten herritarrei: "Egunero herritarrek egiten duten lanari esker lortu dira emaitza

**UDALEK %5,91 GUTXIAGO ORDAINDUKO DIOTELA MANKOMUNITATEARI IRAGARRI DUTE**

## Gastuak zerbitzuka

	2016	2017
Zerbitzu orokorrak	757.065	761.463
Kirola	24.000	24.000
Ingurumen kudeaketa	682.086	651.600
Garbiguneak	445.343	436.703
Bilketa bereziak	1.510.456	1.439.526
Zabor bilketa	5.140.236	4.235.561
Epele	858.201	1.436.095
Abere hiltegia	18.000	18.000
Orientazioa	82.033	86.312
Ekintzaileak	15.000	10.000
Enplegu planeko proiektuak	335.000	330.000
Ikasiz goiaz	13.000	12.000
Debagoiena eraldatzen	250.000	210.000
Lanbide hastapena	91.500	89.000
Garapen agentzia	191.840	209.683
Europako programak	69.683	66.443
Hazi programa	12.694	27.500
Txertatu merkatuan programa	12.621	19.500
Turismoa	312.474	309.369
IDAE proiektua	0	1.719.560
<b>Guztira</b>	<b>10.821.239</b>	<b>12.092.321</b>

## Inbertsioak

	2016	2017
Egoitza erakin inbertsioak	15.000	12.000
Altzariak	2.000	2.000
Zentralita eta zerbitzaria	2.000	2.500
Informatika ekipoak	5.000	5.000
Kudeaketa software erosketak	40.000	40.000
Garbigune inbertsioak	15.000	30.000
Ekarpene eta larrialdi guneak	10.000	12.000
Ibilgailu erosketak	180.000	100.000
Inbertsioak San Balerion	10.000	12.000
Pibotak eta elementu euskarriak	5.000	5.000
Edukiontzi erosketak	120.000	75.000
Ibilgailu erosketak	200.000	150.000
Epeleko inbertsioak	250.000	1.000.000
Altzariak eta lanabesak	4.000	4.000
Informatika inbertsioak	10.000	10.000
IDAE proiektua (argiteria berritzeko)	0	1.719.560
<b>Guztira</b>	<b>868.000</b>	<b>3.179.060</b>

horiek, eta, ondorioz, gastuek behera egin dute eta etekinek gora". Debagoienean oso sistema ezberdinak izan arren hondakinak biltzeko "emaitza onak" ematen dabilzala guztiak onartu zuten, eta jakinarazi, datorren urtean ez dela aldaketarik aurreikusten egun indarrean dauden ereduak.

## EH Bildu kezkatuta

Kontrako boto barik onartu zuten 2017ko aurrekontua martitzenean. Dena den, Iraitz Laz-

kano Elgetako alkateak, EH Bilduren izenean, kezka adierazi du Zubietan eraiki nahi duten erraustegia dela-eta herritarrek ordaindu beharreko dirutzaren inguruan: "Aurrekontuetan ez du islarik abenduaren 27an esleitu eta 1.000.000.000 eurotik gorako kostua izango duen zentzugarriak. Horietatik 87.827.633,65 dagozkie Debagoienari. 2019tik aurrera hasiko omen gara ordaintzen, inork nola eta zeren arabera ez dakien arren".



Eguaztunen goizean Garagartzan egindako elkarretaratzea. XABIER GOROSTIDI

## 34 langile gehiago kaleratu ditu Fagor CNAk

Eguaztenean exekutatu zituen kaleratzeak: 26 langilek borondatez aurkeztu zuten euren burua eta gainontzeko zortziak, berriz, derrigorluta geratu dira kalean. Elkarretaratzeak egin zituzten egunean bertan, Arrasaten, Eskoriatzan eta Basaurin

**X. Gorostidi / U. Madera** DEBAGOIENA Oraingo asteko martitzenean Enpresa Batzordeari jakinarazi eta eguaztenean 34 langileren kaleratzeak exekutatu zituen Fagor CNAren zuzendaritzak. Kaleratze horien artean, 26 borondatezkoak izan dira, langileek euren buruak aurkeztuta egindakoak, eta gainontzeko zortziak, berriz, derrigorrezkoak.

Borondatezko guztiak bazkide ohiak dira, eta Mondragon Taldeko beste enpresa batzuetan birkokatzeak aukera izango dute, Mondragon Taldeak berak jakinarazitako moduan. Derrigorluta dagoenak, berriz, lau komertzial sailekoak dira, hiru ikerketa eta garapen sailekoak eta azkena erosketako sailekoa. Lan egindako urte bakoitzeko 28 eguneko kalte-ordaina jasoko dute kaleratutako guztiak.

Produkzioaren jaitsieran oinarritu da zuzendaritza kalerazte horiek justifikatzeko.

### Uztailen lehen kaleratzeak

Edozein modutan, aurtengo uztailen hasi ziren kaleratzeak egiten Fagor CNA Groupen. 19 izan ziren aldi hartan, 15 Arrasateko Garagartzako lantegikoak eta beste laurak Geysers-Gas-techekoak. Kaleratzeak kostuak murrizteko izan ziren, langileen ordezkariak adierazitakoaren arabera. Enpresak, berriz, "Fagorren sendotze fase berrira egokitze" gertatu zirela esan zuen.

Kaleratzeen ondotik, baina, EREa etorri zen. Urrian hori. Garagartzako Fagor CNAren lantegiko (Geysers lantegia ez) 144 langileri eragin zien. Enpresak arrazoi ekonomikoak

eman zituen orduan ere EREa aplikatzeko, helburua izanda pilotuta zuen stockari irteera ematea.

ERE hori langileen eta enpresako zuzendaritzaren arteko akordio barik erabaki eta egin zen. Eta oraingo kaleratzeak ere akordio barik gauzatu dira.

Hori horrela, joan den astean moduan, oraingoan ere ordubeteko lanuztea egin dute Arrasateko, Eskoriatzako eta Basauriko plantetako langileek. Elkartasuna adierazi diete kaleratutako lankideei eta Eusko Jaurlaritzari dei egin diote prozesu honetan laguntza dezan. Era berean, berretsi egin dute lehenago ere zuzendaritzari egindako eskaera: enpresaren bideragarritasun plana, enpresaren dezakeen etorkizuna irudikatzeke.

## "Neguan udan baino sute gehiago izaten dira etxeetan"

**IÑIGO ALDASORO** ORDIZIKO SUESKOLA-KO ZUZENDARIA Sute kasuetan zer egin azaldu du Aldasoro adituak

**U.M. DEBAGOIENA**

Hotz egiten duen urte sasoiaren berotzeko erabiltzen ditugun tresnek, gaizki erabiliz gero, arazoak sor ditzakete; joan den astean Oñatin manta elektriko batek eragindako sutea da adibide.

### Neguan sute gehiago izaten dira?

Udan baino sute gehiago. Gipuzkoan urtero 100 sutetik gora izaten dira neguko hiru hilabeteetan eta kontzentratzen dira hotz handia egiten duen asteotan. (...) Manta elektrikoekin, adibidez, urtero hiruzpalau sute gertatzen dira. Tximiniekin ia 40 sute izaten dira urtero.

### Zergatik har dezake su?

Mantaren barruan kableatu fin batzuk egoten dira, eta manta hauek tolestu-zabaldutostu-zabaldutostu... azkenean, kabletxo horiek apurtzen joan daitezke; hor arku txiki bat muntatzen da eta horrek sortzen du sua.

### Etxean aparailu elektriko asko izaten ditugu beroa emateko eta horiek ere arriskutsuak izan daitezke, ezta?

Kableatuak ondo egotea eta aparailu elektriko horiek zelan kokatu kontuan hartu behar da. Adibidez, guk jartzen baldin badugu arropa azkar lehortzeko berogailuaren gainean edo jartzen badugu berogailu hori ohe baten edo sofa baten ondoan, gertatzen dena da gai horiek berotzen direnean sukoiak direla, eta nahiz eta aparatuek berak surik ez hartu, berak eragin dezake sutea.

### Gabonetako apaingarriak ere arriskutsuak izan daitezke?



Iñigo Aldasoro. U.M.

Bai. Zuhaitza naturala bada, heze mantenu behar da. Kalefakzioarekin-eta lehortzen joaten da eta oso sukoi bihur daiteke. Arboletako argitxoekin kableatu sistemaren arazorik ez dagoela ziurtatu behar da. Argiok LED badira, hobeto, argi hori hotza da eta. Zuhaitzetan kandelarik ez jarri. Eta zuhaitzari gainetik botatzen zaizkion elur moduko itxura emateko zera batzuk ere oso sukoiak dira.

### Zer egin behar da, edozelan ere, sute bat pizten bazaigu etxean?

Lasaitasuna mantendu; suak indarra hartu badu 112ra deitu bai edo bai, eta etxean itzalga-lurik badugu eta erabiltzeko gai bagara, erabili (...) Gomendioa da ohera goazenean edo etxetik irtetera goazenean Gabonetako zuhaitzetako argiak, estufak, beheko suak... horiek guztiak itzaltzea.

*Zorionak eta urte berri on*

**MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA Bergara**

*Urtean zehar izaten dira futsegite zein lorpenak; zorion une gozoak eta qroitu nahi ez direnak; onerako nahiz kalterako izan kontuan edukiz denak asmo berriez goza ditzazun urte zaharraren azkenak eta berriak ekar ditzala zaharrak falta zituena; Egileak: Gorka Lazkano eta Ion Zaldúa.*



# Epeleko konpost planta apiril amaierarako abian

Bio-hondakinak tratatzeko Epeleko plantaren zerbitzua lizitaziora aterata du Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak; otsailaren 28ra arte aurkez daitezke eskaintzak; lau urterako kontratua da eskaintzen dena, beste bi urtez luza daitekeena

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Zabor eta hondakin ez-arrisku-tsuak tratatu eta ezabatzeko zerbitzuen eta konposta ekoizteko zerbitzuen kudeaketa lizitaziora atera ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (GHK-k). Bestela esanda, Epeleko plantaren kudeaketaz arduratzeko zerbitzua esleitu gura du, azpiegitura horrek urteotan izandako arazo tekniko "izugarriak" konpondu ondoren.

Lau urterako kontratua izango du lizitazioa eskuratuko duen enpresak, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Prezioa: 4.908.000 euro da, 5.398.800 euro BEZA gehituta.



Epeleko azpiegiturak duen itxura. GHK

**6.000 tona, Debagoienetik**

Epeleko konpost planta diseinatu dago urtean 10.000 tona bio-hondakin –organikoak– tratatzeko. Bertara bideratuko dira, beraz, Debagoienean urtero sortzen diren 6.000 tona organiko eta gaur egun Elgoibarren dagoen tratamendu plantara bideratzen dituztenak. Beraz, Epeleko planta zabaltzeak onura ekarriko dio Debagoieneko Mankomunitateari, 6.000 tona organiko garrizteari utziko dio-eta, Lander Arregik, Mankomunitateko Ingurumen Sailaren arduradunak, azpimarratutako moduan.

Epelen tratatuko diren gainontzeko 4.000 tona organiko Gipuzkoako bestelako udalerrietatik bertaratuko dituzte, gaur egun Funesera eta Kaparrosora (Nafarroa) eta Itsasura (Iparralde) eramaten dituzten 30.000 tona horietatik 4.000, hain justu.

**Konposta, saltzeko**

Tratatutako bio-hondakinekin konposta produzituko dute Epeleko plantan. Eta hori saldu egingo dute. Gehienez jota, tonako 23 eurotan saldu ahalko da konpost hori. Eta lizitazioa eskuratzen duen enpresa arduratuko da salmentaz.

**10.000 TONA BIO-HONDAKIN TRATATZEKO GAITASUNA DU EPELEKO PLANTAK**

Konposta baliagarria izango da ongarri moduan erabiltzeko: lorategietarako, nekazaritzarako... eta halako gunetarako.

Hain justu ere, eta Epeleko zerbitzuari balio handiagoa emateko, konpost hori ahalik eta kalitaterik handienekoa izan dadin –A mailakoa– lortzeko tramiteak egiten dihardute, GHK-k adierazitako moduan.

**Apiril amaierarako**

Bada, azpiegitura horren kudeaketarekin interesa duten enpresak otsailaren 28ra arteko epea dute eskaintzak aurkezteko. Abenduaren 16an argitaratu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak lizitazio deia, "baina oraindik ez da enpresarik aurkeztu; normalean, azkeneko egunean aurkezten dira gehienak", esplikatu dute. Behin eskaintzak esku artean, hilabetean

**DEBAGOIENEAN 6.000 TONA ORGANIKO SORTZEN DIRA GAUR EGUN, EPELERA ERAMANGO DIRENAK**

erabaki beharko dute zeini esleitu kudeaketa. Gauzak horrela, "eta dena ondo bidean", aurreikuspena da apirilaren amaierarako martxan izango dela Epeleko konpost planta.

Plantaren kudeaketa martxan jarrita, bertan lanean jarduteko bederatzi lagun kontratatzekeo prozedura abiatuko dute.

**AKEI itxi egingo dute**

Epeleko konpost planta abiarazten dutenean, Gipuzkoak halako bi izango ditu martxan: Bergarako eta Azpeitiako Lapatx. Era berean, behin Epele zabaldua, Mankomunitatearen asmoa da Arrasateko Akei zabortegia ixtea. Gaur egun bertara eramaten da Debagoieneko errefusa, baina, Epele zabaltzeaz batera, errefus hori Elgoibarrera eramango dute eta AKEI itxi, Arrasateko Udalaren eskaera beteaz.



Bikain ziurtagiria jaso duten erakunde talde-argazkia. EUSKALIT

## Debagoieneko zortzi erakundek jaso dute Bikain ziurtagiria

Ibarreko zortzi erakundek lortu dute Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria; abenduaren 19an jaso zuten.

**Leire Kortabarria** DONOSTIA

Zehazki, honako hauek dira Debagoieneko erakunde sarituak: Erakunde Sanitario Integratuak, Fagor Ederlan S. Coop-ek, LKS Koop. E-k eta Miguel Altuna LHIK zilarrezko ziurtagiria lortu dute, eta Fagor Automation Koop.E-k, Fagor Electronica Koop E-k, Laboral Kutxak eta Txantxiku Ikastola Koop.E-k, urrezkoa, maila gorenekoa.

**52 saridun**

Bederatzigarren urtez banatu dira Bikain ziurtagiriak, eta aurretik, 400 lagun inguru batu

ziren ekitaldian, Donostiako Kursaal jauregian. Bertan izan ziren, Urkullu lehendakariarekin batera, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburu Bingen Zupiria, Enplegu eta Gizarte Politika sailburu Beatriz Artolazabal, Osasun sailburu Jon Darpon, Hizkuntza Politika sailburuorde Patxi Baztarrika eta Confebaskeko lehendakari Roberto Larrañaga, beste batzuen artean.

52 erakundek jaso dute aurretik Bikain ziurtagiria. Horietatik 19k urrezkoa jaso dute; 22k, zilarrezkoa, eta 11k, oinarritzko mailari dagokiona.

## Intxorta 1937 kultur elkarteak liburuak ditu salgai Arrasaten

Zeziaga denda zenaren erakusleihoan daude ikusteko eta abenduaren 31 arte erosi ahal izango dira

**Mirari Altube** ARRASATE

*Opari ezazu memoria* leloarekin hainbat liburu jarri dituzte salgai ohi baino prezio merkeagoan Intxorta 1937 kultur elkarteak kideek. Liburu horiek, besteak beste, *Gerrako garrak Oñatin*, *Arrasate 1936 Belaunaldi etena* eta *Bizitza bi aurrez aurre*, Zeziaga denda zenaren erakusleihoan daude. Erosi gura dutenek Arrasate Zientzia Elkartera jo behar dute edo telefono zenbaki hauetako batera deitu: 678 24 20 31 edo 699 66 92 05. Abenduaren 31 da azken eguna.



Salgai dauden liburuak. UBANE MADERA

# Datorren pentsio publiko sistemaren zain

Espainiako gobernua eta hainbat eragile sozial, tartean Toledoko Ituneko mahaiko ordezkariak, Espainiako pentsio publiko sistemaren erreforma lantzen dabilta, Euskal Herriko pentsiodunak ere hartzen dituen bere baitan

**Leire Kortabarria** DEBAGOIENA

Horren aurrean, kezkatuta daude pentsiodunak. Aldiz, aztarnen arabera, sistema ez da askorik aldatuko; lasaitasun mezuak eman dituzte agintariak eta baita ekonomialari askok ere. Modu batera edo bestera, pentsiodunen erosketa-ahalmena galdu dute,

eta Enplegu ministro Fatima Bañezek aurreratu du 2017an pentsioak %0,25 bakarrik igoko direla, hau da, legeak markatzen duen gutxienekoa.

**Prestazio batzuk, kanpora**

Etorkizunean, pentsio batzuk, kotizazioekin beharrean, zerge-

kin lotzeko aukera mahai gainean dago. Pentsio publikoen sistemak bost motatako prestazioak hartzen ditu, eta, guztietarako nahikoa diru ez dagoenez, pentsio batzuk zaku horretatik ateratzeko eta zerga bidez finantzatzeko aukera aztertzen dabil Espainiako gobernua.

## "Nik esango nuke erreforma ez dela izango batzuek uste adinekoa"

**ADRIAN ZELAIA** EKAI CENTERREKO PRESIDENTEA

**Badirudi pentsio publikoen sistemaren erreforma datorrela.**

Nik esango nuke erreforma ez dela izango batzuek uste bezain garrantzitsua. Arlo finantzarioan sortu den izuaren aurrean, arlo politikoan justu kontrakoa gertatu da, hau da, mezu lasaigarriak bota dira, eta aipatu dira oso neurri konkretu batzuk pentsioak bidez batetik edo beste batetik finantzatzeko.

**Baina dirua mugatua da eta pentsioak arriskuan daude.**

30 edo 40 urtez ibili gara etengabe horren inguruko hainbat mezu izugarri jasotzen. Eta hori erabili da, batetik, sistema finantzarioen aldetik pentsio pribatuak modu artifizialean saltzeko, eta bestetik, arlo politikoan erabili da momentu askotan murrizketa batzuk egiteko aurrekontuetan. Orain, epe luzeko erronka hori



GOIENA

heltzen ari da, eta politikariak esaten ari dira etorkizunean pentsioak ordaintzeko kotizazioekin nahikoa ez bada, zergetatik aterako dela dirua, eta hori da azkenean gauzarik logikoena eta gertatu behar zena momenturen baten.

## "Pentsiodunok antolatu eta erantzun bateratua eman behar dugu"

**ITZIAR USANDIZAGA** DUINTASUNA ELKARTEKO KIDEA

**Zer ekarriko du, zure ustez, pentsioen erreformak?**

Berriz ere miseriara bota nahi gaituzte datozen murrizketekin; denak galdetzen ari dira ea pentsioa kobratuko ote duten.

**Ze neurri datoz, bada?**

Esaten dutenez, Toledoko Itunean nahiko aurreratu dago honako hau: pentsio publikoen zakua ez dela denerako ailegatzen eta alargunen eta umezurtzen pentsioak hortik

atera eta aurrekontu bidez ordaindu nahi dituztela. Guri oso gaizki iruditzen zaigu hori, izan ere, azken baten eskubide objektibo bat galtzen dugu eta eskubide subjektibo bihurtzen da.

**Ze eskatzen du zuen elkarteak?**

Gu ez gaude Espainiara begira; guk nahi dugu Euskal Herrian kudeatutako gizarte segurantzak. Bestetik, pentsiodunak



GOIENA

gizartearen %25 gara; kopuru handia da hori, eta egiten ari zaizkigun murrizketen aurrean erantzun bateratu bat eman behar dugu; aurre egin behar diogu horri, antolatu egin behar gara eta erantzun bat eman behar dugu.

## Euskal enpresak eta familiak baikorrak dira ekonomiaz

Laboral Kutxak enpresa-konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei

**L.K.** DEBAGOIENA

Helburua da jakitea 2017ko lehen hiruhilekorako dituzten espektatibak. Ikuspegi baikorra dute enpresaburu gehienek, baina konfiantza zertxobait jaitsi da aurreko inkestatik. Datuak abenduaren 14an jakinarazi zituzten.

Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten espektatibei dagokienez, %68,5ek uste dute egoerak bere horretan jarraituko duela, eta %17,5ek, hobera egingo duela.

Fakturazioari buruzko aurreikuspenak onak dira: %60,9ren iritziz, egoerak bere horretan segituko du, eta %27,6ren ustez, onera egingo du.

Aurreko adierazlearekin bat, 2017ko lehen hiruhilekoan jarduerak bere horretan segituko duela uste dutenen kopurua %66,7koa da, eta egoerak hobera egingo duela uste dutenena,

%19,4koa. Inkestatuen %13,9ren ustez, berriz, jarduerak txarre- egingo du. Inkestatuen %61,2k bolumenari eustea espero dute, eta %26,5ek, hobetzea. %12,2k, berriz, txarrerara egingo duela uste dute.

**Kontsumitzaileen konfiantza**

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren gaineko txostena ere kaleratu du Laboral Kutxak; 2016ko azken hiruhilekoari dagokio. Ondorio nagusia da euskal familien konfiantzak hobera egin duela aurreko hiruhilekotik eta suspertzea sendotu egin dela. Hala ere, euskal familiak ez dira animatzen oraindik "erosketa handiak" egitera. 2016an, "erosketa handiak" egiteko unea izateari buruzko balorazioa hobetu egin da 2015ekoarekin alderatuta, baina erosteko benetako asmoa ez da ia suspertu.

## ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialetako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2016ko azaroaren 24an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**EGUNA:** 2017ko urtarrilaren 19a.

**LEKUA:** Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

**ORDUA:** Lehen deialdia: 18:00. Bigarren deialdia: 18:30.

### GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2015-2016 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2015-2016 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-orria, Diru Fluxuen Egoera-orria eta Txostena), eta baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.
4. 2015-2016 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2016-2017 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Errektorea berrizatzea.
7. Kontseilu Soziala berrizatzea.
8. Kontseilu Errektorea ahalduz Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
9. Galde-erantzunak.

**arizmendi**  
ikastola

Aitziber Arregi Iribecampos  
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Arrasate, 2016/11/24





Marrupako nekazari bat, landutako lurra ureztatzen. MUNDUKIDE FUNDAZIOA

## Mikrokredituak nekazari mozambiketarrendako

2002an hasi zen Mundukide mikrokredituen kanpaina horrekin eta urtetik urtera Mozambikeko gero eta nekazari gehiagori eskaintzen die laguntza; aurten 80.000 pertsonak jaso dute kreditua. Behin uzta jasota, dirua itzuli beharko dute nekazariak

A. L. / J. B. DEBAGOIENA

Mozambique iparraldean dagoen Marrupa distrituko nekazariak laguntzeko mikrokredituen kanpaina jarri du martxan Mundukide gobernuz kanpoko erakundeak, berriro ere. Kreditu horien helburua da bertako nekazariak lurra lantzeko eta ureztatzeko behar duten materiala finantzatzea, baita lurra ereiteko haziak eta ongariak ere. Behin lurra ereinda eta uzta jasota, salmenten etekinetatik ateratako dirutik mikrokreditua itzuli beharko dute.

### Bertako nekazari baten adibidea

Mundukidek ohar bidez eman du kanpainaren berri eta bertako adibide erreal bat erabili du laguntza horren garrantzia balioan jartzeko: "Tusha Balamako nekazari bat da, alarguna, bere zaintzapean hiru seme-alaba dauzkana. Nekez lortzen dute, euri garaian, behar adinako arto saila ereitea urte guztirako jana edukitzeko. Ezusteko-

ren bat gertatzen bada, alegia, euri gutxi, gaixotasunen bat... odisea hutsa bihurtzen da gose pasatu barik egotea; familia asko urtean 100 euro izatera ere ez dira iristen".

2011tik aurrera, mikrokredituen programan, onuradunen %50etik gora emakumeak dira; izan ere, kopuru osoaren %55 jasotzen dute ia.

Nola edo hala, Mundukidek egindako lana azpimarragarria da, geroago eta nekazari gehiagok egiten duelako aurrera kanpaina horretan eskuratzen duten kredituarekin: 2016an, guztira, Mozambikeko 80.000 nekazariari eskaini die laguntza Mundukide fundazioak. Iaz, esate baterako, 46.000 euro batu ziren mikrokredituetan, eta, horren ostean, lau milioi euroko etekinak atera ziren produktuz.

### Helburua, autonomia sustatzea

Horiek horrela, egoera horren aurrean etorkizunerako erron-

ka argia da: nekazarien mikrokredituekiko mendekotasuna murriztea eta autonomia sustatzea. "Mundukideren proiektuetan beti epe luzera begira egiten dugu lan. Gure helburua da guk laguntza eman ostean beraiek euren kabuz ekonomia egoki bat sortzea eta mantentzea. Horregatik saiatzen gara nekazari berriei bakarrik ematen kreditua; izan ere, beteranoak kontzientziatu behar dira aurreko urteetako kanpainetan lortutako etekinen zati bat aurreztu behar dutela, hurrengo urterako inbertsioa ordaindu egin ahal izateko", azaldu du Urri Urizarrek, Mundukideko komunikazio arduradunak.

### Donazioak Laboral Kutxan

Ekarpena egin gura dutenek Laboral Kutxako edozein bulegotara gerturatu eta bertako eskuorria bete ondoren, ekarpena Mundukideko kontu korrontean sartzeko eskatu beharko dute.

## Ikasle gazteendako hitzaldi zikloa antolatu du Jakiundek

Hainbat diziplinan adituak diren lehen mailako hizlariak eskainiko dituzte topaketa horiek

A. L. / J. B. DEBAGOIENA

Seigarren urtez jarraian, Jakiunde Akademiak Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierriko ikastetxeetako DBHko lagarren mailako ikasleentzako *Jakin-mina* hitzaldi-programa abian jarri du. Gazteen garapen intelektuala eta pertsonala babesteko proposamena da, itzal handiko hainbat adituren hitzaldi eta erakustaldiekin osatutako diziplina anitzeko programa batean oinarritua.

### Arrasaten ziklo bat

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ikastetxeek jaso dute *Jakin-mina* 2016-2017 deialdia. Aurtengo edizioak bederatzi ziklo izango ditu eta honela banatuko dira: EAEn, Gipuzkoan hiru ziklo, horietatik bi Joxe Mari Korta ikerketa egoitzan eta beste bat Arra-

sateko Mondragon Unibertsitatean; Bizkaian hiru ziklo, horietatik bi Bizkaia Aretoan burutuko dira (EHU) eta bat Deustuko Unibertsitatean; Araban ziklo bat Lasararay Ikerketa gunean eskainia, Gasteizko EHUKo campusean; eta azkenik, Nafarroan bi ziklo burutuko dira, bata Nafarroako Unibertsitateak Iruñean duen campusean eta bestea Nafarroako Unibertsitate Publikoak (UPNA-NUP) Tuteran duen campusean. Arrasateko lehen bi hitzaldiak eman dituzte dagoeneko; beste hirurak urtaririlaren 13an, otsailaren 17an eta martxoaren 17an izango dira, 17:30ean.

DBHko lagarren mailako 420 ikasle inguruk parte hartuko dute, eta hautatzen duen zikloko bost hitzaldietara joan ahal izango da bakoitza.

## 72.000 euro bueltan jasoko du mendeko ekarpenen jabe batek

Arabako Auzitegi Probintzialeko 1. Atalak Laboral Kutxari sententzia bidez agindu dio mendeko ekarpenetan hiru aldiz inbertitu zuen Fagorreko kooperatibista bati 72.000 euro bueltatzeko; hain zuzen, bere talde kooperatibistako ekarpenetan inbertitu zuen. Sententziak agintzen du inbertitutako diru guztia eta

sortu dituen interesak bueltatu behar zaizkiola, ez bakarrik diruaren zati bat, aurreko epai batek esan zuen bezala; aurreko epai hori ezeztatu egiten du honakoak. Sententziak dio kooperatibista Fagorreko kide izateak ez duela berekin ekartzen hark produktua ezagutzea, eta gainera, oinarritzko ikasketak bakarrik zituela. Bestetik, ekarpenen jabeak ekarpenei esker irabazi zuen diru guztia bueltan eman beharko du.

## MIKeko ikertzaile talde batek, bikaintasun aitortza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bikaintasuna aitortu dio MIK erakundeko ikerkuntza talde bati. Zehazki, kudeaketa arloan ikertzen du saritutako taldeak.

Gai nagusia kooperatibismoa eta jabego partekatuan oinarritutako beste enpresa-eredu batzuk dira, eta baita langileen parte-hartzea erakundean.

Halaber, enpresetan pertsonen kudeaketa estrategikoak duen garrantziaz ikertzen dute.

Talde horrek aintzat hartzen du ere "azken urteotan gertatzen ari den ekonomia eta gizarte-testuinguru aldaketa", Mondragon Unibertsitatearen esanetan.

Mondragon Unibertsitateak azpimarratu duen moduan, "gaia hain konplexua eta diziplina askotarikoa izanda, hainbat herrialdeko ikertzaileak daude taldean, eta baita hainbat arlotako adituak ere".

## On Jose Miguel eta Euskal Herria

### JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN  
FUNDAZIOAREN LEHENDAKARIA  
ARAMAIO

Jose Miguel Barandiaran hil zela hogeita bost urte betetzera gindoazen eta ataundarrak euskal kulturarako adierazi zuena berriro ozen gogoratu behar genuela iruditu zitzaigun bere izena daraman eta berak sortutako Fundazioan.

On Jose Miguel oinarrizko pertsonaia izan dugu gure herriaren historian eta ezinbestekoa zaigu behin eta berriz jendartera ekartzea euskal kulturaren patriarkatzat hartuta izan den gizon haren mezua.

Jakintzaren hainbat esparrutan bere goi maisutasuna erakutsi zuen. Hala ere, bere kasuan nabarmenena ez da zer eta

zenbat erakutsi zigun, baizik eta nola egin zuen. On Jose Miguelek giza estilo sakonaz irakatsi zuen beti, katedra-aulki gorenetatik eta landa-lanik xumeenetako talaiatik ere. Gizabidea zuen helburu nagusia ekintza guztietan eta ez zuen inoiz hutsik egin.

Gasteizko Apaiztegitik, Ipar Euskal Herriko babes-aterpe behartutik edota bere jaioterriko Sara Etxetik euskal gizartearen garapen humanoa bilatu zuen etengabe Barandiaranek. Horren egiaztapena da bere ikerketa-lanen artean ez dugula bat ere aurkituko zientziari garrantzi gehiago ematen dionik pertsonari baino.

Hogeita bost urte eman dira On Jose Miguelen heriotzatik eta berak ereindako baloreak inoiz baino beharrezkoagoak zaizkigu euskal gizartearen. Eskuzabaltasuna, zorrozatasuna, ongi egindako

lanerako gogoia, malgutasuna, apaltasuna, bestearenganako hurbiltasuna, etikotasuna, eragozpenak aukerak bilakatzeko gaitasuna, eta Barandiaranek bere bizitza luzean nabarmen erakutsitako nolakotasun luze baten txertaketa gure eguneroko bizimoduan eginez gero aurrerapauso erraldoia litzateke gizarte kontzientziaren eraikuntzan. Fundazioak xede horrekin egiten du lan.

Jose Miguel Barandiaran Euskal Herriaren ondarea da.

Horixe berrerakutsi nahi izan dugu aurtengo jardunaldietan, Urkullu lehendakaria eta Barkos presidentea buru izan diren abenduaren 21eko ekitaldia barne.

Eta Ataungo semeak bihotzean zeramatzan euskal lurralde guztietara ireki dugu haren ikasgaia.

Aurrerantzean ere On Jose Miguelen baloreei eragitea dagokigu, berak amesten zuen Euskal Herria izango bada.

## Zigarrolako komertzioetan margoketak

### ANE GARCIA-ARREGI

ARRASATE

Orain dela aste batzuk, Zigarrola auzoan, Gipuzkoa etorbidean ireki edo eraberritu dituzten zenbait komertzio handiren iragarki panel eta izenetan margoketak egin dira. Hauetan, gaztelera hutsez erabiltzen diren kartelak margoz busti ditugu –Lidl berria, Hiper Asia berritua...–.

Denda komertzial hauen arduradun, langile eta erabiltzaileek jakin behar dute hau ez dela beraien negozio edo zerbitzuen aurka egindako zerbitu, baina bai

hauek erabiltzen duten hizkuntza politikaren aurka eginikoa.

Bertako herritarren eskura irekitzen diren zerbitzuek ezin dute gure hizkuntza ezkutatu, ikusezin bihurtu eta ondorioz mesprextatu.

Udalak esaten duen bezala, "zaindu dezagun gure herria, aitor dezagun bere balioa eta mantendu dezagun gure ondarea, herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko".

Erantzukizun bera eskatzen diogu Udalari, komertzio edo zerbitzu berrien lizentziak eta baimenak ematerakoan, hizkuntzaren erabilerari dagokionez exijentzia minimo batzuk eskatu ditzan.

Hemendik aurrera ere, orain arte bezala, gure herrian zein auzoan iragartzen diren gaztelera hutsezko kartel, seinale edo iragarkiak –publiko zein pribatu– kendu, zuzendu edo ezabatzen jarraituko dugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



## ABOKATUAK

### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### ATXEN MUNGIA /

### NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.eus

## AHOLKULARITZAK

### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

### GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.eus

## ARKITEKTOAK

### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ZABALIK

VALEN MOÑUX

## Untxi Zuriaren atzetik

Duela 150 urte, Lewis Carroll idazleak *Alice in Wonderland* eleberri motza argitaratu zuen eta ordutik hona hizkuntza guztietara itzuli da haren obra, euskarara barne, *Alizia herrialde miresgarrian* tituluarekin.

Adierazten diren pertsonaiak eta situazioak zeharo absurdoak dira eta ehunka interpretazio egin dira ipuin fantastiko horren gainean. Gure ikuspuntutik, ez da erraza asmatzea zeintzuk izango ziren parodien helburuak, baina argi dago, adibidez, Dodo Txoria egileak bere buruari egindako burla bat zela. Carrollen benetako abizena Dogson baitzen, eta, tartamutua izanik, bere abizena *Do-Do-Dogson* ahoskatzen zuen. Nahiko garbia da Bihotzen Erreginaren pertsonaia orduko Ingalaterrako Victoria erreginaren karikatura surrealista dela.

Sasoï victoriar hartan egindako obra horretan oinarrituta, kontaezineko egokitzapen lanak egin dira. Ezagunenak,

zalantzarik gabe, Disneyk produzitutako bi pelikula dira: 1951ko marrazki bizidunetako filma eta 2010eko Tim Burtonen bertsioa, aktoreekin egin, baina azken belaunaldiko efektu berezi ikusgarrienak erabilia.

### EA, BADA, NOLA JARRAITZEN DUEN GURE ABENTURAK LURRALDE MIRESGARRIAN

Aliziaren historia eta bere

pertsonaiak oholtzara ere igo dira askotan eta antzerki lan ugari egin dira; horietatik batzuk musikalak dira, gainera.

Aspaldiko ohiturari jarraituz, ia tradizio bihurturik, Bergarako Musika Eskolak Aliziaren bertsio musikala taularatuko du 2017an.

Betiko irizpideari jarraituz, euskarazko bertsioa izango da, eta, aurretik beste obrekin gertatu izan den moduan, historian lehenengo aldia izango da *Alizia musikala* euskaraz taularatuko dena.

Dagoeneko martxan jarria dago, beste behin ere, gure faktoria: gidoilariak, dekoratuen egileak, abeslariak, musikariak, dantzariak...

Beti bezala, bidelagun ugari izango ditugu gurekin, sorpresaz beteriko bertsioa gauzatzeko.

Ea, bada, nola jarraitzen duen gure abenturak Lurralde Miresgarrian. Gu, behintzat, hasi gara korrikari Untxi Zuriaren atzetik.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## ZEUK ESANA

### Lege bat eskatu du Espainiako Kongresuak, adingabeen artean alkohol kontsumoa murrizteko; zer deritzozu?

#### ZURRUT

DEBAGOIENA

Zenbat urte daramatzagu adin txikikoen alkohol kontsumoarekin kezkatuta?

Jakina da litxarrerria-denda eta taberna batzuetan alkohola saltzen dietela umeei. Inork zaintzen du hori?

Nik neuk sekula ere ez dut entzun isun bat ipini diotela halako bati adin txikikoei alkohola saltzeagatik. Zuek entzun duzue horrelakorik? Hipokrisiarik ez, mesedez.

Heziketa, ez da besterik behar. Heziketa, eta erakundeen inplikazioa.

#### IRITZIHON

ARRASATE

Gero eta lehenau hasten die gaur egungo gaztiekin zurrutien. Eta normala be bada, ala?

Izen be, ze ikusten daue, ba, inguruen? Zenbat guraso... ostirala ailegau... kalera urten... umiekin... baiñe segiduen kuadrillakuekin elkartu, eta benga, zurituek,

zerbezak... bata bestiaren atzetik. Eta umiek han dau! Bueno, kasu askotan, han be ez dauz, segiduen soltetan dittue parkera, gurasuek poteetan dabitzen bittartien. Ejenplo ederra.

Klaro dauena da umiek imitaziñoz hazten diela, eta, alkoholaren kasuen, euren eguneroko bizitzan dau. Hori ez dau iñungo legerik kontrolauko! Gizartiek kontrolau biher dau!

Eta ez dauenak hori ikusten...

**HURRENGO ZENBAKIAN: AITATASUN BAIMENA LAU ASTERA LUZATU DU ESPAINIAKO GOBERNUAK.**

Iritzia emateko posta elektronikoa: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) / Webgunea: [goiena.eus](http://goiena.eus).

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.  
Erredaktore burua  
Ubane Madera.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Goizatz Arana.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura),  
Leire Kortabarria (Ekonomia).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza,  
Jokin Uribeetxeberria.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05

[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## PROTAGONISTA

# "Negu nahiko baketsua izango dugula ematen du"

PELLO ZABALA FRANTZISKOTARRA

**Ander Larrañaga** DEBAGOIENA Eguaztenez sartu ginen ofizialki neguan, eta, atzera begira jarrita, urtaro zalantzatsua espero daiteke; izan ere, inoiz baino udazken lehor eta epelagoa igaro ostean, euri apur batekin hasi dugu astea. Kontuak kontu, zerura begira jarri barik, Pello Zabalaekin izan da GOIENA tenporak nola geratu diren eta Debagoienez zelako negua izango den jakiteko.

## Aldrebes samarrak izan dira azken asteak giroari dagokionez.

Azken hilabetea dotorea izan da, bai; gauza bat da hiru egun eguzkitsu izatea, baina giro epela jarraian egon da, baita udatik honako gainontzeko hilabeteetan ere. Egia da azken egunetan laino eta euri apur bat izan dugula, negu garaian izaten den giro hori, baina aparteko besterik ez da izan. Bestalde, kanpora begira jarrita, gu epel, baina hegoaldean hotz. Andaluzia aldean, esaterako, azkenaldian



Pello Zabala, Arantzazun. GOIENA

izan dituzten euriteak ez dira normalak. Hemen gure tenporak gure erara badira, ezin pentsatu han ere hala izango direnik, bestela! **Zer diote, ba, hemengo tenporek eta kontratenporek?**

Artzainen arabera, pasa den asteke eguaztenez hasi eta aste honetako eguaztenez amaitu ziren kontratenporak eta horiei so eginda negu nahiko baketsua izango dugula ematen du. Tenporak

abenduko bigarren astean izan ziren, eta, motzean, ez digute esan aurten aparteko koskarik egongo denik, ezta negu arraro bat izango dugunik ere.

Bestalde, Nafarroa eta Ebro inguruko tenporei erreparatu, agindutakoa betetzen bada, behintzat, nik uste dut behe-lainoa kendu gabe pasa beharko dutela negu guztia. Han ez dute apenas eguzkirik ikusi. Hori normalean izaten da haize aldaketak oso ahulak izaten direnean.

## Eskualdera bueltatuz, beraz, elur gutxi hemen.

Hori ez dago zehatz-mehatz jakiterik: elur-kota estimatzea zaila da. Orain arte antizikloiaren biran izan gara, baina hemen haizeak agintzen du, Pirinioetatik datorrena, hain zuzen ere. Herrietako kaleak ez dakit; mendi tontorrek zurituko dira, seguruenik, baina duela aste batzuk pasatu zena gerta liteke ere: elur gutxi, baina kolpekoa, inork espero ez zuena, alegia. Eguraldia normalean baino kanpoko bidetik badabil zaila da zehaztea zer izango dugun; posible da tenperatura-koska arraroren bat egotea, baina beste mundukorik ez, behintzat.

## HAU BE BADOGU!

## #AltsasukoakAske, babesa azaltzeko traola



Altsasun atxilotu zituzten zazpi gazteetatik lau aske utzi dituzte. Martitzenezan Madrilgo parlamentari batzuekin batu ziren espetxeratuen senideak – irudian, Pablo Iglesiasekin–.

@hitzondo: "Altsasuko kartzelaratuen familiak atzo @ahorapodemos, @Esquerra ERC, @ehbilucongreso eta @eajpnnv-rekin #AltsasukoakAske".

## Urkullu eta Barkos, Barandiaran omentzen



Jose Miguel Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrena dela eta, Iñigo Urkullu lehendakaria, Uxue Barkos Nafarroako presidentea eta Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia batu ziren, eguaztenez, Ataunen, omenaldian. Tartean, Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarra ere izan zen, Barandiaran Fundazioko presidentea –argazkian ikus daitekeen moduan–.

## #Luhuso 'trending topic' izan da

@ArnaldoOtegi: "Bakearen artisauek kalean. Herri bezala erantzuten dugunean estatuek arazoak dituzte. Hor ikasgaia. Aurrera! #Luhuso".

@NaguaAlba: "ETAren armagabetzea bere ardura da, eta estatutena hori erraztea. Luhusoko atxilotetek prozesu hau oztopatzen dute" (itzul).

@jagirretxea: "#ETA-ren armagabetzearen bidean jarritako oztopoak kaltegarriak dira bakerako".

## ITURRI ONETIK

## Goiena Saria, potoloago

Huhezinema Euskal Film Laburren jaialdiak 10 urte betetzen ditu. Martxoaren 28 eta 31 bitartean egingo da eta zabaldu dute lanak aurkezteko aukera.

Berritasunekin dator 2017ko edizioa. Sarien arloan, besteak beste. Euskarazko film labur onena saritzen duen Goiena Sariak dirusari handiagoa banatuko du: 800 euro gehi Ogeita4 Camera Solution enpresak 1.500 eurotan baloratutako kamera ekipamendua utziko dio irabazleari, 2018ko Huhezineman aurkeztuko den euskarazko film bat egiteko.

## GORA ETA BEHERA



JOKIN BEREZIARTUA

## Biribilgunea kenduta, bidegurutzera garbiago



Arrasateko Nafarroa etorbidean –erlojuaren eraikineren parean– zegoen biribilgune txiki bat kendu izanagatik eskertuta idatzi du irakurle batek. "Oso-oso txikia zen biribilgunea, eta horrek arriskutsu bilakatzen zuen bertako zirkulazioa. Izan ere, azkeneko unera arte ez zen ikusi ere egiten; orain, garbiago dago adierazita egin beharreko maniobra zein den".



# Jendez lepo berriro ere santamasetako azoka

Aurten Arrasateko txerri dantzak mende laurdena bete du, eta, horregatik, hain justu, melodiaren sortzaileak omendu ditu Santamas Komisiñuak: Jose Ramon Vitoriak eta Jon Iñaki Izarzelaiak herriaren aitortpena eta esker ona jaso dute

**Ander Larrañaga** ARRASATE  
Urtero legez, iritsi da Arrasateko urteko azokarik garrantzitsuenak. Eguraldiak askorik ez lagundu arren, herritarrak baserritarren jantzi eta kalera irten ziren atzo santamasetako feriaz gozatzera, talo eta sagardo edalontzia eskuetan. Seber Altube, Jokin Zaitegi, Biteri eta Herriko Plaza izan ziren, betiko moduan, herriko gune protagonistak.

Herriko giroa Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeek, Incansables txarangak, herri kirolek, Iturengo joaldunek, trikitilariak eta erraldoi zein kilien konpartsek alaitu zuten.

**'Txerrita', txerri lasaia**  
Aurtengo txerria Aretxabaletako Zaloña baserritik ekarritakoa da; lasai-lasai ibili zen *Txerrita*

Arrasateko kaleetan zehar eta ume zein heldu gertutik ezagutzeko hurbildu ziren.

**Fruta onenaren saririk ez**  
Baserritarren postuen artean beti egiten dute lehiaketa santamasetan. Aurten hauek izan dira sarituak: herriko postu onena Enuzketa baserriko Arantza Olaberena izan zen eta barazkirik onena Ane Gorosabelena; eta frutetan, lehen saririk ez du banatu epaimahaiak aurten. Ez zuen horren merezimen-dukorik aurkitu lehiaketan, baina bigarren saria Pakea Galdos gabiriarrak eroan zuen.

**Txerri dantzak, 25 urte**  
Esan bezala, aurten Txerri dantzaren 25. urteurrena izan da eta abestiaren sortzaile diren Jose

Ramon Vitoria eta Jon Iñaki Izarzelaiak omendu ditu Santamas Komisiñuak; aitortpen hunkigarria izan zen, duda barik.

Kontuak kontu, aurtengo azoka gertuagotik ezagutu gura duenarendako, argazki galeriak, bideo erreportajeak eta xehetasun guztiak ikusgai daude *Goiena.eus* atarian.



Jon Iñaki Izarzelai, Beñat Barrutia eta Jose Ramon Vitoria.



Txerrita Galartzako txerria.



Dantzariak atzo goizeko emanaldian.



Herritarrak oilarrei begira.



Lehiaketetako irabazleak eta Udal ordezkariak.



Familia bat baserritarrez jantzita.



Trontza ikuskizuna. ARGAZKIAK: JOSU BILBAO, ANDER LARRAÑAGA ETA ANDONI BODES

## PROMISE

Barruko arropa • Lentzeria

---

**2016ko abenduaren 26tik**  
beherapenak bukatu arte  
**%40**ko deskontua pijama  
hautatuetan eta **2017ko**  
**urtarrilaren 2tik 15era**  
**%30**eko deskontua  
kortseteriako bilduma batzuetan

---

Maisu Arano kalea, 8 Arrasate | Tel.: 943 79 72 59  
promisearrasate@gmail.com | promisearrasate

# GABON ZORIONTSUAK!



# "Indarrak batzeko" deia, herria euskalduntzeko

Astelehenean *Zurekin Arrasate euskaldunago* kanpaina jarri zen martxan. Kulturateko aretoan egindako aurkezpenean, eta indarrak batzeko asmoz, herritarrak elkarte horietara batzera animatu zituzten Txatxilipurdik, Ekin Emakumeek eta AEDk



Ekimenaren bultzatzaile diren elkarteetako kideak Kulturateko aurkezpenean . M.A.

## Goiena komunitatea

AED, Txatxilipurdi eta Ekin Emakumeak  
ARRASATE

Herria euskaldunago izateko helburuarekin, ekimenaren bultzatzaile diren Txatxilipurdi, Ekin Emakumeak eta AED elkarteek *Zurekin Arrasate Euskaldunago* kanpaina aurkeztu zuten astelehenean Kulturateko aretoan. Helburua lortu nahian, elkarte horietako kideek indarrak batzeko gonbidapena luza zieten arrasatearrei.

Elkarteek badakite hainbat herritar euskararen alde lanean dabiltzala, baina euren desira bide horietatik eskutik joatean datza.

## Parte hartzeko moduak

Herritarren atxikimendua lortu nahian, elkarteek horretarako hainbat bide daudela azaldu zuten. Bide horietako bat 58 euroko urteko kuota ordaintzea da. Hala ere, nork bere aukeren

arabera erabakitako diru kopurua emanaz ere lagundu dezake ekonomikoki. Ekarpen ekonomikoaz gain, elkarten kide izateko beste hainbat modu ere badaude; besteak beste, herritarrak gustuko dituen ekintzen antolaketan parte hartuz, elkarten lan esparru nagusietan ekarpenak eginez edota egitasmo berriak proposatuz.

## Kanpaina, udaberri arte

Pasa den astelehenean jarri zen kanpaina martxan, eta datozen hilabeteotan, martxoaren 25a arte, horretan murgilduta ibiliko dira aurrez aipatutako elkarteak. Hori horrela izanik, elkarteek aurrerantzean ohiko jardueretan jarraitzeaz gain, kanpainarekin lotutako ekintza bereziak ere antolatuko dituzte. Ekitaldi potoloena kanpainako azken egunean egingo dute. Egun horretan, elkartekideak, eragileak eta herritarrak batera aterako dira kalera, festa giroan.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

## Aldaketetan dago sendagaia

2016a bukatzeaz da, egun gutxi gelditzen zaizkigu zenbakiz aldatzeko eta 365 eguneko ziklo berriari ateak zabaltzeko. Beste urte oso bat izan dugu erabaki eta aldaketak emateko. Eguneroko borrokan gabiltza gutariko asko gure identitatea defendatu eta mailaz igotzeko.

Zutaz ari naiz bai, euskara! Irakurri berri dudana artikuluko batek aipatzen duen bezala, euskararen egun bat ospatzen da, gure egutegiak dioenez, eta zer gertatzen da beste 364 egunekin? Aurreko astean gertatu zitzaidan, Nafarroako herri baten geldituta nengoen nire taldekideekin eta kafetegi batera sartu nintzen zerbait hartzeko asmoz. Sorpresa jaso nuen, arrotz sentiarazi ninduten, telefonoz hizketan jarri eta jaso nituen begiradek zauritu ninduten. Guk euskaldun sentitu eta euskararekin bizi garenok mingainak dantzan ditugu eta berarekin solasean egin, borrokatu, maitatu, eztabaidatu, sentitu... egiten dugu, gure eguneroko bitamina da. Baina honekin ez da nahikoa. Erabaki eta lege aldaketak dira zauriak sendatzen dituen benetako sendagaiak.

**Txikilandia**  
urtarrilak 2, 3, 4 ARRASATEN 2017

**urtarrilak 2**

10:30 15:30 17:00 20:00

**UR PARKEA MUSAKOLAKO IGERILEKUAN**  
\* 0-4 urte bitarteko haurrak laguntzaileekin joan behariko dute.  
\* Igerileku handian 7 urteik aurrerako haurrentzako putzgarriak egongo dira.

**JOLAS PARKEA UARCAPEKO PILOTALEKUAN**  
putzgarriak, ohe elastikoak, tailerrak, esperimentazio gunea, multimedia gela, aurpegi margotzea, robotdromoa...

**urtarrilak 3**

10:30 15:30 17:00 20:00

**JOLAS PARKEA UARCAPEKO PILOTALEKUAN**  
putzgarriak, ohe elastikoak, tailerrak, esperimentazio gunea, multimedia gela, aurpegi margotzea, robotdromoa...

**urtarrilak 4**

10:30 15:30 17:00 18:30

**JOLAS PARKEA UARCAPEKO PILOTALEKUAN**  
\* Ikuskizuna dela eta arratsaldean ez dira tailerrak egongo.

**IKUSKIZUNA UARCAPEN, DJ MARTINBERTSO ETA ANE PIRATA**  
\* Ikuskizunerako jolas parkeko ekintza guztiak bukatu egingo dira

txatxilipurdi guraso.eus goiena





Aurrekontuaren bozketa: EAJ eta PSE-EE alde (11), Baleike eta Irabazi kontra (3) eta EH Bilduren abstentzioa (7). JOKIN BEREZIARTUA

# "Zuhurtziaz" jokatzeko aurrekontua 2017rako

laz baino 550.000 euro inguru gutxiago izango ditu Udalak datorren urterako. Lehentasunak dira, gobernuaren arabera, gizarte ongizatea eta enplegua; oposizioko emendakinen artean, Etxezarretako eremua erostea onartu dute, besteak beste

**Jokin Bereziartua** ARRASATE Aurrekontu "zuhurra" izango du Udalak 2017rako. Udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran onartu zuenez, 31.520.472 eurokoa da, iazkoa baino 550.000 euro inguru gutxiago (32.078.733 euro). Gobernuaren -EAJ eta PSE-EE- proposamenaren aurrean, EH Bildu abstenitu egin zen eta Baleikek eta Irabazik kontra bozkatu zuten, alde aurretik osotasunari emendakina aurkeztu ondoren.

Udal baliabideak "eraginkortasunez eta zuhurtziaz" kudeatzeko egungo testuingurura egokitutako aurrekontu "errealista eta arrazoizkoa" dela esan

du gobernuak. Lehentasun nagusiei dagokienez, gobernuak dio gizarte ongizatean -%7ko igoera iazko aurrekontuarekin alderatuta- eta enplegua sustatzean -%9ko igoera- jarriko duela bereziki fokua.

Inbertsioen artean, Kulturola egitasmoaz harago, auzoei lehentasuna emango zaie 2017an, herriko irigarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko hainbat ekimen egingo dira, euskara ikasteko aukera berriak zabalduko dira, gazteen emantzipazioa bultzatzeko alokairurako laguntzak aurreikusten dira, eta, asteon iragarri dutenez,

urtarrilean Umeen Kontseilua eratuko da, besteak beste. Bestalde, hasiera baten gobernuaren proposamenen barruan ez egon arren, emendakin moduan onartu dute Etxezarretako eremua erostea. Borondatea badago, baina gauzak ondo egin behar dira. "Esku pribatuetan dagoen eremua da. Erosketa eta prezioa ondo oinarrituta egon beharko dira eta txosten juridikoak ere beharko ditugu. Hala ere, Besaidek eta beste eragileek egingadako lanaz gain, udalbatzako alderdi guztien babesa izatea arnasa da guretzat halako erosketa potolo baten aurrean", dio Maria Ubarretxena alkateak.



Kulturolaren obra zuzendaritza esleitzeko kontratazio mahaia. IBON CARMONA

## Kulturola berritzeko lehen urratsak

Kulturola -erlojuaren eraikina- berritzeko lanen abiapuntu izango den obren zuzendaritza esleitu zen eguaztenean, Kontratazio Mahaian. Asturiasko Jovino Martinez Sierra arkitektura estudioak lortu du puntuazio altuena lehiaketa publikoan; enpresa horrek proiektua idatzi beharko du eta ondoren pleguak aterako dira obrak exekutatzeko. Martitzeneko osoko bilkuran onartu zenez, 2017rako aurrekontuan 1.250.000 euroko partida dago Kulturola eraikina eta Aprendices eraberritzeko. Obrak 2017 amaieran hasia espero da. "Prozesuak azkartzen saiatuko gara", adierazi du alkateak.

**Abstentzioa eta kontraktasuna** EH Bilduk bi arrazoi nagusi eman ditu abstentziara jotzeko. Lehen, hain justu, Etxezarretako emendakina onartzea. "Bigarren arrazoiak da hainbat gai irekita daudela lantzen joateko, iaz ez bezala. Jokoa dago, eta zentzu horretan ahaleginduko gara Arrasate solidarioagoa, justuagoa eta euskaldunagoa izan dadin datozen urteotan", gaineratu dute. Baleikek kontra bozkatu zuten; aurrekontua lantzeko "prozesu itxia" gogor salatu zuten, eta uste dute ez dela inongo borondate politikorik izan arrasatearrei lanketa horretan parte-hartzea ahalbidertzeko. "Enplegurako

milioi bateko gastua bakarrik aurreikusten da, baina Arrasaten langabezia-tasa %14koa da", gaineratu dute. Irabazik ere aurka bozkatu zuten: "Hirigintzan inbertitzen dute, askoz gehiago ez. Gu pertsonetan zentratzen gara, eurak ez", uste du Juan Luis Merinok.

Amaitzeko, Arrasateko Sare plataformak euskal presoen eskubideen defentsan aurkeztutako mozioa onartu egin zen: EAJk, EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik alde bozkatu zuten eta Alderdi Sozialistak, kontra.

Osoko bilkura osorik ikusi ahal izango da gaur, egubakoitza, Goiena telebistan (22:00).

**carrascaladapt**  
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA  
ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82  
scarrasc\_1@infonegocio.com

## ZUZENKETA

Aurreko egubakoitzeko zenbakian, Laubideko aparkalekuaren irekiera iragartzeko albistean, ordu batez bertan aparkatzeagatik ordaindu beharreko tarifa ez zen modu zuzenean eman. Albistean esaten zen 1,55 euro izango dela tarifa; bada, kopuru zuzena honako hau da: lehen bi orduetan doan aparkatu ahalko da -urtarrilaren 12ra arte iraungo du eskaintza horrek, albistean ondo esaten zen moduan-, baina ondoren 1,20 euro ordaindu beharko da orduko.

## ARRASATE IRRATIA

### Urtarrilaren 2ra arte!

Arrasate Irratiaren autobusa garajejan sartuko da datorren urtera arte. Izan ere, ez da *Igo autobusera!* saiorik egongo urtarrilaren 2an ohiko emisiora bueltatuko da Arrasate Irratia, askotariko gaiekin. Eta noski, asteroko zozketek ere ez dute hutsik egingo. Gogoratu, parte hartzeko: 943 25 05 05 edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus).



# Opariak bai, baina ikatza ere gertu du Olentzerok

Bihar, zapatua, goizean Txoronpio, Txoronpia eta Tartalok gutunak jasoko dituzte, eta arratsaldean, 18:15ean hasiko du Olentzerok Arrasateko kaleetan egingo duen ibilbidea; harekin joateko baserriar janzteko eskaera egin dute antolatzaileek

## Xabier Urzelai ARRASATE

Urduri daude haur eta gazteak, gainean dago-eta Olentzeroren etorrera. Urtean egindakoak saritzera dator ikazkina, baina baita txarto egindakoak zigortzera ere; horregatik, Olentzerok gertu du ikatz zakua. Bihar goizean Txoronpiok, Txoronpiak eta Tartalok gutunak batuko dituzte (11:20 Munar; 11:40 Uribe; 12:00 San Andres; 12:20 Aprendices; 12:40 Musakola; 13:00 Santa Marina; 13:30 Seber Altube) eta arratsaldean, 18:15an hasiko du Olentzerok kalejira -19:00 Olentzeroren agurra, plazan-.

## Txikilandia, 2tik 4ra

Bestalde, aurten ere Txatxilipurdiren eskutik Txikilandia Gabonetako haur parkea izango da. Urtarrilaren 2an zabalduko dituzte ateak, baina lehenengo goiza Musakolako igerilekuan pasako dute. Hor, 7-12 urte bitarteko haurrek igerileku handian puzgarriak izango dituzte. Eta igerileku txikian jolasak egongo dira.

Arratsaldean, berriz (17:00-20:00), Uarkapeko ateak irekiko dituzte, eta bertan izango da Txikilandia hiru egunez, urtarrilaren 4ra arte. Sarrerei dagokienez, 1-3 urte bitarteko haurrek 3 euro ordaindu beharko



Olentzerori 19:00etan egingo diote agurra, Herriko Plazan. GOIENA

dituzte eta 4-12 urte bitartekoek, 4 euro. Baina hiru egunerako bonuak ere eros daitezke (5.50 euro txikienean, eta 9 euro besteek). Topakide eta familia ugariok deskontuak dituzte.

## Gazte Sailak egitarau potoloa

Abenduaren 26an II. Goiengazte Eguna egingo dute (16:00-20:00, Herriko Plazan) eta bertan hainbat ekintza izango dituzte. Gainera, Gaztegunean abenduaren 27tik 30era ekintzak egingo dituzte, eta baita Ludotekan ere, abenduaren 26tik 28ra.

## Izotz pista Gabonetan

laz izan zuen arrakasta eta harrera ona ikusita, aurten ere izotz pista jarriko dute Biterin, abenduaren 23tik urtarrilaren 9ra. Pista erabiltzeko, umeez euro bat ordaindu beharko dute eta helduek, berriz, bi euro. Aurtengoa, gainera, iazkoa baino handiagoa izango da.



EMAKUMEON MUNDU MARTXAKO PLATAFORMA

## Herriko tabernariei eskerrak

Azaroaren 25aren bueltan, *Alde* kanpaina jarri zuen abian Emakumeon Mundu Martxako plataformak. Kanpainak indarkeria matxista salatzen eta, era berean, herrian tratatu onen aldeko jarrerak aktibatzen balio izan zuen. Herriko hainbat tabernari kanpainara batu ziren, eta plataformak eskerrak eman nahi izan dizkie haien.

## Osasun zentroak Joint Commission egiaztagiria jaso du

Arrasateko anbulatorioak pazientearen segurtasuna eta arretaren kalitatea ebaluatzen dituen Joint Commission erakundearen egiaztagiria lortu du.

Aitorpen horrekin, Arrasateko osasun zentroa Bergarako osasun zentroari, Debagoieneko ospitaleari eta Oñatiko osasun zentroari batu zaie; izan ere, zentro horiek lehenago lortu zuten egiaztagiria.

Gaur egun, osasun-egiaztapenetan munduan ez dago Joint Commisioen adinako esperientzia duenik. 50 urtetik gora daramatza osasun-erakunde eta erakunde soziosanitarioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeari emana.

## Makatzeko frontoia berritzeko hiru proiektu aukeran

Arrasateko Udalak Makatzeko auzoko frontoia eta inguruak berritzeko proiektua dauka esku artean, eta arrasatearrei aukera eman die hiru proposamenen artean aukeratzeko.

BAzen gaur da botoa emateko azken eguna eta Udalaren webgunean, berriz, domeka arte bozkatu daiteke.

Harreman enpresa bizkaitarra izan da hiru proiektuak diseinatu dituenak, eta estalkirako ere beste hiru aukera aurkeztu ditu. Herritarrek aukeren artean gustukoena hautatu ahal izango dituzte, eta, botoak kontatzen orduan, proiektua eta estalkiak egiten duten konbinazioa hartuko da kontuan.



**Hilarion**

Larrea Plaza 5, behea, Arrasate  
Tel.: 943 77 01 69  
hilarion@restaurantehilarion.com  
http://www.restaurantehilarion.com

2016an gurean izan zareten guztioi, **eskerrik asko!**

**Zorionak eta Urte berri on!**




# GABONETAN ERE ESKAINTZA ZABALA GEURE TELEBISTAN



## 'GARDEN'

**ALOS QUARTET, AUKERAN, OREKA TX ETA EÑAUT ELORRIETA**

ABENDUAK 24, 22:00 / ABENDUAK 31, 23:00

Bergarako Kilometroak 2016 dela-eta antolatutako Kultur Hamabostaldiko ekitaldirik aipagarrienetako, aurtengo irailean Bergarako Udal Pilotalekuan grabatutako ikuskizuna: dantza, musika eta txalaparta bat eginik.

## URTEKARIA 2016

## 'URTEKARIA 2016'

**URTEA IRUDITAN**

ABENDUAK 31, 22:00 / URTARRILAK 1, 20:00

Amaitzera doan 2016 urte honek Debagoiengan eman duena saio berezian. Albiste, gertaera, protagonista... nabarmenak, izan kirol, kultur, ekonomia, politika, ingurumen, gizarte edota hezkuntza alorrekoak.



## BERRIAK

**DEBAGOIENeko ALBISTEAK**

ABENDUAK 26-30, 14:30/16:30/18:30/20:30/22:30

Gabonetan ere egunero gertuko albisteak.



## NIKOLAS SEGUROLARI OMENALDIA

**NIKOLAS SEGUROLA: FRAIDE, ARTZAIN ETA BERTSOLARI**

ABENDUAK 27, 22:00

Nikolas Segurulari omenaldia eta haren gainean Xabier Euzkitzek, Iñaki Beristainek eta Eduardo Urartek idatzi duten liburuaren nondik norakoak ezagutzeko.



## KIKE AMONARRIZ

**KIKE AMONARRIZ SOZIOLINGUISTA ETA KOMUNIKATZAILEAREN HITZALDIA ANTZUOLAN**

ABENDUAK 29, 22:00

'Euskara bidegurutzean Antzuolan: erabili ala baztertu'.



## HARMAILATIK

**SAN SILVESTRE BERGARA**

URTARRILAK 2, 22:00

Bergarako San Silvestre Trail lasterketa.



# Huntza, urteko azken Kooltur Ostegunean

*Aldapan gora* abesti arrakastatsuen sortzaileek kontzertua eskainiko dute datorren egunean Gaztetxean, 22:00etan hasita. Talde gipuzkoarrak *Ertzetatik* bere lehen diskoko kanta joko ditu, baina, horiez gain, bertsiotzat ere eskainiko ditu

**Ibon Carmona** ARRASATE

Huntza izango da Kooltur Ostegunetako urteko azken kontzertua eskainiko duen taldea. Gipuzkoako toki ezberdinetako musikari gazteekin osatutako seikoteak Durangoko Azokan estreinatu zuen *Ertzetatik* diskoa, eta bertan dagoen *Aldapan gora* abestia arrakasta bilakatu da.

Huntzaren kanta trikiti mundutik sorturikoak dira, baina, taldekideen instrumentuen bitartez, horiek beste oinarri bat hartzen dute.

Ohikoa den moduan, egueneko kontzertua 22:00etan hasiko da, eta sarrerek bost euroko prezioa izango dute.

## Durangon aurreneko aldiz

Abendu hasieran, taldeko kideak Durangoko Azokan egon ziren lehen diskoa aurkezten. Peru Altube arrasatearra taldeko bateria jolea da, eta, haren esanetan, esperientzia oso ona izan zen bertan bizitako: "Guretzat, lehenengo aldia zen azoka stand barrutik bizitzen genuena. Jendeak firma eta argazki ugari eskatzen zizkigun, eta, hasiera batean, sentsazio arraroa zen

arren, ohituz joan ginen. Diskoen salmentari dagokionez, aurreikusitakoa baino gehiago saldu genuen; beraz, orokorrean, balorazio positiboa egiten dugu".

## Kontzertuetan jende ugari

Durangoko Azokan Ahotsenea gunean emandako kontzertuaz gain, talde gipuzkoarrak bi emanaldi gehiago eskaini ditu abenduan zehar. Altuberen esanetan, emanaldi horietan giro oso ona egon da, eta, *Aldapan gora* kantuz gain, jendeak diskoko beste abesti batzuk ere bazekizkielela igartzen zen.

## Taldearen kanta nagusi

Arrasateko kontzertuan, eskaini dituzten gainerakoetan bezala, CD berriko kanta izango dira nagusi. "Abestiren bat izan ezik, diskoko kanta guztiak joko ditugu. Horrez gain, Niko Etxarthen *Euskal rock & roll* abestia eta atzerriko erritmoekin osatutako potpourri bat ere eskainiko ditugu", dio Altubek.

## Arrakasta

Huntza euskal talde entzunetakoa da azkenaldian. Taldeko bateria jolearen ustetan, gerta-

kari ezberdinak batera gertatu direlako izan da hori: "Abesti alaiak eta gogoraerazak sortu genituen, eta, aldi berean, horiek Euskal Herri osoan zabaltzeko aukera izan dugu".

Altuberen ustez, abenduaren 29ko kontzertua berezia izango da; izan ere, hark bere herriko jendearen aurrean joko du.

## Emakume bertsolarien gaineko mahai-ingurua Kulturaten

AED eta Ekin Emakumeak elkarteek antolatu dute saioa eta EHUKo ikerketa bat izango du berba

**I.C. ARRASATE**

Datorren martitzenean, 18:30ean hasita, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa talde batek *Emakume bertsolariak: Ahanzturatik diskurtso propiora* izeneko ikerketa lanaren gaineko mahai-ingurua egingo du Kulturateko areto nagusian.

AED eta Ekin Emakumeak elkarteek antolatu duten saioan, ikerketako zuzendari Gema Larsarte, EHUKo irakasle eta ikerketako lantaldeko kide Ana Isabel Ugalde arrasatearra eta Milder Arregi bertsolari oñatiarra

izango dira hizlariak. Horrez gain, Ane Zuazubiskar kazetari eta bertsolari arrasatearra bideratzaile lanak egingo ditu.

Mahai-inguruan berba izango den ikerketan, egileek modu hegemonikoan gizona izan den eremura emakumeen hurbiltzea ahalbidetu duten iniziatibak eta faktoreak sakondu dituzte, hainbat ondorio interresgarri aterata.

Ikerketa horretan, Ana Isabel Ugalde arrasatearra, batez ere, arlo historikoari dagokion lana egingo du.

## Ander Arnaiz

**Bastida Akademiako zuzendariordea**

### Bastida Akademiak Lanbidek eta Hobetuzek % 100ean diruz lagundutako doako ikastaroak eskaintzen ditu

Urtarrilaren 9a baino lehen, 943 79 35 33 zenbakira deituz, [bastida@bastida.es](mailto:bastida@bastida.es) helbidera idatziz, edo gure egoitzan bertan egin daitezke izen emateak.

**A**nder Arnaizekin elkar-tu gara, erabiltzaileentzat doakoak diren zein ikastaro dituzten azaltzeko.

**Zer nolako ikastaroak dira Lanbidek finantzatutakoak?** Lanbideren ikastaro gehienak Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuak eskaintutako titulu ofizialak lortzeko dira; tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea, mikroinformatika-sistemak muntatzea eta konpontzea eta produktu grafikoaren diseinua dira horie-



Ander Arnaiz Azkoaga .

“ Lanbideren doako ikastaroekin Enplegu eta Gizarte politika sailak eskaintutako titulazio ofizialak lor daitezke. ”

tako batzuk. Frantsesekoa eta ingelesekoa, hizkuntza titulu ofizialak zure kabuz prestatzen laguntzeko ikastaroak dira. Lanbidekoetan langabetuei ematen zaie lehentasuna, baina lanean daudenean ere eman dezakete izena. Goizeko ordu-tegia dute eta 150 orduetik 570era joan daitezke, enpre-setako praktikak barne.

## Eta Hobetuzekoak?

Hauetan langileek dute lehentasuna, baina langabetuek ere har ditzakete. Ikastaro laburragoak dira, 40 ordukoak, eta 18:00etatik 20:30era izaten dira, lan orduetuekin uztartu ahal izateko. Hiru familian banatzen dira; Autocad eta Solidworks, Photoshop eta Illustrator, eta Kontabilitatea eta Nominak.



Huntza taldeko kideak. HUNTZA

ACADEMIA

# BASIDIA

Informazio gehiagorako:  
**943 79 35 33**

Araba etorbidea 3,1  
ARRASATE

**LANGILEENTZAKO ETA LANGABEENTZAKO IKASTAROA%100 DIRUZ LAGUNDUAK**

**Lanbide**  
Euskal Enplegu, Enplegu eta Gizarte Politikaren Erakunde Nazionala

TOKIKO TURISMOA SUSTATZEA ETA BISITARIA INFORMATZEA

MIKROINFORMATIKA-SISTEMAK

MUNTATZEA ETA KONPONTZEA

PRODUKTU GRAFIKOEN DISEINUA

INGELESA A2

FRANTSESA: JENDEARENTZAKO ARRETA

**HOBETUZ**  
Enplegu eta Enpleguaren Erakunde Nazionala

AUTOCAD

SOLIDWORKS

PHOTOSHOP

ILLUSTRATOR

KONTABILITATEA

NOMINAK

# Kantuekin hasiko dituzte bihar Gabon ekitaldiak

Herriko neska-mutikoek, gurasoek lagun eginda, eta Basotxoko kantu-taldeak Gabon abestiekin girotuko dituzte kale-bazterrak; eguerdi partean, ostera, Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira Herriko Plazara umeen musuak eta eskutitzak jasotzera

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Gabon kantuek girotuko dituzte herriko txokoak bihar, abenduak 24. Eta ondoren, Olentzeroen eta Mari Domingiren bisita jasoko dute herritarrek jaiegunei hasiera emateko.

Urtero legez, umeak –gurasoekin batera– kantuan irtengo dira Herriko Plazatik (10:30) txistularien atzetik, eta aurten ere Basotxoko kantu-taldearen laguntza izango dute. Bost urteko neska-mutikoek zuzenean joko dute zaharren egoitzara abestera. Eta ondoren, Lausittako biribilgunean elkartuko dira gainerakoekin; kantuen trukean balkoietatik botatako boloa jasoko dute: gozokiak, intxaurrak...

Ibilaldia bukatutakoan txistor ogitartekoa izango dute guztiak plazan, eta ondoren (12:00), Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira umeen gutunak eta musuak jasotzera. Arratsaldean (18:30), ostera, kiroldegitik plazarainoko ibilbidea egingo dute biek ala biek, baina orduan ez dira inon geratuko. Plazara iritsita koan kantuan egingo diete musika eskolako neska-mutikoek.

Bizarzuri etorriko da abenduaren 31n eta Errege magoen desfilea izango da urtarrilaren 5ean; kiroldegitik irtengo dira guztiak (18:30).



Neska-mutikoak eta gurasoak txistularien atzetik Herriko Plazara bidean. MIRARI ALTUBE

## Gospel kontzertua eta magoa

Gospel doinuekin gozatzeko aukera izango dute musikazaleek The Upper Room taldeari esker. Hilaren 27an izango da (19:00), Arkupen. Mikel San Juan eta Iñaki Miguel donostiarrek osatutako taldeak euskaraz egiten du kantuan eta eurek konposatutako abestiak eta hainbat pieza antologiko eskainiko dituzte.

Imanol Ituiño mago bizkaitarra, ostera, helduendako magia ikuskizunarekin etorriko da abenduaren 28an, eguaztena, 22:00etan.

## Ikastaroak eta Gabon parkea

Hainbat ikastaro izango dituzte gaztetxoek egunotan. Batetik, magia ikastaroa eskainiko du Ituiño magoak hilaren 28an (17:30-19:00) eta oraindik izena eman daiteke. Bestetik, bideojokoak sortzeko saio bana egingo dute 26an eta 27an (10:00-13:00).

Gabonetako jolas parkea, ostera, urtarrilaren 3an eta 4an jarriko dute kiroldegian (11:00-13:00 eta 17:00-20:00). Egun bakoitzeko sarrera 6 euro da eta bi egunetako bonua 10 euro (hirugarren alabak edo semeak doan).



## Abesbatzaren emanaldia 29an

Bizente Goikoetxea (Aramaio, 1854-Valladolid, 1916) konpositore handia izango du gogoan Aretxabaleta Abesbatzak abenduaren 29an egingo duen Gabonetako kontzertuan (parrokian, 19:30ean). Herri abesbatzarako eta organorako hainbat lan konposatu zituen, eta hainbat meza, miserere, salbe eta Ave Maria ere bai.

Lehen zatia korutik abestuko du Abesbatzak; Goikoetxearen *Miserere* eta *Ave Maria*, Adolphe Adamen *O Holy Night* eta Haendelen *Alleluia*. Bigarren zatian, organoaren txanda izango da eta Jose Luis Frantzesena azpeitiarrak *Gabonetako giroa* joko du. Eta hirugarren zatia aldarean abestuko dute, besteak beste, John Readingen *Adeste Fideles*, Aita Donostiaren *Oi Betlehem!* eta Jesus Guridiren *Ator Mutil*.

## Errastiren 'Mami Lebrun' antzezlan

*Mami Lebrun* antzezlanarekin etorriko da Kepa Errasti abenduaren 30ean, Arkupera; 19:00etako saioko sarrera guztiak salduta daude baina 22:00etarako badaude oraindik.

Bizitzaren parte den heriotza saihestezinaren gaineko obra da, eta bakardadeari eta tristurari buruzko hausnarketari helduko dio umorearen eta musikaren laguntzarekin.



Antzezlaneko une bat. IMANOL SORIANO

*Gemes*  
Irudi aholkulariak

SAIO BAKOITZA

15€  
-TIK  
AURRERA

DIODO LASERRA, PUNTA-PUNTAKO TRATAMENDUA

• PRESTA ZAITEZ UDARAKO •  
*Gabon zorientsuak guztioi!*

Ilargi plaza 2 • Tel.: 943 79 99 18 • ARETXABALETA



# Athlonek jarraituko du kirol zerbitzuak ematen

Udalbatzak eman dio kiroldegiko jardueren arduraren beste bi urterako eta etxerik etxeko zerbitzuarena Gizadi enpresari. Bestalde, presoan eskubideen aldeko mozioa onartu zuten eta abenduaren 31n egingo den elkarretaratzeko dei egingo die herritarrei

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Ezohiko osoko bilkura egin zuen eguaztenean udalbatzak, eta orduan onartu zuten hemendik aurrerako ohiko osoko bilkurak hilabeteko hirugarren eguaztentean egitea astelehenetan beharrean.

Bestetik, joan den urrian onartutako udal tasetako bat bertan behera uzteko eskatu dute baso-lurren jabeek; hain zuzen ere, pinuak basoetatik ateratzeko bidean erabilera ordaindu beharreko tasari jarri diote hellegitea. Udalbatzak aho batez eman zion oniritzia eskaerari, eta tasaren ordean fidantza bat jarriko dute: "Aurrerago zehaztuko dugu fidantza hori eta izango da bidean garbitasuna bermatzeko", argitu zuen Unai Elkoro alkateak.

EH Bilduko zinegotziak ados agertu ziren, baina bi kontu zehaztu beharko direla adierazi zuten: "Batetik, zeinendako den fidantza hori; hau da, lurjabearendako edo egurra jasoko duen enpresarendako. Eta bestetik, bidearen egoera zein den aurretik eta ondoren; udaltzainek begiratu beharko dute hori", zioen Ion Albizu zinegotziak. Lurjabe batzuk ere izan ziren osoko bilkuran eta idatzi bat eman zioten idazkariari: "Sektoreak hausnarketa sakona eskatzen du, non gauden eta nora goazen jakiteko", adierazi zuen Jesus Osinagak.

**Kirol zerbitzua Athlonek**

Bi zerbitzuren kontratazioa ere egin zuen udalbatzak. Batetik, etxerik etxeko zerbitzua orain ere ematen duen Gizadi enpresari eman zioten: "Enpresa bakarrik aurkeztu da eta lau urterako eman diogu horri. Udala, gainera, gustura dago orain arteko zerbitzuarekin", dio Elkorok.

Eta bestetik, Ibarra kiroldegiko kirol zerbitzuen arduraren Athlon enpresak izango du beste bi urtez: "Granadako enpresa bat



Udalbatzako kideak eta herritarrak eguaztentean osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

## BIDE PUBLIKOAK ERABILTZEGATIK LURJABEEK ORDAINTZEN ZUTEN TASA KENDU EGIN DUTE

eta Athlon aurkeztu dira eta balorazio tekniko askoz hobea izan du Athlonek", argitu du alkateak; hortaz, beste bi urtez emango du zerbitzua. Aho batez onartu zituzten bi esleipenak, baina EH Bilduko kideek eskatu zuten kiroldegia ereduaren gaineko hausnarketa bat abiaraztea. Irabazik, oster, bideragarritasun azterketa bat eskatu zuten.

**Presoen eskubideen mozioa**

Presoen eskubideen gainean aurkeztutako mozioak eragin zuen eztabaida osoko bilkuran. EH Bildu gertu agertu zen mozioa moldatzeko gainerako taldeen babesa lortze aldera: "Ahal den kontzentzua handiena gurako genuke". Hala, jeltzaleek eskatutako aldaketak egin zituzten eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan presoan eskubideen gainean onartutako lau puntu sartu zi-

tuzten. Desadostasuna, baina, eragin zuen abenduaren 31n Sarek deituta Aretxabaletan egingo den elkarretaratzeko. Mozioaren puntu horrek zioen Udalak egingo diela dei herritarrei elkarretaratzeko, eta jeltzaleak ez ziren ados agertu. Era pertsonalean joateko gertu azaldu ziren, baina ez zuten gura Udalak hori babesterik "konnotazio politikoak" dituela arrazoituta.

Hainbat herritar izan ziren eztabaida jarraitzen bilkuren aretoan, eta horietako batzuek ezin ulertua agertu zuten beste elkarretaratzeko batzuk deitu izan dituelako Udalak. Azkenean puntuz puntu bozkatu zuten mozioa eta aho batez onartu, besteak beste, preso gaixoak eta adin batetik aurrerakoak libre gertatzeko legezko mekanismoak martxan jartzea eskatzea eta Espainiako Gobernuari legea betearaztea exijitzea. Eztabaida sortu zuen puntuan abstenitu egin ziren jeltzaleak eta sozialista, hortaz, aurrera egin zuen mozioak: "Oso pauso garrantzitsua da, denok egin dugulako esfortzu bat akordiorako. Hala, aurrera atera da eta Udalak deituko du elkarretaratzeko hori", zioen Albizuk.



Bezero bat egutegiarekin. M.A.

## Egutegia opari Aretxarte elkarteak kideek bezeroei

Azken urteotan egindako legez, aurten ere iritsi da Aretxarteren egutegia. Ivan Valle argazkilari aretxabaletarrak egindako argazkiekin osatu dute eta modelo lanak merkatariek eurek egin dituzte. Herritarren artean, urtero, ikusmin handia sortzen duen egutegia da, eta aurtengoak arrakasta handia izan du. 2.500 ale banatuko dituzte egunotan bezeroen artean.

## Espediente onenaren saria Maialen Martinezi eta David Gonzalezi

Ikasketa amaierako sariak banatu ditu Kutxak eta espediente onenaren saria jaso dute herriko bi lagunek; batetik, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean Haur Hezkuntza gradua egin duen Maialen Martinezi aretxabaletarrak, eta bestetik, Aretxabaleta Lanbide Eskolako Metal Eraikuntzak arloko ikasle den David Gonzalezek.

## Puzgarriak izango dituzte igerilekuan umeek, hilaren 28an

Puzgarriak jarriko dituzte Ibarra kiroldegiko igerilekuan abenduaren 28an, eguaztenean, 10:30etik 13:30era bitartean.

Bestetik, gaur, egubakoitza, aeroboxing saioa egingo dute; 18:15etik 19:45era izango da eta izena aurrez zegoen eman beharra. Kickboxingean eta boxeoan oinarritutako ariketak egingo dituzte musikak lagun eginda.



NIRE USTEZ

MIKEL ARROIA

## Gaur egungo gazterixia

Helduok gaur egungo gazteez hitz egiten dugunean alderdi txarrak nabarmentzen ditugu, botilatzarra dela, edo lokaletan ateratzen duten zarata, drogak... Nire lanari esker gazte ugari ezagutzen ditut beren helburuak betetzeko gogor lan egiten dutenak eta elkartasunezko ekintzetan aktiboki parte hartzen dutenak.

Andonik, Karlosek, Verok, Beñatek... musika taldeak osatu dituzte. Anne munduko errugbi txapelketan jokatzekoa da eta Mainer Europako txapeldunordea izan da karatean. Amaiak eta Ikerrek kazetaritza ikerketan dihardute, Iraitz zinegotzia da...

Isa Greziako Idomenin egon da errefuxiatuekin, Ane Saharako kanpalekutan, Mariamek haur ijitoekin egin du lan, Aniak Aspacerekin, Eneritzek Atzegirekin, Leirek hezur-muin emailleekin eta literatura blog bat ere badu... Askok dira kirol taldeetan entrenatzaile ari direnak edo euskara eta kultur elkartetan ari direnak.

Adibide batzuk baino ez dira. Honen aurrean, telebistak *Gu ta gutarrak* bultzatzen du gazteen erreferentzia bakar izan dadin, berriaentzat eta guretzat.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA



Atzegiko kideak afaltzen hasteko gertu Muru Alde elkartean. MIRARI ALTUBE

## Lagun giroa elkarteko mahaiaren bueltan

Aratz elkarteko kideek eta Atzegiko etxeko bizilagunek, guztira 40 bat lagunek, elkarrekin afaldu zuten joan den egubakoitzean Muru Alde elkartean; harremanak estutzea eta Gabon jaiegun politak elkarri opa izatea zituen helburu topaketak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aspaldiko urteetan elkartu izan dira Gabonen atarian Aratzeko kideak, baina aurten, patxada handiagoarekin egoteko asmoarekin, afaria antolatu dute: "Durana kalean dugun lokalean elkartu izan gara eta mokadutxo bat jan, baina, gero eta kide gehiago izanik, Muru Alde elkartean egitea erabaki dugu

aurten", argitu du Jokin Antxiak, Atzegiko ordezkariak. Joan den egubakoitzean elkartu ziren, gazte eta heldu artean 40 lagun. Batetik zeuden Atzegik Durana kalean duen etxebizitzako egoiliarrek begiraleekin batera; hamasei, hain zuzen ere. Eta bestetik, Aretxabaleako Aratz elkarteko kideak eta haien senideak, 24 inguru.

**Harremanak estutzeko**

"Egun polita da elkarren berri izateko eta harremanak estutzeko. Atzegikoen etxean beti izaten da egoiliar berriren bat eta horiek aurkezteko aproposak dira halako ekitaldiak", dio Antxiak, eta gaineratu du: "Gabon jai politak pasatzeko eta urte berri on bat opa izateko ere bada, asko etxera joaten dira-eta egunotan".



**MAITE URRETA**  
ARATZEKO KIDEA

"Lehenengo aldiz etorri naiz halako afari batera eta oso gustura nago. Hemengo guztiak ez ditut ezagutzen, eta, agian, lagun berriak egingo ditut".



**ALEX ELORTONDO**  
ARATZEKO KIDEA

"Gaur ez dut panderorik ekarri jotzeko, baina afalostean abestuko dut. Kantu liburuan abesti mordo bat daude eta niri guztiak gustatzen zaizkit".



**JUAN CRUZ OTEGI**  
ATZEGIKO ETXKO BIZILAGUNA

"Legazpiarra naiz eta urtebete daramat Aretxabalean, Atzegiko etxean. Jende asko ezagutu dut eta oso pozik nago, harrera beroa egin didate-eta herrian".



Idazle Eskolako kideak, Udal ordezkariak eta beka irabazlea (erdian). MIREN ARREGI

## Goizane Olaizolak irabazi du Karmele Igartua sorkuntza beka

'Sugegorriak' lanagatik jaso du saria azpeitiarrak eta Goizeder Iturain zumaiarrari aipamen berezia egin diote

**M.Arregi/M.Altube** ARETXABALETA

Idazle Eskolak eta Aretxabaleako Udalak antolatutako Karmele Igartua sorkuntza beka Goizane Olaizola azpeitiarrak irabazi du, *Sugegorriak* lanarekin. Goizeder Iturain zumaiarrak aurkeztutako *Elefanterik gabeko zirkua* lanak, oster, aipamen berezia jaso zuen joan den egubakoitzean egindako ekitaldian.

**Originaltasuna eta sormena**

Zortzi eskola antzerki lan aurkeztu dituzte lehiaketara, Karmele Igartua sorkuntza bekaren

seigarren ediziora. Epaimahaia osatu dute Iñaki Zubeldia eta Pako Aristi idazleek eta Itziar Gomez aktore eta gidolariak, eta saria jasotako lanaren "originaltasuna, kalitate literario altua eta euskara egokia, eta egilearen sormena" aipatu zituzten, besteak beste. Irabazleak "oso pozik" jaso zuen saria eta horrelako sariketen garrantzia nabarmendu zuen: "Antzerki-gintzak bultzada bat behar du eta horrelako bekak oso garrantzitsuak dira, jendea sortzen hasten delako".

## Herritarren laguntza fruitua ematen dabil Ekuadorren

Kakaoa ekoizten duen Wiñak elkartearekin dihardu lanean Hiruatxek eta ekoizpenak eta salmentek gora egin dute

**M.A.** ARETXABALETA

Ekuadorko Wiñak elkartearekin elkarlanean dihardu Hiruatxek azken urteotan eta hango berri eman die egunotan kolaboratzaileei. 267 bazkide ditu irabazi asmorik gabeko elkarte horrek eta kakaoa lantzen dute chacra bidez, hau da, ekoizpen ekologiko eta sustengagarri bidez. "Ekoizpena eta emankortasuna hobetu eta kalitatezko eta nortasunez lortutako produktuak eta zerbitzuak merkaturatzea da helburua, guztientzat bidezko irabazia lortuta eta baliabide naturalak babestuta", diote Hiruatxeko kideek.

Eta norabide horretan hainbat "aurrerapen" izan dituztela azken urtean zehaztu dute: ekoizpenari dagokionez, besteak beste, produkzioa hobetu hektareako %35, ekoizpen ekologikoaren ziurtagiria eta erregistro sanitarioa lortu eta mikrokredituen itzulpen tasa hobetu. Eta salmentei dagokionez igo egin da kopurua; 20 tona saldu dituzte urtean hainbat herrialdetan. Hala, 2016an 2.362 familiak bildu dute kakaoa eta %30 gehiago saldu. "Pozik gaude guztion artean bidalitako laguntza fruituak ematen dabilako", adierazi dute.



# Kontrako barik onartu dituzte aurrekontuak

Alderdi jeltzalearen eta Elizateen elkartearen baiezkoeekin eta EH Bilduren eta Eskoriatza Irabaziren abstentzioekin onartutzat eman dira 2017ko aurrekontuak. Gainera, oposizioaren eskaera guztiak jaso ditu proposamenean Udal Gobernuak

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako udalbatzak, alderdi jeltzalearen eta Elizateen aldeko bozekin eta EH Bilduren eta Irabaziren abstentzioekin, onartutzat eman ditu 2017ko aurrekontuak. Udal Gobernuak EH Bilduren eta Irabaziren eskaerak aurrekontuen proposamenean ezarri ditu, batzordeetan eztabaidatu ondoren, eta erabateko baietzik ez jaso arren, alderdi batak besteari eskertu dio izan duen jarrera eta aurrekontuak garatzeko modua.

Hala, Eskoriatzak 5.359.298 euroko aurrekontua izango du datorren urterako, 2016koa baino %5 handiagoa. Hasiera batean, Udal Gobernuak egin nahi zuen inbertsio nagusia Alberja zaharra edo Labaderoa moduan ezaguna den ingurua konpontzea zen. Baina oposizioaren eskaerak eta baldintzak betetzeko erabiliko da inbertsio horretako zati bat. Dena den, alkateak adierazi du, gai hau baztertu barik, hasiera baten, alde batera utzi-

**"EUSKARA, GIZARTE ETA GARAPEN SAILEK DEZENTEKO IGOERA IZANGO DUTE"**

JOSERRA ZUBIZARRETA ALKATEA

ko dutela eta proiektua lantzen joango direla.

**Hurrengo proiektuak, parkeak**

Inbertsioei begira, jolas-parke bat egin nahi da Kuartuenako urbanizazioan, eta Apotzaga auzoko umeen parkea konponduko dute. Bestalde, alkateak adierazi du gaur egun ere gauzatzen ari direla hainbat lan: "Intxaurtxuetako obrak martxan jarri ditugu, Arbiñostetik datorren espaloia... Iaz hasi genuen hiri-berritze planean jasotako eskaerak jasota ditugu. Ia %80 eginda egon arren, 2017rako utzi ditugu falta direnak...".

Sail ezberdinei dagokienez, orokorrean Euskara Sailak, gizarte arloek eta garapenak dezenteko igoera izango dutela ere adierazi zuen alkateak.

**EH Bilduren eskaerak jasota**

EH Bilduko Aitor Zubizarretak adierazi du aurrekontuetan txertatuak izan diren baldintza edo eskaerak hauek izan direla:

**"AURREKONTUAK HERRIARI ZABALDU ETA IRITZIAK JASOKO DITUGU"**

AITOR ZUBIZARRETA EH BILDU

"Aurrekontuak herritarrekin batera eta batzordeetan eztabaidatu behar direla eskatu dugu. Aurtengoen garapenean eta datozen aurrekontuetarako. Prekariatatearen Eskoriatzako egoera aztertu behar da, partida bat horretarako bideratuz. Karpa bat erostea, inbertsio gisa. Herriko ekimenak egiterakoan eguraldiaren menpe ez egoteko eta alokatzen ez ibiltzeko. Eta, azkenik, PERCOari lotuta komertzio mahai bat eratzea herriko merkataritzari laguntzeko".

**Irabazi eskertuta**

Rafa Bernal Irabazi alderdiko bozeramailearen esanetan: "Gure zuzenketak dira: Agenda 21a sustatzea, enplegua bermatzea zailtasunak dituztenei laguntzeko, elkartasuna adieraztea behar gehiago dutenei eta garapenari partidak handitzea. Udal Gobernuaren jarrera ona iruditu zaigu eta horregatik abstentzioa eman dugu, baina eskertu egin dugu euren jarrera".

**"IAZKOAREKIN ALDERATUZ, JARRERA HOBEA IZAN DU UDAL GOBERNUAK"**

RAFA BERNAL IRABAZI



Gabonetako parkean, umea bideo jokoekin jolasten. GOIENA

## Gabonetako jolas-parkean, aukera ugari gaztetxoentzat

Astelehenean puzgarriak izango dira igerilekuan eta ondorengo bi egunetan parkea egongo da kiroldegian

**I.B** ESKORIATZA

Azken urteotan moduan, Gabonetako jolas-parkea zabalduko dute Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian.

Astelehenean, abenduaren 26an, igerilekuan puzgarriak izango dira 17:00etatik 20:00etara bitartean. Bazkide direnek bi euro ordaindu beharko dute bertara sartzeko eta bazkide ez direnek, berriz, hiru euro. Horrez gain, martitzenean eta eguaztenean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara jolas-parkea egongo da zabalik Manuel Muñoz kiroldegian.

**Bonoak eskuragarri**

Igerilekuko puzgarrietara eta bi egunetan parkera joan nahi duenak hamar euroko bonua lortu dezake. Bestalde, egun baterako bonuak bost euro balioko du.

Parkean: puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoak, Wii eta Xbox kontsolak... egongo dira. Hainbat begirale izango dira bertan, baina Udalak gurasoei eta laguntzaileei eskatzen die taberna inguruan edo harmailetan egoteko. Horrela, begiraleen lana errazteko eta parkean umeek leku handiagoa izan dezaten.

## Zapatuan jaitsiko dira Olentzero eta Mari Domingi Apotzagatik

Gabon eguna ekintzaz beteta egongo da: Trikiti Eskolakoekin kalejira eta gabon kantak, besteak beste

**I.B** ESKORIATZA

Gabon eguna ekintzaz josita egongo da egun osoan zehar. Goizean, gaztaina errete jateko aukera izango da Herriko Plazan, eta 12:00etan, Olentzeroren laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte. Ondoren, gabon kantak abestuko dituzte herritarrek, eta 13:00etan, trikiti eskolako ikasleekin kalejira egingo da.

Arratsaldean, berriz, Jose Arana zaharren egoitzan gabon kantak abestuko dituzte herritarrek, eta 18:00etan egingo da Apotza-

ga auzotik jaitsiko diren Olentzeroren eta Mari Domingiren ongiatorria. Haien jaitsierarekin batera, txistulari eta soinu joleekin batera, kalez kale ibiliko dira, eta herritarrek kantuz lagunduko diete. Honako ibilbide hau egingo da: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Jose Arana eta Herriko Plaza.

Honekin batera, Gabon egunean, herritar guztiak euskal jantzi tradizionalak janztera animatu nahi ditu Eskoriatzako Udalak.

## Hurrengo proiektuak, jolas-parkeak

Udal Gobernuak aurrekontuen proposamenean Alberja zaharra konpontzea zeukan pentsatuta inbertsio nagusi moduan. Hori, momentuz, alde batera utzita, hiri-berritze planeko ekarpenekin jarraituko dute.

Hurrenez hurren, Kuartuena urbanizazioan jolas-parkea egingo da eta Apotzaga auzoko jolas-parkea konponduko da, besteak beste.



Kuartuena urbanizazioan jolas-parkea egingo da. GOIENA



Buztingintza eta zeramika ikastaroko ikasleak eguaztenean ateratako talde argazkian. I.B



Ikastaroan egindako lan batzuk. I.B

## Buztinate Elkarteak sortu berri dute Eskoriatzan

Buztingintza eta zeramika ikastaroetan ikusitako beharretatik irten da elkarte bat sortzeko beharra. Urtarrilean hasiko da ikasturte berria, eta bazkide bila ari dira elkarteko kideak; hasiera batean, 60 euroko kuota ordainduko da urtean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako buztingintza eta zeramika ikastaroko ikasle talde batek bultzatuta, Buztinate elkarteak sortu dute.

2015ean egin zen lehen ikastaroa eta ordutik gaur egunera arte bi taldetan banatuta –haurrak eta helduak– beraien lanak egiteko denbora gehiagoren beharra ikusi dute, beste hainbat

beharrez gain. Adibidez, Eskoriatzako Buztinateko labea ez dago erabilgarri, eta horren beharra dutela adierazi dute. Olatz Pagalday elkarteko lehendakariaren esanetan: "Orain arte tallerrean egindako lan guztiak Gallartaraino eramaten ditu irakasleak egostera, eta berriz bueltan ekarri. Gure lanek Euskal Herria zeharkatzen dutela esan

daiteke. Printzipioz, horrela jarraitzea da asmoa, baina etorkizunean irtenbidea eman nahi diogu arazo honi. Bestalde, Eskoriatzan buztingintzarako zailtasuna sortu nahi dugu. Herriko historiaren parte da, eta herriaren elkarte bat izatea ezinbestekoa dela uste dugu. Horrez gain, aurrera begira Udalaririk lokal bat eskatu nahiko genioke;

izan ere, buztinarekin aritzea zikina da, eta ezin gara gure etxean aritu lanak egiten; klaseez gain, denbora libre dugunean, gure lanak egiteko leku bat izatea zoragarria izango litzateke...". Hala, elkarteak sortzeko beharra ikusi dute, eta bazkideak bilatzen hasi dira dagoeneko. "Hasiera batean, bazkide izateko bost euro ordaindu behar dira edo 60 euro urtean; bi zatitan ordaintzeko aukera dago...".

**Buztingintzaren onurak**

Elkarteko kideek adierazi dute onura handiak dituela buztingintza eta zeramika ikasteak. "Irudimena eta erlaxazioa lantzen laguntzen du", eskuak erabiliz materiala manipulatu, eta jendearekin momentu onak konpartitzeko aukera ematen duelako. "Giro ederra dugu ikastaroan eta bakoitzak nahi duena sortzeko

aukera du. Eguazten arratsaldean izaten dugu ikastaroa helduok; aurretik, umeak izaten dira. Beraien lanak ere kuxkuxeatzen ditugu eta beraien lanak imajinazio handia gure lanetarako eredu ere hartzen dugu askotan."

Malguta eta anitza dela buztingintza adierazi du Pagaldayk: "Jendeak pentsatuko du betiko hautsontziak egiten ditugula, baina, egia esan, inork ez du egin halakorik. Lanparak, bozgorailuak, eskulturak, altzariendako eta bitxingintzarekin lotutako apaingarriak... egin ditugu. Ikastaroan ari den batek mugikorarentzat bozgorailu bat egin du, eta aurrera begira molde bat egin gura du elkarteari dohaintzan emateko...".

**Ikastaro berria, urtarrilean**

Urtarrilaren 11n hasiko da ikasturte berria, eta ekainaren 21era arte egongo dira eskolak Buztinatean. Orain arte bezala, eguaztenean, haurrak 16:45etik 17:45era egongo dira eta helduak 18:00etatik 20:00etara. "Helduen taldean jende asko batzen bagara, goizetan ere ikastaroa jarriko dugu. Hala ere, jendearen inplikazioa eta gogoia ikusi gura dugu, ez diogu jende kopuruari begiratu nahi...".

Ikastaroan izena eman nahi duenak 662 210 422 telefonora deituta edo [eskoriatzabuztina@gmail.com](mailto:eskoriatzabuztina@gmail.com) helbidera idatzita egin dezake.

**"HERRIKO HISTORIAREN PARTE DA ETA ELKARTEA IZATEA EZINBESTEKOA DELA USTE DUGU"**

OLATZ PAGALDAY

## Aresko Gabonetako Campusa antolatu dute urtarrilerako

Saskibaloira gerturatzeko asmoz eta oporrak kirola eginez ondo pasatzeko antolatu dute ekimena

**I.B** ESKORIATZA

Aurten ere, Aresko Saskibaloiko Eskolak antolatutako Gabonetako Campusa egingo da. Urtarrilaren 3an, 4ean eta 5ean egingo da Eskoriatzako Manuel Muñoz eta Aretxabaletako Iba-

rra kiroldegietan, 10:00etatik 13:30etara bitartean.

2003an eta 2008an jaiotakoentzat zuzenduta egongo da campusa. Gainera, saskibaloian profesionalak diren emakumezko jokalarien bisita izango dute,

eta haien aholkuak ere jasoko dituzte bertaraten direnek. Eguero izango dute hamarretakoa bertara doazen gaztetxoek eta campuserako propio sortutako kamiseta ere jasoko dute parte-hartzaileek. Saskibaloira gerturatzeko asmoz, eta oporrak kirola eginez ondo pasatzeko, antolatu dute ekimena. Iaz, 22 haur batu ziren, eta aurten kopurua handitu nahi dute antolatzailuek. Informazio gehiagorako, [campusaresko@gmail.com](mailto:campusaresko@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.

## Inkernun emanaldi ugari hamahiru urteak ospatzeko

Inkernu tabernak hamahiru urte bete ditu eta ospakizun moduan, *13 urte 1000 historiko* lelopean, egitarau zabala aurkeztu dute abendurako eta urtarrilerako.

Abenduaren 25ean, 20:00etan, Petti, abenduaren 28an, 22:00etan, Bacon Maiden, urtarrilaren 7an, 23:00etan Paulie & The Wood String eta azkenik, Skovers tal-

de eskoriatzarra urtarrilaren 14ean, 23:00ean.

**Domekan, Petti**

Petti musikari beratarrak emango dio hasiera egitarauari domeka honetan. Abeslari eta gitarra-jotzaileak amerikar sustarriak dituen rocka egiten du; folk blues eta folk-rock estiloko kantuak eskainiko ditu, eta taula gainean bakarrik egongo den arren, bere ahots gogorraren indarra nahikoa izango du entzuleak txunditzeko.



# Atxorrotxen aurkitutako elementuak erakusketan

'Atxorrotx. Arlabango igarobidean urrea eta odola' erakusketa martitzenean zabaldu zuten eta urtarrilaren 15era arte egongo da aukera bisitatzeko, jaiegunetan izan ezik. Horrez gain, urtarrilean dokumentala proiektatuko dute hainbat egunetan

## I.B. ESKORIATZA

Zabaldu berri den *Atxorrotx. Arlabango igarobidean urrea eta odola* erakusketa monografikoan, guztira 80 bat elementu daude ikusgai, eta bertan, armak –gezi puntak, baleztak, xabalina– eta apaingarriak –La Tene kulturako fibula edota Antxo VII.aren arrano beltzaren zigilua– izango dira, besteak beste, ikusgai.

Atxorrotxen eta inguruetan egin diren indusketa kanpainen ondorioz aurkitutako elementuak dira guztiak, gehienak 2010eko ekinaldian aurkitutakoak Iñaki Sagredoren gidaritzapean.

## Jaiegunetan itxita

Erakusketaren ordutegia, berriz, honako hau izango da: asteleheneetik egubakoitzera arte zabalik egongo da 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta urtarrilaren 5ean eta 6an, itxita. Zapatuetan 17:00etatik 19:00etara zabalik egongo da eta abenduaren 24an eta 31n, itxita. Azkenik, domeketan, 12:00etatik 14:00etara zabalik eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, itxita.

## Dokumentala urtarrilean

Erakusketaz gain, Nabarralde Fundazioak eta Hernani Erro-



Erakusketan, Beñi Agirre historialaria bisitan. MIREIA BIKUÑA

tzen elkarteak egin berri duten *Atxorrotxeko gaztelua. Denboraren talaiatik* dokumentalaren *teaser*-a aurkeztu zuten pasa den astean, eta urtarrilean hasiko dira proiektzioak.

Aurkezpenean, Nabarralde elkarteko kide Angel Rekaldek hauxe adierazi zuen: "Atxorrotxeko eremua abiapuntutzat hartuz, erabakigarria izan zen pasarte historiko bat berreskuratzea izan da lanaren helburu nagusia. Gure eremu historiko biztanleriari informazioa zabaltzea izan da helburua, gure

komunitatea beste komunitate kulturalekin, linguistikoekin eta politikoekin lotuz".

*Teaser*-a aurkeztuta, dokumentalaren aurkezpena urtarrilaren 10ean 18:00etan egingo da Ibarraundi museoan. Bertan, Beñi Agirrek eta Jose Luis Orellak emango dituzte azalpenak. Horren ondoren, emanaldiak urtarrilaren 11tik 13ra 13:00etan eta 18:00etan eta urtarrilaren 14an 18:00etan izango dira, Ibarraundin. Urtarrilaren 15ean, berriz, arratsaldeko zazpitan, Zaldibar antzokian.



IMANOL SORIANO

## Hustu Ganbara!, arrakastatsua

Arrakastatsua izan zen domekan egindako Hustu Ganbara! bigarren eskuko azokaren bigarren edizioa. Herritarrez gain, kanpotik ere gerturatu zen hainbat jende, eta giro polita sortu zen Gatzagako plazan. Denetarik zegoen postuetan: arropak, altzariak, jolasak, apaingarriak... eta prezio onean egon ziren eskuragarri. Enkante bat ere egin zuten.

## Baserriz baserri oles egingo dute bihar, zapatua, herritarrek

Urteroko ohiturari jarraituz, kantuan egitera irtengo dira gatzagarrak, txistularien eta trikitilarien laguntzarekin

## Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak antolatuta, baserriz baserri oles egitera irtengo dira bihar, zapatua, gatzagarrak.

09:00etan izango da irteera, herriko plazan, eta eguerdira bitartean kantuan ibiliko dira. Ondoren, elkartean bazkalduko dute.

## Gatz potea eta egutegia

Baserriz baserri abesten joan ahala, horietako bakoitzean, gatz pote bana eta Udalak ateratako egutegia –kasu honetan, 2017koa– banatuko dituzte. Gaur,

egubakoitza, beteko dituzte gatz poteak Gatz Museoan, 16:30ean, bihar goizerako prest izateko.

## Umeendako ekintzak

Bestalde, Errege egunera bitartean gelditzen diren egun horietan, umeendako zenbait ekintza antolatzen ari da Gurel, aste bakoitzean bi ekintza egun. "Oraindik ez daukagu zehaztuta, baina egun bereziak antolatuko ditugu, umeekin zerbait egiteko. Pentsatzen ari gara, adibidez, ludotekan gau bat igarotzea, ekintza ezberdinekin", azpimarratu du Gorosabelek.

# Eskoriatzako Udalak Gabon jai zoriontsuak opa dizkizue!



eskoriatzako  
udala



Euskal Herriko ikazkin maitatuena Aramaiora etorriko da zapatuan. GOIENA

# Gabon jaiak ekintzaz beteta

Egitarau mamitsua prestatu du Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, Gabonetan Aramaiotik irten gabe askotariko ekitaldiez gozatzeko. Besteak beste, kosmetika eta elikadura tailerrak eta, batez ere, umeentzako askotariko hitzorduak izango dira

## Xabi Gorostidi ARAMAIO

Gustu eta adin guztietarako egitaraua izango da Aramaion, Gabonetako oporraldia ahalik eta ondoen aprobetxatzeko.

## Helduentzako aukerak

Lehenik eta behin, gaur, egubakoitza, *Igelak* euskal pelikula eskainiko dute Kultura Etxean, gaueko hamarretan. Patxo Telleriak zuzendutako filmak harrera oso ona izan du, eta, hala, herrian bertan ikusteko aukera izango da.

Bihar, zapatua, Guraso Elkarteak antolatutako Olentzeroren etorrera egingo da, arratsaldeko seieta. Abenduaren 26an, astelehena, kosmetika natural tailerra izango da Jubilatuen Elkarteetan. Hain zuzen, Itur Zuri emakumeen elkarteak antolatu du eta hiru orduko saiotoxa izango da.

Ezin ahaztu gabe utzi abenduaren 30eko Gabonetako bertso saioa. Hurrengo orrialdean dago informazio zehatzagoa, baina puntako bertsolariak herrikoekin batera ikusteko aukera izango da bertan. Hitzordua Kultura Etxean da, 22:30ean.

Urteko azken egunerako, lagun ezkutua eta urteari ongietorria emateko txin-txina antolatu du Gazte Asanbladak, eta urtarrilaren 1ean, Orixolera mendi irteera egingo da, urtea osasuntsu hasi nahi dutenentzako. Aipatu beharrekoa da 40 urte be-

## UMEEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK DIRA EGITARAUKO ZATI HANDIENA HARTZEN DUTENAK

teko direla Tellamendi gurutzea bota zutenetik.

## Umeak protagonista

Helduen ekintzak zerrendatzen hasi arren, egitarauko ekintza gehienak umeentzat zuzendutakoak dira. Besteak beste, tailerrak, puzgarriak, dantzarako saioak eta Bilbora irteerak izango dira.

Abenduaren 24ko Olentzeroren etorreraren ondoren, *Gozogintza osasungarria* izeneko sukaldaritza tailerra egingo da abenduaren 25ean goizean. Plaza mugatuak izango direnez, abenduaren 22a baino lehen egin beharko da izen ematea.

Hurrengo tailerra 27an izango da, eta Ludotekan Gabonetako *pop up* txartelak egingo dituzte. Hilaren 28an ipuin musikatu txanda izango da. Bi saio izango dira: lehena 2 eta 6 urteko haurrentzako eta jarraian 7 urtetik

## Gabonetan zer egin Aramaion?

Egongo da zer egin eta zer ikusi Aramaion, Gabon jaien baitan prestatutako ekintza sortarekin.

### Abenduak 23

- **22:00** *Igelak* pelikularen proiektzioa Kultura Etxean.

### Abenduak 24

- **18:00** Olentzeroren etorrera Guraso Elkarteak antolatuta.

### Abenduak 26

- **12:00** Umeentzako sukaldaritza tailerra Jubilatuen Elkarteetan. Izen ematea abenduaren 22a baino lehen (plaza mugituak).
- **17:00** Kosmetika tailerra Jubilatuen Elkarteetan, Itur Zuri elkarteak antolatuta.

### Abenduak 27

- **12:00** Umeentzako tailerra Ludotekan, Gabonetako *pop up* txartelak. Izen ematea abenduaren 22a baino lehen.

### Abenduak 28

- **17:00** Badut: ipuin saio musikatu Liburutegian (2-6 urte)
- **18:00** Badut: ipuin saio musikatu Liburutegian (7 urtetik gora)

### Abenduak 29

- **09:15** Bilboko PIN parkera irteera. Izen emateak Udaletxean abenduaren 27a baino lehen. 8 euro, eta 10 urtez azpikoek heldu batek lagunduta joan beharko dute. Itzulera 18:00etarako.

### Abenduak 30

- **12:00** Umeentzako tailerra Ludotekan: *Euskal Mitologiari buruzko imanak*. 5 urtetik gora. Izen ematea Ludotekan.
- **22:30** Gabonetako bertso saioa: Peru Abarrategi, Oihana Iguaran, Iker Zubeldia eta Sustrai Colina.

### Abenduak 31

- **13:00** Lagun ezkutua Sastiñan. Gazte Asanbladak antolatuta.
- **24:00** Txin-txina, Gazte Asanbladak antolatuta.

### Urtarrilak 1

- **Goizean zehar** Urteari ongietorria egiteko Orixolera mendi martxa (Tellamendi gurutzea bota zuteneko 40. urteurrena).

### Urtarrilak 2

- **17:00** Umeentzako disko festa Kiroldegian, Party Manen eskutik.

### Urtarrilak 4

- **17:00** Umeentzako puzgarriak Kiroldegian.

gorakoentzako. 29an, eguena, irteera antolatu dute Bilboko Umeen Gabonetako Parkera (PIN). Abenduaren 27a baino lehen eman beharko da izena, eta zortzi euroko kostua izango du. 10 urtetik beherakoek nagu-

## ASKOTARIKO TAILERRAK, DISKO FESTAK ETA BILBOKO PIN-ERA IRTEERAK IZANGO DIRA BATZUK

si batek lagunduta joan beharko dute.

Abenduaren 30ean euskal mitologiari buruzko imanak egingo dituzte Ludotekan 5 urtetik gorakoek.

Behin urte berrian sartuta, beste bi ekintza izango dituzte gazteenek: urtarrilaren 2an Party Manekin disko festa egingo dute Kiroldegian, eta urtarrilaren 4an, aldiz, puzgarriz beteko dituzte Kiroldegiko bazterrak, umeek zoroen pare saltoak egin ditzaten.





lazio saioko bertsolariak eta jai jartzaileak argazkia ateratzeko unean. ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

# Bertsolari laukote dotorea Gabonetako saiorako

Datorren egubakoitzean, abenduak 30, Gabonetako bertso saio egingo dute, 22:30ean, Kultura Etxean. Goi mailako bertsolariak herrikoekin batera ikusteko aukera polita izango da, eta gonbidatuak Aramaioko bertso familia asebetetzeko gogoz datoz

## Xabi Gorostidi ARAMAIO

Urteroko tradizioari jarraiki, bertso saio elegante batekin amaituko da bertso urtea Aramaion. Herriko bertsolariak elitekoekin batera ikusteko aukera izango dute Aramaioko bertso familia osatzen dutenek.

Urtean zehar herrian egin izan ohi den aretoko saio bakarria izaten da Gabonetakoa, baina,

aurten, hirugarrena izango da. "Eliteko bertsolariak Aramaion ikusteko aukera bakarrenetakoa izan ohi da Gabonetako saioa. Aurten Erain Debagoiena egitasmoaren harira bertso saioa egin genuen Kultura Etxean, eta ostean, Donostia 2016 barruan zegoen *Europa bat-batean* egitasmoaren baitan Munduko Inprobisatzaileen Topaketa ere

egin genuen", adierazi du Xabi Igoak, Bertso Eskolako kide eta antolatzaileak.

## Laukote dotorea

Aurtengo kartelean luxuzko lau bertsolari ageri dira. Lehenik eta behin, Aramaioko Bertso Eskolako ordezkari, Peru Abarrategi arituko da. "Gogotsu nago, egia esan. Telebistan ikus-

tera ohituta nagoen bertsolariekin batera abestu behartuko dut, eta, gainera, Aramaioko ordezkari. Herrian izanda, gertuko jende asko etorriko da saioa ikustera. Gogotsu nago, baina urduritasun puntu batekin ere bai. Ez dut aukera askorik izaten era honetako saioetan parte hartzeko, eta, beraz, ondo etorriko zait otsailean hasiko den 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketarako beroketa ariketa bezala", azaldu du Abarrategik.

Harekin batera Sustrai Colina izango da eliteko ordezkarietako bat. Xilabako txapela jantzi berritan dator, erakustaldi polita egin ostean. "Aramaio oso plaza polita izan ohi da niretzako. Gainera, urteko sasoi hau oso aproposa da era honetako saioak egiteko eta giro polita sortzen da", azaldu du Colinak. Gaur bertan, Elgetako Espaloiaren irekiera berriko ekitaldian arituko da, Amets Arzallusekin batera.

Oihana Iguaran villabonatarra eta Iker Zubeldia zegamarra ere bertan izango dira. "Oihanak aurten 140 saio inguru egingo zituen. Iaz Gipuzkoako finalista izan zen lehendabizikoz, eta, horren eraginez, plaza asko egingo da etorriko da. Ikerrek ere Gipuzkoako finalista izatea zer den badaki. Bazkari eta afariko saioetan aritzen da gehiago, baina umore zorrotza duen bertsolaria da", azaldu du Xabi Igoa antolatzaileak.

## Bikotea gai-jartzaile lanetan

Aurtengo laukoteari gaiak zehazteko ardurak Manex Agirrek eta Xabi Igoak hartuko dute. Bi bertsolari finek gai mamitsuak bilatuko dituzte saio umoretsu eta entretenigarria izaten ahalgizatzeko.

## NIRE USTEZ



PAULA AMILBURU  
BERTSOLARIA

## Aspertzea

Aspaldian igarri dut irakurtzeko ere denborarik ez daukadala. Ez dakit zer gertatu zaidan egoera honetara iristeko, edo agian bai. Bota niezaioke errua "heltzeari", edota behar eta eginkizun gehiagoren erantzule naizenari. Baina nire barnean zerbaitek esaten dit ez dela hori, zer bait sinpleagoa baizik. Aspertzen ahaztu zaidala.

Txikitan bai, denbora soberan neukan aspertzeko, eta nahiz eta orduak irakurtzen eman, oraindik ere denbora soberan izaten nuen. Orain, berriz, iruditzen zait ez aspertzearen edozer egiten dudala, hain gustuko ez ditudan gauzak ere. Gehienetan telebista edo ordenagailu parean edo siestan igaro ohi dut arratsaldea (baita lotsagatik aipatuko ez ditudan beste denbora galtze batzuetan ere).


Zergatik ez ote naiz kapaza ordu horiek irakurtzen aprobetxatzeko? Aste honetan zin egiten diot nire buruari denbora bat erreserbatuko diodala aspertzeari. Ea lortzen dudan.

## 'Bozioak eta tiroideak' prebentzio saioa martitzenean

Alaiak Jubilatuen Elkartek Aramaioko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatutako mintzaldia izango da.

Fernando Gomez-Busto medikua izango da prebentzio saioa eskainiko duena. Geriatria esparru barruan, psikiatrian eta elikadura osasungarrian aditua da Gomez-Busto. Iraganean zahartzarora ahalik eta osasuntsuen heltzeko hitzaldiak egin izan ditu, eta aholku interesgarriak emango ditu martitzeneko saioan. Hitzordua, 18:30ean, Kultura Etxean.

Saioa bukatzean sari berezi baten zozketa egingo dute.



PERU ABARRATEGI  
BERTSOLARIA

"Telebistan ikustera ohituta nagoen bertsolariekin batera aritzea polita da niretzat, eta erronka polita izango da".



SUSTRAI COLINA  
BERTSOLARIA

"Ilusioz nator. Gabonetako sasoi garai polita izaten da bertsoan aritzeko, eta urteko azken saioa izango da niretzat".



OIHANA IGUARAN  
BERTSOLARIA

"Denbora laburrean plaza berri asko ezagutzea tokatu zait, eta, nire kasuan, Aramaioa natorren lehen aldia izango da".



IKER ZUBELDIA  
BERTSOLARIA

"Nire bigarren Gabonetako saioa izango da Aramaion; sarri abestu izan dut bertako auzoetan; asko gustatzen zaidan plaza da".

# Badatoz Olentzero eta Mari Domingi herrira

Herriko haurrak desiratzen daude biharko eguna heltzeko, Gabonetako pertsonaia famatuak kalean ibiliko baitira eurekin batera abesten eta eurek idatzitako gutunak jasotzen. Gauean, berriz, etxe etxe arituko dira bergarrei opariak banatzen

## Maite Txintxurreta BERGARA

Gabonak hemen ditugu dagoneko, eta bihar gauean Olentzero eta Mari Domingi etxe etxe ibiliko dira opariak eta ikatza banatzen. Dena den, egunean zehar Bergaran ibiliko da batetik bestera, hurrekin gabon kantak abesten eta eurek idatzitako eskutitzak jasotzen.

Bihar goizean herriko hiru ikastetxeetako neska-mutikoak kalera irtengo dira baserriar jantzita gabon kantuak abestu eta Olentzerori ongiatorria egitera. 11:45ean elkartuko dira frontoian ikazkinarekin, eta handik San Martin plazaraino bidea harekin egingo dute.

Iluntzean, berriz, 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingi plazan izango dira umeek nahi dituzten opariak zerrendatzen eta idatzitako gutunak jasotzen.

**Osintxun eta Angiozarren ere bai** Herrigunea ez ezik, Angiozar eta Osintxu ere bisitatuko ditu Olentzerok.

Goiz esnatuko da ikazkina; izan ere, Angiozarren 08:45ean irtengo da plazatik, kantuan lagunduko dioten umeekin batera, eta egunean zehar bailarako auzune guztietatik pasako da. 19:00etan plazara itzuli da, eta umeek euren eska-



Umeekin batera kantuan aterako dira goizean Olentzero eta Mari Domingi. GOIENA

kizunak luzatu ahal izango dizkiote.

Osintxuarrek ere jasoko dute Olentzeroren bisita. 18:00etan jaitsiko da menditik, eta haurrak zubian elkartuko dira harekin.

## Jolas parkea

Gabonek umeendako duten beste pizgarri nagusietako bat jolas parkea izaten da. Bi jolas parke izango dira, adinen araberakoak.

Batetik, abenduaren 28an, 29an eta 30ean Labegarietako

kiroldegian izango da, eta zortzi urtetik gorako neska-mutilei zuzendutako jolas eta ekintzak egongo dira bertan. Egun bateko sarrera 4 euro izango da eta hiru eguneko bonua, berriz, 10 euro. Orduetgia honako hau izango da: goizez, 11:00-13:00; eta arratsaldez, 17:00-20:00.

Bestetik, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an 8 urtez azpikondako jolas parkea izango da; kasu honetan, Udal Pilotalekuan. Sarreraren prezioa eta ordutegia Labegarietakoaren berdina izango dira.

prestatutako saskietan, beharra dutenei banatzeko.

Aurtengoa, ekimen solidario honen bigarren edizioa da, iaz egin baitzuten lehenengoz.

Elikagai bankua, Hankaluz Trail taldea, Oxirondoko aisialdi gunea eta Bergarako Udala arduratu dira ekimen hau antolatzeaz. Bada, ume zein gurasoak animatu nahi izan dituzte lasterketa motz honetan parte hartu eta euren ekarpen solidarioa egitera.

## Gabonak eta elkartasuna, eskutik

Azken bi urteetan bezala, San Silbestre Trail mendi lasterketa egingo dute urteko azken egunean Bergaran, Pol Pol mendizale taldeko Hankaluz Trail taldeak antolatuta. 12:00etan izango da irteera, baina, horren aurretik, 11:30ean, San Silbestre solidarioa egingo dute lrala kalean.

Hala, ordu horretan, hurrek eta euren gurasoek

lasterketaren ibilbideko azkenengo 200 metroak egingo dituzte, Peñalba ondotik abiatuta.

Lasterketa solidario honetan izen ematea librea da, baina bada baldintza bat: helmugaratzean, parte hartzaileek Gabonetako gozoren bat (turroia, mazapanak, polboroiak...) laga beharko dute Elikagai Bankuak horretarako



Eguaztenean, udal ordezkariak eta sarituak udalbatza aretoan. ANDER LARRAÑAGA

## Herriko erakusleihorik politena, Mirari jantzi-dendarena

Bigarren saria Amparo ile-apaindegiak eroan zuen; hirugarrena, berriz, Ninika loradendak

### Ander Larrañaga BERGARA

Eguazten arratsaldean batu ziren udal ordezkariak eta saltokietako jabeak erakusleihorik lehiaketako sari banaketa egiteko. 18 parte-hartzailearen artean Mirari jantzi-dendarena aukeratu zuten erakusleihorik politena. 300 euroko saria eta ziurtagiria eman dizkiote Mirari Manobeli. Bigarren saria, 250 euro eta ziurtagiria, Amparo ile-apaindegiari; eta hirugarrena, 150 euro eta ziurtagiria, Ninika loradendari. Horrekin batera, Herritarren Saria Izeder Eskulanak dendak

jaso du eta ziurtagiria eman diote hari ere. Herritarren artean saria irabazi duena Naroa Aranguren izan da eta 50 euro jaso ditu.

Udalak argitu du maila altua erakutsi dutela aurtengo erakusleihorik eta "Gabonetako giroa sortzeko lagungarria" izan dela.

### Sariak udal bonutan

Aipatzekoa da sari guztiak udal bonutan banatu zituztela; izan ere, Udalak argitu du modu horretan dirua Bergaran bertan gelditzeko modu bat dela.

## Irekita Fraiskozuriko tabernaren ustiapena adjudikatzeko epea

Fraiskozuriko udal pilotalekuko tabernaren ustiaketa eta instalazio horien kontrola eta garbiketarako adjudikatzeko deialdi publikoa ireki zuen Bergarako Udalak duela egun batzuk eta martitzenera arte -hilaren 27a- egongo da zabalik.

Printzipioz, bi urteko iraupena izango du kontratuak eta horiek amaitutakoan, beste bi urtez kontratua berritzeko aukera egongo da.

Adjudikazioa aurkezteko baldintzak azaroaren 29an onartutako pleguan jasota daude; Bergarako Udalaren webgunean aurkitu daiteke plegu hori, kontratatzailearen profilarren barruan.

## Haur zein familiendako tailer bi Laboratoriumean

Abenduko agendaren baitan, bi tailer eta irteera bat eskainiko ditu Laboratoriumek datozen egunetan.

Batetik, martitzenean, hilaren 27an, Laborategi jolasak egingo dituzte, 12:00etan hasita. Tailer hori guraso eta hurrek familian egiteko bideratuta dago.

Bestalde, hurrengo egubakoitzean, hilaren 30ean, ugaztunak gaitzat hartuta, herriko txikiendako tailerra antolatu dute. 10:30ean emango diote hasiera tailerrari.

Amaitzeko, urtarrilaren 3an, familientzako irteera ornitologikoa egingo dute; Salburura eta Arabako Zientzia Naturalen Museora bisita.



# URTE BERRI ON GUZTIO!





# Antolaketan aldaketak, zinegotzi berriarekin

Udalbatzan Iñaki Arregi ordezkatu duen Iruñe Galarragak enpresa komitean eta Barne batzordean alkateak zituen ardurak beteko ditu aurrerantzean. Iñaki Arregi buru zuen batzordearen ardura, berriz, Lander Arregik izango du hemendik aurrera bere gain

**Julen Iriondo** BERGARA

“Arlo horietan ez izan arren, giza baliabideekin-eta lanean esperientzia badut, eta gustatzen zait horretan aritzea”, zioen Iruñe Galarragak (EAJ), Udalean izango dituen ardurak publiko egin ostean. Alkateak, berriz, Auzoetako, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko batzordean “orain arteko dinamikarekin” jarraituko dutela iragarri zuen: “Gehienbat, auzoetako arloa gurtzat oso gertukoa da, zaindu egin nahi dugu bereziki. Orain arte, nahiz eta Iñaki izan den batzordeko burua, Iñakirekin batera Landerrek eta biok ere eraman ditugu gai horiek”; auzoetan egin dituzten partaidetza saioetan eurak ere egon direla azaldu zuen alkateak; horrez gain, Maite Agirre ere arduratu da auzoetz, kultura ikuspegiarekin, batez ere.

**Kargu-hartzea, osoko bilkuran**

Asteleheneko osoko bilkuran hartu zuen zinegotzi kargua Iruñe Galarragak; Elena Letek nabarmendu zuen “lehenengo aldiz” gizon adina emakume izango dituela EAJk udalbatzan.

Gainerakoan, bost mozio onartu zituzten abenduko osoko bilkuran. Irabaziren ekimenez aurkeztu eta udalbatzan ordezkari-

tza duten alderdien artean adostutakoak izan ziren mozioetako hiru; horietako bat, zeliakoek emandako datuen arabera, 150 zeliako inguru egon daitezke Bergaran, eta familian kide zeliako bat izateak %288 garestitzen ditu erosketak. Bergarako ostalaritzan zeliakoentzat menurik eskaintzen ez dela-eta, Udalak konpromisoa hartu zuen ostalariari proposatzeko norabide horretan urratsak egitea: “Guk garbi ikusten duguna da, eta hori da zeliakoek behin eta berriz esaten digutena, oso-oso abandonatuta sentitzen direla gizarte honetan”, zioen Aiert Lizarralde. Lizarralde “pozik” agertu zen, Irabaziren ekimenez aurkeztutako hiru mozioak onartu zituelako udalbatzak: “Eta, gainera, denon adostasunarekin; eta hori zaila dago udalbatza honetan”.

Bergara Zeliakoentzako Herria proiektua martxan jartzeko Euskadiko Zeliakoek Elkartearekin elkarlanean hasteko konpromisoa ere hartu zuen Udalak. Iragarri zuten Osasun Sarean landuko dutela gaia aurrerantzean, eta glutenarenarekin batera beste intolerantzia batzuk ere kontuan hartuko dituztela.

Beste mozioetako bat pobrezia energetikoa saihesteko neurriak

hartzeko eskatzen zuena izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2012ko datuak aipatuz, pobrezia energetikoa etxebizitzaren %9ri baino gehiagori eragiten ziela azaldu zuen Irabazik. Hirugarren mozioak salatzen zituen atzeritarrak barneratzeko Espainiako zazpi zentroetako “giza eskubide urratze larriak”.

Beste mozioetako bat EH Bilduren ekimenez aurkeztutakoa izan zen, EAJrekin adostu zutena; PSE-EE eta Irabazi abstenitu egin ziren. EH Bilduk azalpenean zioen, Europako erakundeek aholkatzen dutenaren arabera, 6.000 polizia behar lituzkeela Euskal Herriak, eta 23.000 dituela; eta hori ETAk bere jardunaren amaiera iragarri eta bost urtera, azaldu zuten. Honek, gainera, euskaldunoi “urteko 1.500 milioi euroko gastua” dakarkigula zioten. “Planteatu duguna da Espainiako poliziek, era mailakatuan, alde egin behar dutela hemendik, eta euskal herritarren segurtasuna hemengo polizien esku laga”, zioen Agurne Barrusok. Aldi berean, galde erreguetan, Luhusoko atxilotak ere salatu zituen EH Bilduk.

Eguneko bosgarren mozioa poliomilitisak eragindako pertsonen sostengu mozioa izan zen; aho batez onartu zuten.



IBON GABILONDO

## Etxeberría eta Elortza irabazle

Unai Etxeberria eta Ibai Elortza angiozartarrak izan ziren irabazle asteburuan Artase elkartearen jokatu zen Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketan. Bigarren postua, berriz, Antonio Ramosek eta Jabier Agirrek eskuratu zuten. Hala, bikote biak sailkatu dira otsailaren 25ean Ibarren jokatu duen Gipuzkoako kanporaketan parte hartzeko.



DANOBATGROUP

## Nobedadeak Ipintzako lanetan ere

Asteleheneko osoko bilkuren ostean, Ipintzako harmailen lanen gainean ere galdetu zion Goienak alkateari; orain arte prentsan publiko egin dena berretsi zuen: Gabika enpresak epeak betetzeko ezintasuna ikusi eta kontratua etetea eskatu zuela, eta, urgentziaz, lehiaketa publikoan bigarren geratu zen Sasoi Eraikuntzak enpresaren esku utzi dutela

lanak egiteko ardura. Gabika enpresak “zintzotasunez” jokatu duela zioen alkateak: “Ahalik eta lasterren adierazi digute, guk gaia era on batean bideratzeko aukera izateko; kaltea ahalik eta txikiena izateko”. Gertatutakoak atzerapena eragingo du –hasi baino ez zegoen eginda Gabika–, eta otsail hasierarako bukatu behar ziren lanak martxo amaierarako amaitzea da orain

asmoa: “Kontratu berria ez dago oraindik sinatuta; dokumentazioa-eta batzen ari gara, ahalik eta lasterren hasteko asmoarekin. Errege ostean pentsatzen dut egongo garela hasteko moduan”. Gertatutakoagatik Udalari kalte-ordainik-edo badagokion galdetuta, lehentasuna obra berriz ere martxan jartzea izan dela eta beste aspektu horiek aurrerantzean aztertuko dituztela zioen alkateak.

## DanobatGroupen lehiaketa

Amets Aranbarrik eta Hoda Abdelouahabek jaso dituzte DanobatGroupek Euskararen Eguna zela-eta antolatutako lehiaketako sariak. Enpresa taldeak “herritarrengana hurbildu eta euskararekiko duen konpromisoa ezagutzera eman nahian” Internet bidez lehiaketan parte hartzeko deia egin zien lantegiak dituen herrietako bizilagunei, tartean bergarrei.



# Herrian hobekuntzak txertatzeko lehiaketa

Bergararrek udalerriko bizi kalitatea hobetzen lagundu dezaketen ideiak proposatu ditzaten, *Bergara elkarrekin egin* izeneko ekimena aurkeztu du Udalak. Ideiarik onenek saria jasoko dute, eta proiektuok praktikan jartzeko aukera izan dezakete

## Maite Txintxurreta BERGARA

*Bergara elkarrekin egin* izeneko lehiaketa jarri du abian Udalak. Ekimenaren helburua herritarren bizi kalitatea hobetzea da, eta, horretarako, jendearen ideiak batu nahi dituzte; onenek saria izango dute. Era berean, Udalak "jendearen premia eta lehentasunak ezagutzeko" ere balio izango duela azaldu dute antolatzaileek.

2017ko otsailaren 1era arte izango dute herritarrek ideiak aurkezteko aukera. Agorrosinen, Udal Liburutegian edo udal txeko erregistro orokorrean egin ahal izango dute. Horretarako bete beharreko eranskin guztiak *bergara.eus* webgunean eskuragarri daude.

Ideioak arlo desberdinetakoak izan daitezke: azpiegiturak, bizi kalitatea hobetzeko ideiak, partaidetza eta elkarbizitza, elkartasun premiei erantzutekoak, kultura arloari dagozkionak...

Parte hartzaileek udal aurrekontuekin eta udalak dituen antolaketa, baliabide eta udal langileen laguntza zein auzolana erabiliz garatu ahal izango dute euren ideia.

## Epeak eta oinarriak

Aurkeztutako ideiek bi baldintza bete beharko dituzte: batetik, ekonomia ikuspegitik bideragarria izatea. Udalak 2017ko aurrekontuetan 100.000 euro aurreikusiko ditu lehiaketa honetako ideietatik sor daitezkeen ekimenak aurrera eramateko. Dena den, Udaletik azaldu dute lehiaketak "ideia bera" saritzen duela, baina horrek ez duela esan nahi ezinbestean proiektu hori exekutatu denik.

Beste baldintza da aurkeztutako proiektuak epe motzera (2017an) bideragarriak izatea. Azpimarratu dute fase desberdinak aurreikusi daitezkeela, "betiere, autonomia izan dezaketen emaitzak lortzen badira".

Lehiaketan lau kategoria izango dira, adinaren arabera banatuta: 1. kategoria, 12 urtetik beherakoak; 2. kategoria, 12-18 urte bitartekoak; 3. kategoria, 18-60 urte bitartekoak; 4. kategoria, 60 urtetik gorakoak. Saritan 2.715 euro banatuko dituzte guztira, adinaren eta lortutako postuaren arabera; izan ere, kategoria bakoitzeko lehenengo hiru ideiarik onenek jasoko dute saria.

Lehiaketako irabazleei eta saridunei otsaileko bigarren hamabostaldiarekin bat emango diete jakinarazpenak, eta sari banaketa ekitaldia otsailaren 22an burutuko dute.

## Botoa emateko aukera

Lehiaketako irabazleak aukeratzeko epaimahai bat osatuko dute. Dena den, herritarrek ere izango dute iritzia emateko aukera. Hala, epaimahaia balorazioak %50eko balioa izango du eta beste erdia herritarren esku izango da.

Entrega epea itxi ostean, otsailaren 6tik 12ra lehiaketara aurkeztutako proposamenak Aroztegi aretoan jarriko dituzte ikusgai, eta egun horietan aukeratu ahal izango dute herritarrek interesgarrienak iruditzen zaizkien ideiak.



Aurkezpena, Aroztegin. ANDER LARRAÑAGA

## Saharari buruzko dokumentala eta solasaldia gaztetxean

17:30ean hasita, Mendebaldeko Saharari buruzko dokumentala emango dute kartzela zaharrean. Gero, solasaldia izango da bertako egoera lehen pertsonan bizi izan duten herritar eta aktibista gonbidatuekin. Ondorengoak izango dira: Dahja Emhamed, Hayat Erguibi, Jamila Dambar eta Saleh Salek. Informazio zabalagoa *Goiena.eus*-en.

## "Presoak gure artera" ekartzea eskatzeko ekimenak

Gaur, hilak 23, 19:30ean, *Kalera, kalera* dinamikaren baitan antolatutako *Piztu Bergara!* ekimena egingo dute: "Ea sua piztuta mantentzen dugun preso guztiak etxeratu arte". Urtezahar egunerako, Gure Artera Gaztelu taldeak *flashmob*-a antolatu du. 18:00etan izango da, Barrenkalean, eta Joxe Migel Gazteluren etxeratzea eskatuko dute.

**ARGIA**

Zer emateko prest zaude?      Eta zer jaso nahi duzu?

**INDARTU DEZAGUN  
INDARTZEN GAITUENA**

EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

[www.argia.eus/eginargiako](http://www.argia.eus/eginargiako) #ArgiaJendea





Iazko Gabonetako pilota txapelketako sari banaketa. GOIENA

## Askotariko kirolen torneoak Gabonetan

Urtero moduan, ez da kirol eskaintzarik faltako Bergaran; izan ere, pilota, saskibalo, hockey, futbol eta eskubalo txapelketak antolatu dituzte datozen egunetarako. Kirolzaleendako aspertzeko egunak ez dira izango, duda barik

### Ander Larrañaga BERGARA

Gabonak bueltan kirol desberdinetako txapelketak bilakatzen dira protagonista Bergaran eta aurten ere hala izango da; kirol eskaintza oparoa izango dute bergararrek.

### Gabonetako pilota txapelketa

Pilotari dagokionez, hain errota dagoen Gabonetako pilota txapelketa hartuko du Udal Pilotalekuak. Eguaztenean eta atzo jokatu ziren lehen finalerdiak eta gaur amaituko dituzte gaintzekoak. Partidu horietan garaile irtengo direnek lortuko dute abenduaren 30ean izango den finalerako txartela: 16:00etan hasita, barrukoa egingo dute eta 17:00etan jokatu dituzte finalak.

### Hirukoa eta txapelketa

Saskibaloiak bi hitzordu izango ditu: batetik, Gabonetako hiruko txapelketa egingo dute, eta, bestetik, infantilen eta kadeteen txapelketa.

Lehenengoa, hiruko txapelketa, abenduaren 27an egingo dute Bergarako pilotalekuan: alebina, infantilak eta benjaminak arituko dira norgehiagoka, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Bigarrenik, infantil nesken eta kadete mutilen txapelketak ere egingo dituzte, urtarrilaren 3an eta 4an, hurrenez hurren.

### Urtea hasteko, hockeya

Aurten ere Labegaraieta kiroldegia hartuko du hockeya: izan ere, hiruko txapelketa, lau txapelketa eta gaztetxoendako irristaketa topaketa antolatu dituzte Hanka Labankakoek, urtarrilaren 2rako. Izena emateko, abenduaren 28a baino lehen izan beharko da kiroldegian edo igerilekuan dauden kutzetan izen-emate orria sartuta.

### Igor Fernandez Memoria

Futboleant, Gabonetako gazte txapelketa antolatu dute Bergara Kirol Elkartekoek. Reala,

Alaves, Lagun Onak eta Bergara lehiatuko dira torneoan. Hilaren 29an izango dira kanporaketak, Ipintzan: arabarrek eta azpeitiarrek egingo dute norgehiagoka lehenengo, 16:00etan, eta ostean, donostiarrek eta bergararrek, 18:00etan. Finala hurrengo egunean, hilaren 30ean, izango da, Agorrosinen, 16:00etan hasita

Aurten, gainera, txapelketaren izena *Igor Fernandez Memoria* izango da, atezain eta entrenatzaile izandakoa omentzeko.

### Hilaren 26an, eskubaloia

Eskubalo Eguna astelehenean izango da Bergaran. Bi ataletan banatu dute eguna: batetik, 15:30ean, gaztetxoek jokatu dituzte partiduak, baina gurasoekin. Euren haurrengana gerturatzeko modu paregabea, duda barik; eta bestalde, 16:30ean, eskubalo taldeko jokalaririk ohiak eta gaur egungoak arituko dira norgehiagoka. Hori guztia Labegaraietan ere.

## Lau puntugatik txapelari agur

Aurreko egubakoitzean jokatu zuten Gipuzkoako Bigarren Mailako finala gomazko paletan Bergarako gazte mailako neskek eta 30-26 galdu zuten partidua. Irene Muruak eta Idoia Agirrezabalek norgehiagoka polita egin bazuten ere, ezin izan zuten txapela Bergarara eroan eta Intxurre izan zen garaile. Bergararrak, argazkian, zutik eta makurtuta ezkerrean.



MIKEL GALLASTEGI



Taila eskolako ikasleak Zabalotegiko tailerrean. AMAIA TXINTXURRETA

## Taila eskolako lanak Aroztegin ikusgai Gabonetan

Ikasleen 30 lan jarriko dituzte erakusketan, Jesus Okina tailagile zenaren 15 pieza gonbidaturekin batera

### Maite Txintxurreta BERGARA

Gaurtik aurrera, abenduak 23, Bergarako taila eskolak erakusketara jarriko du Aroztegi aretoan, urtero legez, eta Gabon jaietan bisitatu ahal izango da, urtarrilaren 7ra arte. Zabalotegin, eskolako ikasleek bukatzeaz dagoen urte honetan egindako 30 lan jarriko dituzte ikusgai, pieza gonbidatuez gain. Iluntzeko zazpitan egingo dute inaugurazio ekitaldia.

Ikusgai izango diren lanak elkarren artean "oso desberdinak" direla azaldu du taila eskolako presidente Javier Gantxegik: "Urtetik urtera jendea gauza berriak egiten hasten da", dio. Hala, badira hiru dimentsiotakoak, erliebean eginkoak...

### Gonbidatua, Okina

Jesus Okina bergararra izango da artista gonbidatua. Migel

Okina margolari ospetsuaren anaia zen, tailagintzan aritzen zen, eta bere hamabost lan izango dira Aroztegin. Azken urteotan kanpoko artisten lanak ekarri izan dituzten arren, aurtengoan herriko tailagilearenak erakustea erabaki dute Taila Eskolakoek. Horretarako, haren familiartekoak bere lanak batzen ibili dira azken asteotan, Josu semeak azaldu duenez.

Bada, ikusgai izango diren Okinaren piezen artean bereziarena, agian, hil zenean bukatzeke utzi zuen hori da, Jesukristoren buruaren irudia. "Bertan ikusten da nola egiten zuen lan, kapaka", dio Josu Okinak. Bestetik, Mariaren Lagundiatik ekarritako metro bat baino gehiago neurtzen duen Ama Birjina bat ere izango da, eta figura bi horien ondoan, horien marrazkiak erakutsiko dituzte.



# Altxor bat babesteko lanean buru-belarri

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkarteak hogeit hamar kontzertu antolatu ditu 2016an, San Pedroko parrokian dagoen organoaren konponketarako dirua batzeko asmotan. Dena den, erakundeen aldetik laguntza jasotzea beharrezko ikusten dute

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Kontzertu pilotxo antolatu du 2016an Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkarteak; 20, hain justu. Kontzertuok Santa Marinako elizan egin dituzte, San Pedro parrokian dagoen Parisko Stoltz-Freres etxearen organoaren konponketa eta zaharberitze lanetarako dirua eskuratzeko.

Urtearen balorazioa egiteko orduan, bi arlo bereizi ditu Aitor Olea lehendakariak: batetik, adierazi du antolatutako hitzorduetara jendea etortzea eta bertatik lortzen den ekarpena "guztiz positiboa" dela. Era berean, dohaintzak egin dituztenei ere eskerrak eman dizkie. Baita kontzertuak musu-truk ematen dituzten artistei eta haiendako gozoak ekartzen dituzten herriko gozotegiei ere.

Bestetik, baina, esan du elkarrearen helburua "oso urruti" dagoela. Organoaren konponketarako lehen fasea aurrera era-

mateko 100.000 euro behar dituzte, eta gaur egun 32.000 euro dituzte "garbi". Urte eta erdian 36.000 euro lortu dituzte, baina zati bat organoaren endekatzea gelditzeko "larrialdizko" mantentze-lanetarako erabili dute.

## Konponketa lanak

Lehen fase horretan egin beharrekoa "organo guztia desmuntatzea eta haize ihes guztiak konpontzea" da, eta organoaren goitik beherako konponketa aintzat hartuz gero, beste sei fase egin beharko lirakeke. Dena den, hori "zientzia fikzio" gisa ikusten dute elkartean; izan ere, 420.000 euroko aurrekontua izango luke prozesu osoak, datorren martxoan 127 urte beteko baititu organoak. Michel Jury frantziarrak du esleitura organoaren zaharberitze lanetako ardura.

## Instituzioen laguntzaren beharra

Elkarteak dio helburua erdies- teko instituzioen aldetik ekar-

penak behar dituztela, baita enpresen aldetik ere. Udalaren laguntza badute fotokopiak edo inprimaketak egiteko. Dena den, Aldundiaren eta Jaurlaritzaren inplikazioa gurako luke, Stoltz-Freres organoa "guztion ondarea" den aldetik.

Hain zuzen, haien helburuetako bat da hura ofizialki interes kulturalako ondare izendatzea, eta Eusko Jaurlaritzak dauka horretarako eskumena. Oleak dio San Pedrokoa "organoen munduko *Botticelli* bat edo *Greco* bat" bezala har daitekeela, organogintzan "mugarri" bat delako.

Orain, horretan zentratzea erabaki dute, eta epe motzean ez dute kontzerturik egingo. Dena den, norbaitek diru ekarpenen bat egin nahi izanez gero, ondorengo kontu zenbakian egin dezake (Kutxa): ES 90 2095 5070 7091 1532 9753. Ekarpentok zerga arintze bat izango dute PFEZren aitortpenen.

## 'Ikimilikiliklik' erakusketa, zuzendariak azalduta

Iñaki Lizarralde, Laboratorium museoa ikusgai dagoen *Ikimilikiliklik* izeneko erakusketaren zuzendarietako batek, mostra hori egitearen prozesuari buruzko hitzaldia eskainiko du (gazteleraz) urtarrilaren 4an, eguaztena. 18:30ean izango da, museoa bertan. Ez Dok Amairu mugimendua da erakusketa horren protagonista.



Bukaerako agurra. IMANOL SORIANO

## Felipe Juaristiren Aldeta taldearen emanaldia Aroztegin

Gaur, egubakoitza, abenduak 23, Aldeta taldeak emanaldia eskainiko du Aroztegi aretoan, 19:00etan hasita. Donostiako Intxaurrenondoko beste hiru lagunekin batera (Txitxo Lopez, Monika Refojos eta Juanra Unamuno), Felipe Juaristi poeta talde honen partaide da, eta, hain zuzen, poesia musikatuen emanaldia izango da.

## Rock kontzertua hilaren 29an, Xabier Arrillagaren omenez

Urriaren hil zen Xabier Arrillaga gaztea omentzeko rock kontzertua egingo dute datorren eguean, abenduak 29, Seminarioko karpan. Hainbat musikari elkartuko dira taula gainean. Tartean, musika eskolako kideak, perkusio taldea, Diablues & Bluecifer, Su Ta Gar eta EH Sukarrako taldeetako Gorosabel anaiak eta Emon taldeko kideak.

## Amodiozko Gutunak bidaltzeko epea, urtarrilaren 8ra arte

Urtarrilaren 8ra arte bidal daitezke lanak Jardunek antolatutako 25. Amodiozko Gutun Lehiaketan parte hartzeko. Postaz bidal daitezke elkarrearen Errotalde jauregiko bulegora, edota posta elektronikoz (*amodiozkogutunak@gmail.com*). Amodiozko esaldien lehiaketan parte hartzeko epea, berriz, urtarrilaren 26ra arte dago zabalik.

## "Etxeko mutikotxoari eskaintzen diot txapela"

**ENAITZ ALUSTIZA**  
**BERTSOLARIA**

Bergarako bertsolari txapelketa irabazi du

**Maite Txintxurreta** BERGARA

Unai Aranzabalekin buruz burukora iritsita, Alustiza da Bergarako bertsolari txapeladuna. **Zorionak! Pozik txapelarekin?** Bai, batez ere, sortutako giroagatik. Oso saio polita izan zen, asko disfrutatu genuen. Kopla Barik-ekoek lan handia egin dute, eta horrek fruitu ona ekarri du. **Zer moduz ikusi zenituen kideak?** Oso ondo. Bi multzo daudela esan daiteke: urte askoan saltsa honetan ibili garenok eta duela hiruzpalau urte hasitakoak. Horiek gora datozela ikusteak sekulako poza ematen dit.

**Agurrak puntuagarriak izan ziren, eta zu pandero eta guzti ateraz zinen.**

Bai. Nire kasuan, buelta dezentematen dizkiet egin litezkeen lanei. Azkenean, Alaskaren *A quien le importa*-ren bertsio bat egin nuen. Halako ariketak politik dira saioa hasteko.

**Umorea izan zen protagonista.**

Bai, eta egubakoitzeko saiorako formatu egokia iruditu zitzaidan, ikusle guztiengana heltzeko. Ni oso eroso egoten naiz formatu horretan, eta gai serioei baino zuku handiagoa ateratzen diot.

**Nori eskaintzen diozu txapela?**

Agurrean abestu nuen etxean "aingerutxo bat" utzi nuela lotan, *Ume eder bat* doinuarekin. Etxeko mutikotxoarendako, beraz.

## Urteko azken emanaldia

Fernando Gonzalo organo jole donostiarraren emanaldiarekin, urteko hogeigarrena, borobildu zuen Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkarteak domekan 2016rako prestatutako kontzertu egitaraua.

## Kontzertu erromantikoa

Errepertorio erromantikoa eskaini zuen Gonzalok. Lehen zatian, konpositore frantses eta italiarren lanak interpretatu zituen, eta bigarrenean, lau donostiarrak; tartean, bere *Aizkorriko mendizerra*. Emanaldiz beteriko urtea agurtzeko, "programa anitza eta esanguratsua" eskaini zuen Gonzalok, Aitor Olearen esanetan.



Fernando Gonzaloren kontzertua Santa Marinan. STOLTZ-FRERES LAGUNEN ELKARTEA



Akordeoekin, biolinekin, flautekin, pianoekin eta xilofonoekin, doinu ezagunak izan ziren entzungai. MAIDER ARREGI

## Ilusioz beteriko doinuak herriko gaztetxoekin

Ezinbesteko urteroko ohitura bilakatu den Gabonetako kontzertua eskaini zuten 60 gaztetxok astelehen iluntzean. Ohi bezala, Torresoroa aretoa txiki geratu zen eta musikariak entzuteko gogoz kanpoan ere gelditu ziren zenbait herritar

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Gitarra, pianoa, saxofoia, txistua, oboea... askotariko instrumentuak entzun, gozatu eta ezagutzeko aukera izan zuten antzularrek Gabonetako kontzertuan. Eta, ohikoa den moduan, bete egin zen Torresoroa aretoa urtero ezinbesteko bilakatu den emanaldia ikusteko. Askotariko

doinu ezagunak izan ziren nagusi: *Din, dan, don, Maritxu, Eperrak*, Adele abeslari famatuaren *Someone like you* eta Ken Zazpi euskal taldearen *Haizea* kantu ezaguna, besteak beste, izan ziren entzungai aretoan. Emanaldiaren une askotan txalo zaparradak etengabeak izan ziren eta publikoa ere kanturen

bat edo beste abestera animatu zen. Emanaldi "hunkigarria, ederra eta goxoa" izan zela azaldu zuten bertaratutakoek.

"Batzuk hasi berriak dira eta hiru hilabete soilik daramatzate musika eskolan, irailan hasita. Beraz, batzuentzako lehen aldia da. Horiek kantuan egingo dute. Helduagoek, aldiz, musika

## Urduri emanaldia hasi aurretik?



LORE ETA UDANE  
ANTZUOLA

"Bai! Aurten, gainera, lehen aldia da eta *Ole Olentzero* kantua abestuko dugu taldean. Letra jakin arren, erritmo bereziko kantua da. Oso polita da. Datorren urtean ea instrumenturen bat jotzeko aukera daukagun, musika asko gustatzen zaigu eta!".



MALEN ETA IRAIA  
ANTZUOLA

"Gabonetako kontzertua oso berezia da guretzako. Gainera, herriko jende asko etortzen da kontzertua ikustera eta urduri ere egoten gara. Gurasoak, aitona-amonak, lagunak... urtero etortzen dira hutsik egin gabe gu entzutea. Horregatik da egun berezia".

instrumentuaren laguntzarekin prestatu dute emanaldia. Errepertorio ezberdina ekarri dugu: batzuk gabon kantak eta beste batzuk abesti ezagunak dira, polita!", azaldu du Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek.

### Askotariko instrumentuak

Gabonetako kontzertuan mota eta doinu askotariko instrumentuak izan ziren protagonista. "Helburua da instrumentuak ezagutzera ematea; izan ere, horrelako emanaldiek aukera hori ematen dute".

Azken urteetan gitarra eta pianoa izan direla gaztetxo antzularren instrumentu gustukoak azaldu du Ugaldek. Baina, pixkanaka, joera hori ere zabaltzen joan dela: "Urtetik urtera pixka bat joera hori di-

betsifikatzen joan da. Horren erakusle da gaur ikusitako instrumentuen aniztasuna; hala, aurten antzularren artean saxofoiak, klarineteak eta flautak ikusiko ditugu. Hain justu ere, hori da helburua; etorkizun batean hemen Antzulan, musika taldetxo bat sortzeko aukera edukitzea".

Guztira 60 haur musikaririk parte hartu zuten ilusioz beteriko emanaldian. "Ilusio handiz prestatzen eta egiten diren ekimenak, arrakasta edukitzen dutela uste dut".

## 60 HAUREK PARTE HARTU ZUTEN "ILUSIOZ" BETERIKO EMANALDIAN

## Gimnasten trebezia

Aurten lehen aldiz Gabonen bueltan egin dute Ariznoa gimnasia erritmikoko gimnastek erakustaldia. Antzuolako pilotalekua bete egin zen haur zein gaztetxoekin abilezia ikusteko. "Oso ondo joan da erakustaldia. Txikien oso pozik zeuden, emozioz beteta, batzuentzat lehen aldia zen eta!", azaldu dute Ariznoako kideek.



ESTITXU OTAEGI

## "Kalera, kalera" ekimenaren baitan argazki masiboa gaur

Gaur, egubakoitza, *Kalera, kalera* ekimenak deituta, elkarretaratzea egingo da 19:00etan. Argazki masiboa ere aterako dute, Zurrategin. Bihar, abenduak 24, eguerdian luntxa banatuko dute, dirua batzeko, Zurrategin. Iluntzean, Olentzeroren harreraren parte hartuko dute.

Urtarrilaren 14an Bilbora joateko dei egin dute.



# Iritsi dira Gabonak eta ilusioz beteriko egunak

Bihar, abenduak 24, Olentzero eta Mari Domingi jaitsiko dira San Josetik herrira. Baina urtarrilaren 2ra arte makina bat ekintzaz gozatzeko aukera izango da Antzuolan. Festa, kirola, musika eta emanaldiak izango dira egunotan

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Heldu dira Gabonak eta badatoz Olentzero eta Mari Domingi San Josetik behera. Herriko haur, gazte eta helduen ilusioak betetzeko asmoz, bihar etorriko dira. Antzuolarrek San Josepen egingo diete arratsaldean harrera. Baina, ongietorri festaren aurretik, goizeko hamaiketan eskolako umeen eta gurasoen eskutik kalejira egingo dute. Errekalde auzotik irtengo dira kantuan –euria eginez gero, eskolako patioan–.

## Olentzerori harrera

18:30ean helduko dira Olentzero eta Mari Domingi San Josetik herrira. Musikak eta herritarrek harrera egingo diete. Kalejiran, Herriko Plazara abiatuko dira ekitaldi nagusiari hasiera emateko. Bertan, txikitxoek Olentzero agurtu eta azken uneko eskaeraren bat egiteko aukera ere izango dute.

## Krosa bigarrenez

Mozorroztuta, kuadrillan, bikoteka, familian, bakarka... abenduaren 26an, San Esteban krosa egingo da. 17:30ean 5 eta 8 urte artekoak irtengo dira; 17:45ean, benjamin, alebin, infantilak. 18:00etan, kadeteak eta hortik gorakoak. Eta kirolarekin ja-



Olentzero eta Mari Domingi Herriko Plazan. IKER AIZKORBE

rraituz, abenduaren 26tik 30era, Debagoieneko Pilotako Gabon Kopa jokatu da, goizez, pilotalekuan. Antzuolako eta eskualdeko gainerako herrietako pilotariak jokatzen ikusteko aukera izango da.

## Haur parkea

Aurten ere herriko haurrek haur parkeaz gozatzeko aukera izango dute abenduaren 30ean, eskolako patioan. Honako ordu-tegi hau izango du puzgarri eta jolasekin osatutako parkeak: 11:00-13:30 eta 16:30-19:00.

Egun berean, 18:30ean, Gari-koitz Mendizabal txistulariak eta Aitor Furundarena akordeoi joleak *Bi poliedro* musika saioa eskainiko dute Torresoroan.

## Urte berria hasteko

Eta antzuolarrek ohiturari eutsiz, urte berriari ongietorria Arrolan egingo diote. Bertaratzen direnendako salda eta txistorra egongo da.

Urtarrilaren 2an, umeendako ikuskizuna: Patata Tropikala taldearen *Ezer ez da dirudiena*. Torresoroan, 18:00etan.



Zurrategin haima bat muntatu zuten. MAITE TXINTXURRETA



Gazte txokoko gaztetxoak ibili ziren pintxoak prestatzen. MAITE TXINTXURRETA

## Gaztetxoek elkartasuna aurten, Saharako haurrak ekartzeko

Gazte txokoko gazteen ekimen eta borondatearekin, bigarrenez egin dute Sahararen aldeko festa

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Gazte txokokoak, Anelkar eta Sagiri elkarten laguntzarekin, Sahararen aldeko jaia egin du bigarrenez. Hala, gazte mordoxka aritu zen pintxoak eta edariak saltzen, opor sasoiari haur sahararrak Debagoienara ekartzeko lanean diharduen proiektuari laguntzeko. Iaz antolatuta zuten lehenengoz jaia eta orduan, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan gertatutako uholdeek laguntza batu zen. Bada, ekimenak izandako erantzuna ikusita, aurten ere errepikatzea erabaki dutela azaldu du gazte txokoko arduradun Itsaso Garmendiak: "Iazko ekintza oso ondo balortu genuen. Diru kopuru polita batu zen eta aurten batutako dirua Debagoieneko familiei opor garaian saharar umeak gurera ekartzeko laguntzeko da".

## Arrakasta aurtengoa ere

Nabarmendu behar da gazte pilotxoak aritu zela lanean torti-

llak ekarri eta pintxoak prestatzen edo musikari moduan giro paregabea jartzen, esaterako.

Hala, musikak zirauen bitartean eta pintxoak eta edariak saldu bitartean, haima muntatu zuten Zurrategi plazako kioskoan. Bertan jarrita, sahararren antzera tea hartzeko aukera ere izan zuten.

Horrez gain, oporretan Euskal Herrira etorritako haurren argazkiak edo saharar kanpamentuetako argazkiak proiektatu zituzten. Itsaso Garmendiak gaineratu du ekimen hau gaztetxoendako lagungarria dela Saharako kanpamentuetako errealitatea gertutik ezagutzeko. "Zer den eta nola bizi diren; bertako errealitatea gerturatu gura izan diegu modu horretan gure herriko gaztetxoei euren inplikazioari esker".

Ekimenaren bueltan jende dezente batu zen Zurrategin, eta pintxoak eta edarien salmenta ere ondo joan zela adierazi dute antolatzaileek.

## Aurten ere areto futbol txapelketa

Iaz ere jokatu zuten areto futbol txapelketa eta Redtube Boys taldea izan zen garailea. Josu Zubikaraik jaso zuen goleatzaile onenaren saria (15 gol). Giro ezin hobean, 100 jokalaririk hartu zuen parte. Aurtengoa abenduaren 28an eta 29an jokatu da, arratsaldean, pilotalekuan. Emakumez eta gizonezkoz osatuta, bederatzita talde parte hartuko dute.



Iazko txapelketako irabazleak. REDTUBE BOYS

# Gehiago estutu daitekeen izan da eztabaidatuena

Udal gobernu taldearen babesarekin egin du aurrera milioi bat eta erdi euro pasatxoko aurrekontuak. Oposizioa abstenitu egin da, gerrikoa gehiago estutzeko aukera badagoela iritzita. Iradokitako neurriak eztabaida iturri izan dira

**Larraitx Zeberio** ELGETA

2017ko udal aurrekontua aurrekoa baino %5,43 txikiagoa da. Udalak 1.535.692,54 euro izango ditu kudeatzeko. Zorpetze mailak baldintzatutako aurrekontua dela adierazi du Iraitx Lazkano alkateak. Haren hitzetan, "estutuaren estutua" da, eta inbertsioetarako kopuru "triste" uzten duena: "83.300 euro besterik ez", adierazi du. "Orain hila bete batzuk Kutxabank-ekin sinatu genuen berfinantziarioarekin aurrezten dugun dirua da, gutxi gorabehera, 2017an inbertsioetarako izango duguna", azaldu du. "Berfinantziario horrek ahalbidetu digu zerbitzu eduki ahal izatea inbertsio batzuk egiteko herrian".

Hilerriko horma konpontzea izango da 2017ko udal inbertsio garrantzitsua. Bestelako egitasmoen artean nabarmentzen dira bi baserri bide konpontzea, adinekoendako parkea egitea, zenbait irisgarritasun lan burutzea eta kiroldegian segurtasun irteera bat egokitzea.

EH Bildu udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin egin du aurrera aurrekontuak. Oposizioa abstenitu egin da. Egindako murrizketak ontzat eman dituzte, baina neurri gehiago har daitezkeela uste dute Gu Geu Elge-

tako ordezkariak. Iritzi diote udal gobernu taldeak "esfortzu handiagoa" egin zezakeela; izan ere, oposizioak zalantza jartzen du, Udalaren egoera ekonomikoa ikusita, aurreikusita dauden zenbait gastu berriz aztertzeke edo negoziatzeko ahalegina behar bestekoa izan den. Gu Geu Elgetako Eduardo Zubiaurrek hainbat iradokizun egin zituen. Adibide gisa, aipatu zituen aurrekontuan jasota dauden hainbat diru-lerro; esaterako, euskara ikastaroak (5.000 euro), Goiena (9.000 euro), Uema (5.000 euro), edo erretiratuak (20.000 euro). Mikel Larrea bozeramaileak Domingo Iturbe Patronatua

ere (6.000 euro) aipatu zuen: "Negoziatu da? Eskatu da ordainketa berandutzea edo denbora batez etetea? (...) Udalaren egoera ekonomikoa ikusita, oposiziotik ez dugu ikusten iaiztik hona neurri berezirik hartu denik", esan zuen. "Aurrekontua, zoritxarrez, penagarria da, baina pentsatzen dugu islatzen dela Elgetako Udalaren benetako egoera. Pentsatzen dugu tokatzen dela gerrikoa asko estutzea eta ikusten dugu kontratu eta zerbitzu kontratu batzuk errebisatzeke gelditu direla".

Udal gobernu taldeko ardura-dunen ezinegona piztu zuen oposizioaren balorazioak eta

iritzi trukaketa sutsua eragin zuen gaiak. Iraitx Lazkano alkateak erantzun zuen murriztu daitezkeen partida guztiak murriztuta daudela. "Ez duzue aurkituko hamar euroko alde egiteko kontratu aldaketa bat. Denak errebisatu ditugu: telefono zerbitzukoak, aseguruak, galdaretakoak, argindarrarenak... Estutzeko egongo litzatekeen aukera bakarra zerbitzuak kentzea izango litzateke, eta talde politikoa honetan ez daukagu horren intentziorik". Gaineratu zuen Elgetako Udala hainbat erakundeko parte dela eta bere obligazioei aurre egin behar diela. Horrekin batera, oposizioa kideei adierazi zien bi hilabetez landu dutela aurrekontu proposamena eta ez dutela Gu Geu Elgeta taldearen aldetik inolako proposamenik jaso. Zentzu berean hitz egin zuen Janire Lazkano zinegotziak: "Iruditzen zait oso erraza dela egin duzuen; etortzea proposamenekin abenduaren 21ean, dena eginda dagoenean. Proposamenak baldin badauzkazue egiteko eta benetan axola bazaizue aurrekontua, eta herritarren dirua,

eta ekonomia... etorri lehenago eta landuko dugu gaia. Beti esan izan dugu horretarako prest gaudela".

**Mozioa eta osoko zuzenketa**

Aurrekontua onartuta, udalbatzako kideek aho batez hartu zuten egiten duten lanagatik udal talde politikoei jasotzen duten ordain-saria erdira jasiteko erabakia. Urtean 1.920 euroko aurrezkiek ekarriko du neurriak. Horrekin batera, Elgetako Udalak Gureak enpresarekin duen hitzarmena beste urtebeterako luzatzeko erabakia hartu zuten udal ordezkariak, hori ere aho batez.

EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa izan zen eguzteneko osoko bilkurako azken puntua. Segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialen erretiratzea eskatzen duen mozioa EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin onartu zuten. Oposizioak osoko zuzenketa aurkeztu zuen, oinarri hartuta gaiaren inguruan Eusko Legebiltzarrean 2013an gehiengo osoz onartutako legez besteko proposamena.



## "Egoerari buelta ematen"

**IRAITX LAZKANO** EH BILDU

"Aurreko agintaldietatik jaso dugun zorreratik (2.000.000 euro pasatxo), 2017rako aurrekontua larrialdi egoerakoa da. Hala ere, kudeaketa ekonomiko ona egin eta hainbat inbertsio egiteko aukera izango dugu, gure proiektu guztiak gauzatu ezingo diren arren.

Oposizioak ez du proposamenik egin bi hilabeteotan, eta, gainera, osoko bilkuran, jubilatuentzako, Goienarentzako eta euskara ikasteko diru laguntzak murriztea aztertzea eskatu du. Guk argi dugu, 2017an ez dugu zerbitzuetan murrizketarik egingo".



## "Tristura ematen du egoerak"

**MIKEL LARREA** GU GEU ELGETA

"Aurrekontuek tristura ematen dute. Agian, Elgetako Udalak bizi duen egoera ekonomikoaren errealitate gordina islatzen dute aurrekontu hauek, baina, gure ikuspuntutik, ez dugu ikusten horrelako egoera gaitzitzeko udal gobernuak ahalegin berezirik egin duenik. Nahiz eta ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuek jada murriztuta diruditen, gerrikoa oraindik gehiago estutu daiteke. Udalak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu sakon aztertu behar dira, haien lehenetsunak finkatuz eta bestelako erakundeei diru laguntzak ematerakoan zuhur jokatzuz. Ez dugu besteen arazo ekonomikoak konpontzeko ahalmenik".

## 'Kalera, kalera' ekimena iragarri dute Urtezahar egunerako

Abenduaren 31rako, presoak kaleratzearen aldeko ekimena iragarri du *Kalera, kalera* dinamika. Elgetako herriko plazan izango da, 19:30ean. Besteak beste, elkarretaratzea egingo dute. *Kalera, kalera* preso ohiek bultzatutako sentsibilizazioerako eta mobilizazioerako ekimena da, preso kolektiboarekiko babesa adierazteko. "Konponbidearen

alde daudenak mobilizatzeko gune bat izan gura du", esan dute. Hainbat ekimen egingo dituzte herririk herri urtarrilaren 8ra bitartean; tartean, Urtezahar egunerako Elgetan antolatutakoa. Ekintza horri dagokionez, deitzaileek jakinarazi dute eguraldiaren arabera egitaraua gertatuko dutela. "Gabon hauetan ere Euskal Herriko ehunka etxetako mahaietan aulki hutsak egongo direla salatzea ere helburu izango dugu", adierazi dute.

## Urteroko bisita Mizpirualdera

Aurten ere San Tomas egunarekin elgetar talde bat Bergarako Mizpirualde egoitzan bizi diren herrikideei bisita egingo izan da. Festa eguna izan ohi dute egoitzan, eta Elgetako alkatearen eta bestelako herritarren bisitaren zain izaten dira bertan. Gaur egun lau elgetar bizi dira Bergarako egoitzan eta gustura jaso zuten herrikideen Gabonetako bisita berezia.





# Olentzerok gaur jasoko ditu umeen gutunak

Egun berezia izango da, gehienbat, herriko neska-mutikoendako; 4, 5 eta 6. mailako ikasleek azoka txikia egingo dute herriko plazan. Olentzeroren bisita ere izango dute. Urtero moduan, Intxortatik Elgetarainoko bidea egingo du iluntzean

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Askotariko ekintzak daude iragarrita hurrengo egunetarako Elgetan. Gaur, Olentzero izango da protagonista nagusia. 18:30 aldera etorriko dela jakinarazi du. Ikazkinak zakukada gozoki ekarriko du Intxortatik asto gainean, eta baliteke aurten bakarrik ez etortzea. Aurretik plaza apaintzeko tailerra antolatu du Udalak herriko neska-mutiko guztiendako.

Herri Eskolan ere egun berezia dute gaur. Jardunaldi trinkoa izango dute Gabonetako oporrak hartu aurretik, eta ikasle nagusienek azoka txikia ipiniko dute, goizean, herriko plazan. 11:30erako jasoko dute, txistor-jana eta Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita espero baitute ikasletxean.

**Herritarren eskulanak ikusgai**

Aipatzekoa da, baita ere, gaur buztin gelan zabalduko duten erakusketa berezia. Herritarrek



Olentzero, iaz, udaletxeko arkupean, haurren gutunak jasotzeko gertu. L.Z.

egindako eskulanak izango dira bertan ikusgai, eta hilaren 28ra arte egongo da bisitatzeko aukera. Askotariko lanak aurkeztu dituzte herritarrek. Erakusketak gaur zabalduko ditu ateak, 16:00etan.

Eta gogorarazi behar da bihar ko gabon eskean parte hartzeko dei egin duela Guraso elkarteak. Taldea 11:00etan abiatuko da Herri Eskolatik. Eguerdian, txorizoa banatuko dute parte-hartzaile guztien artean.

## "Kultura ekintzak antolatzea da gure asmo nagusia"

**XABIER ULAZIA** ESPALOIA KAFE ANTZOKIA

Eibartarrak gaurko iragarri du antzokiaren irekiera jaia

**Txomin Madina / L.Z.** ELGETA

Ekitaldiak 19:30ean hasiko dira. Sarrera doan izango da.

**Zein asmekin zatoz Elgetako kafe antzokira?**

Ostalaritza zerbitzua emango dugu —taberna eta jatetxea—, baina kultura ekintzak antolatzea da gure asmo nagusia. Egunero zabalduko dugu eta ordu-tegi zabalarekin. Berriak gara hemen eta joango gara ikusten zelan funtzionatzen duten herrian. Dagoen beharraren arabera jokatu dugu.

**Gustuko duzu, orduan, kultura ekintzak antolatzea?**

Musikak beti erakarri izan nau asko eta badira urte batzuk kontzertuak, bertso saioak eta askotariko ekitaldiak antolatzen ditudala. Beti izan dut buruan antzoki erako zerbitzu bat eskaintzea. Aukera interesgarria ikusi dut hemen, eta heldu egin diot. Proiektu polita izan daitekeela iruditzen zait.

**Egoera onean aurkitu duzu aretoa?**

Egoera nahiko onean, bai. Narraz ikusi dugu kanpoko horma, eta egokitzen batzuk egin beharko ditugu, baina lau detaile dira. Ikusten da bere garaian inbertsio handia egin zela ekipa eta material aldetik, eta, urte batzuk pasa direla antzematen bada ere, oso egoki dago dena.

**Zer hitzartu duzu Udalarekin?**

Urtebeterako sinatu dut Udalarekin. Proba moduko epea da. Gero, aukera daukat urte urte kontratua luzatzeko, lau urte bete arte. Prozedura berezia izan



Xabier Ulazia. TXOMIN MADINA

da. Egia esan, atentzioa eman dit ze jende gutxi aurkeztu den. Arraroa egin zait.

**Irekiera jai ederra antolatu duzu.** Saiatu naiz, bai. Uste dut kartel txukuna egin dugula lehen mailako bi bertsolariarekin, oso kantari ona den Jon Gurrutzagarekin eta gorantz doan The Vartools taldearekin. —ikus 41. orria—

**Ezagutzen zenituen Elgeta eta Espaloia aurretik?** Txikitan futboleko jokatzera etortzen ginen aitarekin. Oroitzapen oso politak ditut. Espaloira ere behin baino gehiagotan etorri izan naiz. Gidabaimena atera berritan etorri ginen Su Ta Gar ikustera. Bakarrizketak entzuten ere izan naiz.

**Mezu bat bezero izango dituzuei?** Besoak zabalik hartuko ditugula, eta gogoz eta ilusioz etorri garelara. Maitasun osoz hartuko ditugula.

## Pilotako finalak eta sari banaketa Urtezahar egunean

Herri mailako lau t'erdiko binakako pilota txapelketak badi-tu finalistak. Nagusien finalean aurrez aurre izango diren bikoteak dira: Iban Retolaza-Mikel Elkoro eta Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar. Gazteetan, berriz, sailkatutako bi bikoteak dira: Mikel Beretxinaga-Ibon Unzetabarrenetxea eta Andoni Elorza-Oskar Sarasua. Finalerako

txartela eskuratu duten lau bikoteek Urtezahar egunean jokatuko dituzte txapelketako norgehiagoka erabakigarrienak. Lehenengo partidua 11:30ean hasiko dela adierazi dute antolatzaileek. Martxan da, baita ere, neska-mutikoen Gabonetako pilota txapelketa. 21 ume ari dira nor baino nor gehiago. Atzo, eguena, jokatu zituzten lehen jardunaldiko partidak eta urtarriaren 3an jokatuko dituzte bigarrenekoak. Finalak Errege egunean izango dira.

## Gabonetako agenda

### Abenduak 23

- 09:30-11:30, plazan eskolako umeen azoka txikia.
- 16:00, buztin gelan, herritarrek egindako eskulan erakusketaren irekiera. Zabalik hilaren 28ra arte, 10:00etatik 13:00etara.
- 17:00, plazan, apaingarriak egiteko tailerra.
- 18:30, Olentzeroren etorrera.
- 19:30, Espaloian, irekiera jaia. Amets Arzallus, Sustrai Colina, Jon Gurrutzaga (20:15) eta The Vartools (22:30).

### Abenduak 24

- 11:00, eskolatik abiatuta, gabon eskea. Eguerdian, plazan, hamaiketako parte hartu dutenendako.

### Abenduak 25

- 11:00etan, plazatik abiatuta, igoera Intxortara. (Kantsatzeko).

### Abenduak 26

- Goizean, kirol ekintza gaztetxoendako.
- 16:00-20:00, frontoian, haur parkea puzgarriekin. Sarrera: 2,50 euro.

### Abenduak 27

- Goizean, kirol ekintza gaztetxoendako.
- 16:30-18:30, frontoian, haur parkea: zirku eskola.

### Abenduak 28

- Goizean, kirol ekintza nerabeendako.

- 16:00, Ozkarbi elkartearen, erretiratuen tute eta briska txapelketa. (Xalbadorpe)
- 19:00, Espaloian, musika ikasleen Gabonetako emanaldia. (Antolatzailea: Lorea Larrañaga).

### Abenduak 31

- 11:30, frontoian, helduen pilota txapelketako finalak.

### Urtarrilak 3

- 11:00, frontoian, neska-mutikoen pilota txapelketa.

### Urtarrilak 6

- 11:30, frontoian, neska-mutikoen pilota txapelketako finalak.



Herrigunean aparkatzerakoan, makinetan tiketa inprimatzera ohitu beharko dute orain herritarrek. ENEKO AZURMENDI

# Indarrean da sistema berria

Herriguneko "agitazio trafikoa" murrizteko helburua dauka astebete martxan daraman araututako aparkaleku sistemak; Hirigintza zinegotzi Irati Etxeberriak dio oraindik goiz dela baloratzeko, baina, oraingoz, normal ari dela funtzionatzen

## Eneko Azurmendi OÑATI

Pasa den abenduaren 15ean jarri zen martxan araututako aparkaleku sistema berria herriguneko zenbait lekutan, eta herritarrak, oraindik, egokitzen ari dira. Mugikortasun planeko neurri baten garapena da sis-

tema berria. Hirigintza zinegotzi Irati Etxeberriaren esanetan, helburua da herrigunean autoen erabilpena arrazionalizatzea eta ordenatzea. "Landagunee-tako bizilagunendako auzo-taxia eta zenbait auzotatik kalera ibiltzen den herribusa jarri

ditugu martxan, eta errotazio eta bertakoendako plaza hauek herrigunean sortzen den agitazio trafikoa murrizteko helburuarekin sortu ditugu", azpimarratu du.

Hasiera batean, normal funtzionatzen ari dela gaineratu du

zinegotziak. "Lehenengo egunean makinek arazo tekniko batzuk izan zituzten, eta barkamena eskatu beharrean gaude. Hala ere, ordutik hona, normaltasunez doa guztia", dio.

## Bi aparkaleku mota

Bakardadeko Ama, Aita Madina, Aita Mortara, Bidebarrieta, Moxon, Lope Agirre, Portu, Zubibarri eta Ramon Irizar kaleetan dago sistema hori eta bi aparkaleku mota bereizten dira: alde batetik, egoiliarrendako aparkalekuak; eta bestetik, errota-ziokoak.

Egoiliarrendako aparkalekuak BR izenez markatuta daude, eta, bertan aparkatu ahal izateko, bertakoen txartela eduki behar da, urtean 50 euro ordaindu beharrekoa –otsailean zehar pasako zaie kontu korrontetik ordainketa hori egoiliarrei–. Abenduaren 12a ezker, txartel hori eskuratzeko onartu direnen eta onartu ez direnen zerrenda ikusgai dago udaletxeko sarrean, eta onartutakoek txartela bera eskuratu dezakete udaletxean bertan.

Bestalde, ez onartuen zerrendan dauden hainbatek ez dute autoa helbideratuta bizilekuan. Herritar horiek urtarril bukaerara arteko epea izango dute helbideratze tramite horiek egiteko.

Beste aparkalekuak errotazio-koak izango dira, urdinez margotutakoak. Horietan, gehienez, ordubete egongo ahal izango dira aparkatuta autoak. Hori kontrolatzeko, alboan dauden makinetan autoaren matrikula markatu beharko da, ondoren inprimatutako tiketa autoan bertan ezartzeko, ikuskatzaileak ondo ikusteko moduan. Ikuskatzaile lanetan udaltzainak arituko dira. Bertakoen aparkale-

kuak 70 izango dira guztira eta errotazio-koak, berriz, 92.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 13:15era eta 16:00etatik 20:30era egongo da martxan eta zapatuetan, 08:30etik 13:15era. Domeketan aparkatze librea egongo da gunehorietan.

Horrekin lotuta, Etxeberriak gaineratu du ordubete gutxi irudituz gero, bi orduko aparkalekuak plazako eta Kalegoieneko parkingean dituztela herritarrek.

## EAJ, aurka

Araututako aparkaleku sistemaren eta, oro har, horrek dakartzan ondorioen aurka agertu dira hasieratik Oñatiko jeltzaleak. Lourdes Idoiaga EAJko bozeramailearen esanetan, hiru arrazoiz nagusi daude: lehenik, aparkalekuen erabilerearen azterketa sakonik egin gabe dagoelako. "Autoen zirkulazioaren gaineko azterketa batzuk bazeuden, baina aparkalekuen erabilerearen gaineko daturik ez". Bestetik, herrigunea guztiz itxita gelditzen delako. "Herriguneko kaleak oinezkoendako kale bihurtzen dira guztiz eta zirkulazioan ere aldaketak eragin ditu. Bestalde, herriguneko aparkaleku guztiak denboraz mugatutakoak edo zamaletarako erreserbatzen dira eta horrekin aparkaleku asko galtzen dira". Azkenik, ordubete denbora laburra delako. "Guk hasieratik eskatu genuen bi orduko errotazioa, alboko herrietan halako sistemak daudelako eta herriak ere hala eskatzen duelako; kexa asko iritsi zaizkigu ordubete oso gutxi dela esanez".

Azkenik, Idoiak zehaztu du plazako eta Kalegoieneko parkingak "herriguneko periferian" daudela, kaleko kanpoaldean.



**BEATRIZ GEREKA**  
HERRITARRA

"Ideia ona iruditzen zait errotazio aparkalekuena. Hala ere, ordubete beharrean, bi ordu balira, askoz ere hobeto".



**TXUS ARANBURU**  
HERRITARRA

"Niri oso ondo etortzen zait ordubeteko aparkalekuak, zenbait enkargu egiteko. Ordubete, ondo aprobetxatuta, nahikoa da".



**IRUNE CRESPO**  
HERRITARRA

"Ez zait egokia iruditzen. Ordurorok etengabe autoa mugitu behar izaten dut, eta, lanerako, atzera eta aurrera ibiltzen naiz".



**LUIS LOPEZ**  
HERRITARRA

"Sistema egokia da, aparkaleku libreak aurkitzea erraza da eta kaleko erosketak egin ahal izateko, ondo datorkit".



**TXARO LETAMENDI**  
HERRITARRA

"Nik ez daukat autorik, baina lagun batzuk ez daude batere ados bertakoen txartela urtean 50 euro ordaindu beharrearekin".



# Olentzero eta Mari Domingi ere zain daude

Otadui zuhaitzira 17:00etan helduko dira bihar, eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte, Foruen plazaraino. Umeekin egon gura dute eurek ere. Musika eskolako trikitilariak, Haitzondo kuadrillako kideak eta Irazaneokak izango dituzte laguntzaile

## Oihana Elorza OÑATI

Umeek besteko gogoa dute Olentzerok eta Mari Domingik ere Oñatira etorri eta herritarren artean zorientasuna banatzeko. Urduri daude eurak ere, baina eguna eta ordua noiz iritsiko zain, gogotsu umeekin egoteko.

## Laguntzaileekin

Aurreko urteetan egin duten moduan, aurten ere Otadui zuhaitzira joango dira lehenengo eta handik sartuko dira herrigunera. 17:00etan iritsiko dira hara eta hauxe da egingo duten ibilbidea: Kale Zaharra, Foruen plaza, Atzeko kalea, Iturritxo, Kale Barria eta Foruen plaza. Ibilbidean zehar gozokiak banatuko dituzte, eta, behin ibilbidearen amaierara iristean, umeekin egoteko tartea hartuko dute. Umeek aukera izango dute eurekin egon, altzoan eseri, gutuna entregatu edo musu emateko.

Olentzero eta Mari Domingi-erendako oso egun garrantzitsua izango da biharkoa. Laguntzaileak izango dituzte dena behar bezala antolatzeke eta egiteko. Oñatiko Udalak lagunduko die, batetik, eta ondoan izango dituzte Jose de Azpiazu musika eskolako trikitilariak, Haitzondo kuadrillako kideak eta baita



Joan den urtean ere etorri ziren Mari Domingi eta Olentzero Oñatira. GOIENA

Irazan Antzerki Gunean dabilzanak ere. "Olentzero eta Mari Domingi plazara heltzen direnean, adibidez, ziur gaude ume asko egongo direla zain eurekin egoteko, ilaran. Guk lagunduko diegu eurengana hurbiltzen. Gurasoek ere izango dute aukera argazkiak ateratzeko", azaldu du Irazan taldeko Josu Zubiak. Jose de Azpiazu musika eskolakoeurekin batera egingo dute ibilbidea, panderoak eta trikitiak astinduz, eta Haitzondo kuadrillakoak apainketaz arduratuko dira.

## Ludotekan

Oñatiko musika bandak ere atsegin du Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, eta gabon kantak joko dituzte Foruen plazan, 19:00etan.

Bestalde, Gabonetako oporrei eta umei lotuta, egitarau berezia prestatu dute Txaloka ludotekako begiraleek. Hala, datorren astean, hainbat tailer egingo dituzte; Gabonetako eskulanak eta buztzingintza, adibidez. Tailerrak goizez egingo dituzte, 10:30ean, Txaloka ludotekako egoitzan.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

## Donostiako protokoloa

Urtea amaitzen ari zaigu, Gabonak ere iritsi zaizkigu eta horrelakoetan balantze txikiak edo handiak egiteko garaia iristen da. Eta 2016a gurera ekarri duen berezitasunetako bat da Donostiak Europako Kulturaren Hiriburu izendapena jaso izana. Hiriburu izendapen horren barruan antolatutako ekimenak era askotakoak izan dira. Azpimarratzekoa pasa den larunbatean Kursaalera aurkeztu zen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Ziur nago aurrerantzean Donostiako protokoloa munduan zehar entzuten denean hizkuntza eskubideekin lotuko dela. Antzerako zerbait gertatzen zaigu Kiotoko protokoloa entzuten dugunean. Kioto eta protokoloa hitzak elkarren ondoan entzuten ditugunean ingurumenarekin lotzen dugu. Donostiako protokoloak hizkuntza gutxituen eskubideak bermatzeko tresna ezin hobea eskaintzen du. Hori bai, tresna eskaini arren, hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko baliabideak, ekimena, nahia, errespetua, interesa... beharko dira, bestela, paper hutsean gera daiteke protokolo hori eta ez luke ezertarako balioko. A! eta Gabon zorientsuak guztiontzat.

## Batzarkideak "harrituta" gelditu dira harrobiaren proiektuarekin

Mikel Biain alkatea eta Iñaki Usandizaga Arantzazuko auzotarra egon dira Batzar Nagusietan azalpenak ematen

## O.E. OÑATI

Arantzazu Defenda Dezagun plataformaren izenean Iñaki Usandizaga auzotarra eta Oñatiko Udaletik Mikel Biain alkatea, Gipuzkoako Batzar Nagusietan egon ziren martitzenean Gomiztegiko harrobia handitzeke enpresa kudeatzaileak duen proiektuari buruz berba egiten. "Iñakik auzotar moduan egin du berba eta harrobiaren eragina Arantzazu auzoan nola bizi izan duten kontatu du. Nik berriaz, bi txosten eraman ditut: Natura 2000 egitasmoaren mu-

gaketarena bata eta parke naturalarena bestea", azaldu du Mikel Biainek. Alkatearen esanetan, "harriduraz" entzun dute esandakoa: "PP ez beste alderdi guztien aurrean hitz egin dugu biok eta ingurune babestuan horrelako proiektua proposatu izana harriduraz hartu dute".

Martitzenean bilera horretan konpromiso hau hartzeko eskatu diete Usandizagak eta Biainek batzarkideei: gutxieneko puntu batzuk adosteko eta Eusko Jaur-laritzari eskatzeko natur ingurune hori babesteko.

GABON HAUETAN GURE MENUAK  
ZURE ETXEAN IZAN DITZAKEZU



Informa zaitez! ☎ 943 781 306 ✉ restaurante@zelaizabal.com





lazo saskibaloitxo txapelketako finalistak –bi taldeetako ordezkariak-. ALOÑA MENDIKO SASKIBALOI SAILA

# Guztia prest kuadrillen arteko txapelketetarako

Gabonak iristearekin batera, urteroko ekintzak dira areto-futboleko zein saskibaloiko txapelketak eta aurten ere ez dute hutsik egingo; abenduaren 30ean eta 31n izango da saskibaloikoa eta urtarrilaren 6an eta 7an, berriz, areto-futbolekoa

**Eneko Azurmendi** OÑATI

*Kalera, kalera* ekimenak antolatuko du areto-futboleko kuadrillen arteko txapelketa.

Ohikoak ez diren egunetan jokatu da aurten, urtarrilaren 6an eta 7an –egubakoitza eta zapatua–. "Egubakoitz arratsaldean hasiko ditugu partidua eta, izena ematen duten talde kopuruaren arabera, gehiago edo gutxiago luzatuko da gaua. Ondoren, zapatuan, goizez eta arratsaldean izango dira partidua; 20:00etan izango da finala", azaldu du Iñaki Guridi antolakuntzako kideak.

Partiduei dagokien, 20 minutuko bi zatiko partidua izango dira.

Izena emateko aukera Arrano, Boga, Ona eta Ongi tabernetan egongo da, abenduaren 31 bitartean. Talde bakoitzak 30 euro ordaindu beharko du izen-ematea eta, gutxienez, 5 pertsonako taldeak izango dira. Parte hartzeko gutxienezko adina 14 urte izango da.

Bi txapelketa egongo dira, emakumezkoena eta gizonezkoena.

Azkenik, kanporaketak nola gelditu diren azaltzen duen koardoa korreo elektronikoki bidez bidaliko da. Horrez gain, izena emateko tabernetan ere jarriko dira kartelak.

**Saskibaloia, urteroko egunetan**  
Abenduaren 30ean eta 31 goizean izango da saskibaloitxo txapelketa, Aloña Mendiko saskibaloitxo sailak antolatzen duena.

Urtero moduan, lehenengo multzokako fasea jokatu da eta ondoren, final-laurdenak, finalerdia eta finala. "Lehenengo egunean, multzokako faseko partidua eta final-zortzirenak jokatu dira eta bigarrenegun,

**ARETO-FUTBOLEKO TXAPELKETA 30 EURO BALIOKO DU IZEN-EMATEAK ETA SASKIBALOIKOAN, 20**

berri, finalerdia eta finala", adierazi du Iñigo Zabaleta antolakuntzako kideak.

Hemen ere, areto-futboleko bezala, 20 minutuko bi zatiko osatutako partidua izango dira. –lehenengo eguneko partidua denbora gelditu gabe eta bigarreneguneko, denbora geldituta–.

Izena emateko, *alonamendi.saskibaloitxo@gmail.com* helbidera idatzi edota arduradunekin harremanetan jarri beharko da, abenduaren 27a baino lehen. Talde bakoitzak 20 euro ordainduko du izen-ematea eta, gehienez, 20 talde hartu ahal izango dute parte. "Ditugun kantxa ordua kontuan hartuta, ezinezkoa da partidu gehiago sartzea", zehaztu du Zabaleta.

Azken urteetan ohikoa den moduan, hiruko lehiaketa eta zelai erdiko jaurtiketen lehiaketa egongo dira abenduaren 30 arratsaldean. Hiruko lehiaketarako izen-ematea euro bat izango da eta zelai erdiko jaurtiketen lehiaketa, berriz, doan.



ENEKO AZURMENDI

## Gimnasio berria, irekita

Astebete itxia egon ondoren, martitzenean ireki zuten gimnasioa, makina berriekin eta itxura berriarekin.

Makina berriei dagokienez, gehienak indarra eta bihotza lantzeko makinak dira, bost zinta, step bat eta eliptiko bat. Horrez gain, LED argiteria jarri dute eta leihoa konpondu dute.

## Gabonetan atseden hartuko dute herriko kirol taldeak

Gabonetan ez dute kirol jardunlaririk izango herriko taldeak. Saskibaloiko Aloña Mendiri dagokionez, urtarrilaren 15era arte ez dio ekingo berriro ligari. Eskubaloiko bi taldeak ere –emakumezkoak eta gizonezkoak– asteburu horretan dute hurrengo partidua eta futboleko taldeak, berriz, urtarrilaren 8an.

## Aurten ere ez du hutsik egingo San Silvestre lasterketak

Abenduaren 31n, 16:00etan izango da haurren lasterketa eta ondoren, 16:30ean, nagusien –itzuli txiki bat eta bi handi, herriko kaleetan zehar, 7 km–.

Egunean bertan eman beharko da izena, 15:00etatik aurrera.

Sariei dagokienez, lehenengo sailkatuak sarituko dira bakarrik, lehen gizonezkoa eta lehen emakumezkoa. Horrez gain, Gabonetako bost saski zozketatuko dira parte-hartzaileen artean.

Hasi baino lehen, antolakuntzak –Atxintxiketan elkarte– txapelak banatuko ditu, korrika txapela jantzita egin nahi duenarentzat. Bukaeran, berriz, txokolate tableta bana oparituko zaizkie korrikalariari.

## Bihar, zapatua, izango da Gabonetako plater tiroketa, Txopekuan

10:30etik 13:00etara izango da txapelketa, 15 plateretara. Kartutxoak 28 gramokoak izan beharko dira, gehienez. Soilik lehenengo posturako apurtuko da berdinketa. Beste sailkapenak serie onenaren arabera egingo dira, berdinketa egonez gero. Izen-ematea, 20 euro bazkideentzat eta 23 bazkide ez direnentzat.

## Xabi Murgiondo eta Garazi Erostarbe saritu dituzte

Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren rankingean hirugarren postuan amaitu dute denboraldia bai Murgiondok –gazte mailan– baita Erostarbek –kadete mailan– ere.

Murgiondok sekulako denboraldia egin du. Izan ere, lau lasterketa irabazi ditu –Deban, Aizarnazabalen, Mendaron eta Antzuolan, Uzarragan– eta bigarren postuan ere hainbat alditan sailkatu da.

Erostarberi dagokionez, Euskadiko Txapelketan hirugarren sailkatu zen errepidean eta azpi-txapeldun erlojuaren aurka. Gainera, Gipuzkoako txapeldun izan da, bai errepidean baita ziklo-krosean ere.



# "Ameriketara iritsi zen zumaiar kapitain bat Kolonen aurretik"

**JOSE ANTONIO AZPIAZU** HISTORIALARIA

Monografikoak, istorio eta gertakari desberdinak jaso ditu Jose Antonio Azpiazu historialariak 'Hielos y oceanos: Vascos por el mundo' bere azken liburuan

**Miren Arregi** OÑATI

*Hielos y oceanos*: Vascos por el mundo liburu argitaratu du Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak. Hainbat gertakari historiko jaso ditu bertan; kasu praktikoak dira guztiak, monografikoak. Istorio desberdinak. Iaz kaleratutako *Y los vascos se echaron al mar* liburuaren anaia txikia da honako hau. Elkarren baitako Ttarrtalo editorialak argitaratu du liburu. 244 orri ditu eta salgai dago dagoeneko liburu dendetan.

**Zer kontatzen du liburuak?**

Euskaldunek itsasoan eta bereziki izotza egon den tokietan, Ternuan, Islandian, Groenlandian... zer-nolako presentzia izan duten.

**Istorio bitxiak.**

Esaterako, 1903an, oñatiar baten semeak, Julian de Irizarrek, Argentinan izan zuen protagonismoa azaltzen du. Julian de Irizarrek Antartikatik erreskatatu zituen Norvegiako eta Errusiako zientifiko batzuk. Euren itsasontzia izotzetan harrapatuta gelditu zen eta hark erreskatatu zituen, marinar baitzegoen. Europa iparraldeko jende oso garrantzitsua erreskatatu zuen Julian de Irizarrek. Norvegiako erregeak zoriondu zuen, mundu guztiko prentsak islatu zuen... Aita Zubillagakoa zuen, Marteskua baserrikoa.

**Gehiago ere badira...**

Bai; esaterako, 1576 eta 1577 urte bitarteko Ternuan, izotzak harrapatuta gelditu ziren itsasontzien historia. Jende mordoa hil zen, tartean euskal marinelak... Corruedo kapitain baten istorioa jaso du liburuan; izan ere, haren alargunak udaberriarekin batera laguntza bidali zuen Ternuara, jana eta edaria, artean alargun zegoela ez zekielerik, noski.



Jose Antonio Azpiazu liburuarekin. M.A

## "ITSASO NAGUSIETAN NAGUSI ZIREN EUSKAL ARMADAKO ITSASONTZIAK"

**Horren berri, esaterako, nola jakin duzu?**

Valladolideko Chantilleriako artxibategian jaso nuen horren berri. Asko begiratu behar da gutxi aurkitzeko. Oñatin, Tolosan, kostaldeko herrietan eta Valladoliden aurkitu dut dokumentu asko.

**Jaso duzun gertakari zaharrena noizkoa da?**

XVI. mende hasierakoa. Orduan hasi ziren euskaldunak Ternuan, baina ordurako Ingalaterrarekin, Flandriarekin, Frantziarekin... harreman handia zegoen, eta garai hartan ja itsaso nagusietan nagusi ziren euskal armadako itsasontziak.

**Eta berriena?**

1940 inguruan, Pysbe bakailoa konpainiak garrantzi handia izan zuen eta euskaldunak berriz

ere Ternuan sartu ziren. Liburuan, Ternuan bi kanpainatan egon zen mediku donostiar baten testigantza jaso dut. Hark kontatzen du nola zoratzera iristen ziren arrantzaleak...

**Kolonen aurretik Ameriketara joan omen zen euskal kapitain bat...**

Antillasen ibili zen zumaiar kapitain bat Kolon Ameriketara iritsi aurretik; kapitaina eta haren semea hil egin ziren, baina itsasontzia bueltatu egin zen Euskal Herrira. Istorioa konfirmatzen duten dokumentuak bada, baina hori ziurtatzen duen azken dokumentua falta da. Dagoenarekin, baina, ziurtat eman daiteke hori. Simancasko artxibategi baten aurkitu da informazio hori. Liburuan artikulua bat dago gai horren gainekoa, baina ez da nirea, Soraluzeke historialari Jabier Elortzarena baizik.

**Y los vascos se echaron al mar liburuaren ondoren dator hau.**

Bai, haren anaia txikia da hau. Hor jasotzen da euskaldunek zer-nolako garrantzia izan duten itsasoan. Bai arrantza kontuetan, bai garraioan, itsasontziak saltzen... Europan arrantzale eta garraiolaririk onenak ziren. Ternuatik bi gauza oso garrantzitsu ekartzen zituzten: balearen olio, batetik, eta bakailoa, bestetik. Euskaldunak nagusi ziren. Europa guztian saltzen zuten.

**Kolaborazioak ere badira liburuan.** Liburuaren %90 nik idatzitakoa da, baina badira bi kolaborazio. Jose Mari Unsainek egin du kolaborazio bat, Pazifikoari buruzko artikulua bat idatzi du hark. Bestea aipatutakoa, Soraluzeke Jabier Elortzarena da. Esandako moduan, Kolonen aurretik Zumaiako kapitain bat Antillasera iritsi zela defendatzen du berak artikuluan.

## 'Go!azen' saioko protagonistak Oñatiko gaztelekuan izango dira

Zuzen, Elene eta Haizea, Gari eta Mikel izango dira Oñatiko gaztelekuan, 17:00etan eta 19:00etan

**Miren Arregi** OÑATI

ETBko *Go!azen* telesail arrakastatsuko protagonistek ikuskizuna eskainiko dute abenduaren 27an, martitzena, gaztelekuan. Emanaldi bi izango dira, lehenengoa 17:00etan eta bigarrena 19:00etan. Gaztelekuan izango dira Ramon Agirre Zuzen, Paula eta Aitana Etxeberria (Haizea eta Elene), Aritz Mendiola (Gari) eta Markel Gajate (Mikel).

LH eta DBHko ikasleei zuzendutako emanaldia egingo dute *Go!azenkoek*. 6 urtetik beherakoak ezin izango dira sartu, ezta gurasoak ere. Ikuskizuna antzerki eran egingo dute.



Haizea eta Elene. ETB

**8 urte geroago**

2008an estreinatu zen *Go!azen* filmaren eta 2010ean 12 atalez osatutako telesail arrakastatsua- ren ondoren, ETBk telesaila berreskuratu du aurten. Hala,

zortzi urte geroago, berrito ere zabaldu dute Basakabi udalekua, ikasle talde berri bat hartzeko. Oñatin izango diren Haizea eta Elene bikiak, Mikel eta Gari, besteak beste.

## Salgai daude Txokolateixan bertso saiorako sarrerak

Andoni Egaña, Urko Arregi, Oihana Iguaran, Andoni Goitia, Sustrai Colina eta Sebastian Lizaso bertsolariak etorriko dira aurten urteroko Errege bezperako bertso saiora. Oñatiko Bertso Eskolakoak arituko dira gai jartzaile lanetan eta sarrerak salgai daude dagoeneko Txokolateixan.

## 'Lunaticus Circus' abenduaren 30ean, 7 urtetik gorakoendako

Teatro Paraisok *Lunaticus Circus* antzezlan egingo du abenduaren 30ean, Santa Ana antzokian, arratsaldeko bostetan. Belgikako Les Ateliers de la Colline taldearekin elkarlanean sortutako ikuskizuna da, zapi eta hamaika urte bitartekoendako pentsatua. Sarrerak *bibe.me* webgunean eskuratu daitezke.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA  
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA  
**ARKITEKTOAK**

*Era guztietako proiektu arkitektonikoak*

*Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe*

Lazarraga Kalea 3, behea  
20560 Oñati (Gipuzkoa)

661 09 35 00  
645 70 17 52

BULEGOKO  
ORDUTEGIA:

Astelehena  
Osteguna  
Ostirala  
09:00-13:00

Asteartea  
Asteazkena  
15:00-19:00



# "Gabonetatik bueltan gora egin behar dugu"

OIHANA ALDAI OIARTZUN FUTBOL TALDEKO ATEZAINA

**FUTBOLA** Ibarreko hainbat taldetan jokatu eta gero, atezain aretxabaletarra elitera iritsi da. Oiartzunen dago iaztik, eta mailari eusteko borrokan dihardute

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

Oihana Aldaik (Aretxabaleta, 1992) Lehenengo Mailan jokatzeko duen Oiartzunen atea defendatzen du. Bi urte daramatza futbolaren gorenean, bide luzea egin du bertara iristeko, eta gozatzen dabil, nahiz eta talde oiartzuarrak ez dituen klub handien baliabideak. Hilaren 31n Ibarren izango da, Emakumezkoen Gabonetako Futbol Torneoan parte hartzen, Debagoieneko selekzioarekin eta Realarekin batera. Oiartzunek Athletic ordezkatuko du aurtan.

**Zein da Oiartzunera iristeko jarraitu duzun bidea?**

Aretxabaletan, gazte-gaztetan multikirola amaitu eta Kurtzebarrin hasi nintzen futboleant, eta Arizmendirara joan nintzen gero. Hiru urte egin nituen han, eta Batxilergoa hastearekin batera Arrasatera joan nintzen, Mondran jokatzera. Ondoren Eibarrek fitxatu ninduen, eta urte eta erdi egin nuen han, ostera ere Mondrara itzultzea. Mondrarekin mailaz igo ginen, bigarren mailara, baina ikasketak tarteko Donostiara etorri nintzen, eta Añorgaren eskaintza jaso nuen. Aukera polita zen Añorgan jokatzeko, beti izan dutelako talde indartsua, eta iaz maila gorenera igo berria zen Oiartzuneko fitxatu ninduen. **laz, mailari eutsi zion Oiartzuneko; aurtan, larriago zabiltzate.**

Bai, iaz azken minutuetan egindako golei esker puntu mordoa batu genituen, eta horri esker eutsi genion kategoriari. Aurtan, hori falta zaigu, zorte apur bat. **Zelako liga da?**

Badaude talde oso indartsuak: Atletico Madril, Bartzelona, Valentzia... Eta emakumezkoen futbolak geroago eta interes handiagoa pizten duenez, babesleak sartu dira; tartean, Iberdrola. Horri esker, taldeak ondo indartu dira. Guk ere talde txukuna dugu, sailkapenean azken



Oihana Aldai, Oiartzunen elastikoarekin. SANDRA AYALA

## "BABESLEAK SARTU DIRA ETA HORRI ESKER TALDEAK ONDO INDARTU DIRA, BAITA GU ERE"

postuan gaude, baina ez dut uste taldearen benetako mailaren adierazgarri denik. Partidu asko gol bateko aldegatik galdu ditugu, detaile txikiengatik, eta Gabonetatik itzultzerakoan horri eman behar diogu buelta. **Klub handi horiek profesionalismoaren aldeko apustua egin dute, baina Realak ere. Zein da Oiartzunen egoera?**

Kontuan izan behar da Oiartzun herri bateko kluba dela, ezin da besteekin alderatu. Oiartzunen zaleen babes handia dugu, futbol zelaia bete egiten da gure partiduetan, eta klubaren partetik ere babes osoa dugu. Baina garbi dago ez ditugula talde handi horiek dituzten baliabideak.

**Ahalegina, baina, berbera da. Aste barruko entrenamenduak, asteburuetako bidaia luzeak...**

Bai, autobusean bidaia luzeak egiten ditugu. Tenerifera hegaz-

kinez joango gara, ez dagoelako beste modurik [Barre], baina Albacetera, Huelvara, Sevillara... Ordu askotako bidaia dira, eta nekagarria da. Hala ere, taldean oso giro ona dugu, eta oso gustura nabil.

**Eta aste barruan, lanera...**

Bai. Erizain ikasketak amaitu ditut aurtan, eta lanean nabil. Zorionez, lana eta futbola batera ditzaket, eta lana tokatzen zaidan asteburuan lankideek txandak aldatzen dizkirate. Hori bai, ordu askotako bidaia baten ostean goizean goiz lanera joatea... Gogorra egiten da, bai. Baina ni nabil horrela, eta baita gainontzeko taldekideak ere. Batzuk lanean dabiltza, eta beste batzuk ikasten.

**Gabonetako oporraldian zaudete, nahiz eta abenduaren 31n Ibarren izango zareten jokatzeko.**

Ilusio handia egiten dit etxean jokatzeko, urtetan jokatu dudalako Gabonetako torneo horretan, eta oraingoan Oiartzuneko jokatu dut. Oporraldi hauetan, normalean, hainbat lagunarteko jokatzeko ditugu entrenamendu modura, eta Athleticen ordezgu etortzea oso pozgarria da niretako.



AKE TENIS

## Santamas Sariko onenak

**TENISA ETA PADELA** Joan den asteburuan jokatu zituzten AKE Tenis Elkarte lagunek antolatutako Santamas Txapelketako finalak, bai padelean eta baita tenisean ere —erreturakoak dira irabazleak—. Antolatzaileak pozik geratu dira: "Batez ere, emakumeen parte hartzea eta gazteena igo egin direlako eta baita padeleko joko maila ere".



IMANOL SORIANO

## Oñatiko lasterketako irabazleak

**ZIKLO-KROSA** Aloña Mendiko Txirrindularitza Sailaren 50. urteurrenari bukaera borobila eman zioten domekako probarekin —erreturatuak podiumera igo ziren denak—. Zirkuitua iazkoa baino gogorragoa izan zen, baina jendea gustura geratu zen, batez ere, eskaileren nobedadearekin.

**MENDI LASTERKETA**

### Otsailean Antzuolako 8 Miliak egingo dute

Antzuolako mendi lasterketa antolatzen duen taldeak oraindik ez du zehaztu ze egunetarako antolatuko duten kirol hitzordua, baina sare sozialetan baieztatu dute egin egingo dutela, eta otsailean izango dela. Bada, azken urteotan moduan, Antzuolakoa izango da ibarreko mendi lasterketen artean lehena.



Iazko irabazle Alzola. I.SORIANO



# Urtea agurtzeko, han eta hemen, sansilvestreak

**ATLETISMOA** Eskoriatzan eta Aretxabaletan urteko azken lasterketara mozorrotuta joateko eskaera egin dute; Oñatin Bizarzuriren txanotxoak banatzen dituzte eta Bergaran mendiko lasterketako bertsoia egingo dute; Antzuolako 26an izango da

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Ehunka debagoiendarrek korrika eginez agurtuko dute urtea, eta nahikoa lan izango dute ze herriako San Silvestre probatan parte hartu erabakitzen. Denak balio du turroiari lekua egiteko.

**San Esteban krosa, Antzuolan**

Hilaren 26an San Esteban krosa egingo dute Antzuolan. Iaz arrakasta izan zuen lasterketa horrek, eta herriko kuadrilla askotako lagunek hartu zuten esku. Aurtan hiru kategoria egongo dira: 17:30ean, 5-7 urtekoak; 17:45ean, benjaminak, alebinak eta infantilak; eta 18:00etan kadete eta helduak. Dagoeneko amaitu da aurrez izena emateko epea, baina egunean bertan ere (30 min lehenago) izena eman daiteke; hori bai, Ternuak eskaintako material sortaren artean egingo den zozketan ez da dortsal zenbakia sartuko.

**Mozorrotuta bada, hobeto**

Urteko azken egunean, berriz, Eskoriatzan IX. Silbestradie egingo dute, VI. Manuel Muñoz Milia sariarekin batera. Goizean haurren txanda izango da (10:30ean hasita). 17:25ean, berriz, brindisa egingo dute, eta 17:30ean hasiko da lasterketa. 18:00etan, Herriko Plazan jarri-



Iaz, Aretxabaletako helmugan, jai-giroan. GOIENA

ko den luntxarekin amaituko dute hitzordua.

Iaz Aretxabaletan egin zuten lehenengoz lasterketa, eta herrera polita izan zuen, 170 lagunek hartu zuten-eta esku –asko, mozorrotuta-. Bada, Eskoriatzan moduan, Aretxabaletan ere hilaren 31ko San Silvestre proba mozorrotuta joateko eskaera egin dute antolatzaileek (16:45). Goizean Durana kaleko 30. zenbakiko lokalean eman ahal izango da izena (2 euro).

Oñatikoa klasikoetako bat da, *San Silvestre 16 17a*. Urteak

daramatzate lasterketa antolatzen, eta bailarako jendetsuena izan ohi da. Iaz, esaterako, 370 lagunek hartu zuten parte. 16:00etan gazteen txanda izango da, eta 16:30ean nagusiena. Izenematea 3 eurokoa da –16:00ak arte Gaztelekuan–.

Eta Bergaran, azkenik, Peugeot Etormobil Saria, San Silvestre Trail probaren hirugarren edizioa antolatuko du Hankaluzek (12:00etan). Mendi lasterketa formatua izango da, eta aspaldi bete zuten 300 lagunendako kupa.

## Bixente Etxeandia eta Txelisen torneoak, gaztetxoenei zuzenduta

**FUTBOLA** Mondrak 250 gazte batuko ditu hilaren 31n; UDAk futbol eskoletako gaztetxoak jarriko ditu lanean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Gabonak kirol hitzorduz beteta daude, eta horietako batzuk gazteenei zuzendutakoak izango dira. Hala, Mondrak abenduaren 31n egingo du Txelisen omenezko futbol torneoak, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko 16 talde batuko dira, infantil mailakoak: "Guztira 250 jokalarik inguru batuko dira Mojategin. 09:30ean hasiko ditugu partiduak, eta eguerdian amaituko da torneoak, egun horretan arratsaldea ezin dugulako luzatu", adierazi du Ramon Azkaratek.



Gaztetxoak Ibarren, iaz. GOIENA

**Bixente Etxeandia, lau egunez**

UDAk, berriz, gaztetxoagoak batuko ditu abenduaren 26tik 29ra bitartean egingo duen torneoan, Ibarren. Gipuzkoako futbol eskoletako hainbat talde-tako ordezkariak lehiatuko dira:

Aloña Mendi, Mondra, Bergara eta Elbar.

Hala, abenduaren 26an hasiko dute txapelketa –partidu guztiak arratsaldean izango dira–. Eta, faseak gainditu ostean, hilaren 29an jokatuko dituzte finalak.

## FUTBOLA Gabonetako Emakumeen Torneoak, 30ean eta 31n

Abenduaren 30ean eta 31n jokatuko dute emakumezkoen futbol txapelketa, Ibarra futbol zelaian. Hilaren 30ean maila txikiak taldeak ibiliko dira lehian, eta 31n seniorren txanda izango da. Aurtan Athletic-ek jokatuko beharrez Oartzuneko jokatuko du Realarekin eta Debagoieneko selekzioarekin hiru talderen arteko torneoak.

## SASKIBALOA Ointxe!-k Hiruko Torneoak antolatu du 26rako

Aurtan ez dute gazte mailako Gabonetako saskibaloitza torneoak antolatuko Iturripen, baina klubeko gazteendako saskibaloia izango da. Abenduaren 26an, goizez, hiruko txapelketa egingo dute benjaminekin eta alebinekin. Eta, arratsaldean infantil mailako txapelketa jokatuko dute MUKoek, Beasaingo eta Zarauzkoekin batera.

## Abenduaren 30ean, 'Ikusbera' aldizkaria etxean

Datorren astean, abenduaren 30ean, *Ikusbera* aldizkaria jasoko dute Goiena Klubeko bazkideek. Etxeko txikienentzako jolasak, marrazkiak, eta abar jasotzen ditu.

Eta 2017an, *Puntua* aldizkarian, *Ikusbera* aldizkariak dakarren moduko txikienentzako jolasak, marrazkiak eta gisako edukiak jasoko dira, *Handitzen*, *handitzen* atalean.

2017an *Puntua* etxean jaso nahi baduzu, egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide. 55 euro dira bakarrik eta beste hainbat abantaila izango dituzu: zozketan parte hartzeko aukera, deskontuak...

Deitu: 943 25 05 05



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



Benito Lertxundi emanaldi batean. IÑAKI GARAIZABAL

# "Hasiberriei, euren taupadei kasu egiteko aholkatu nieke"

**BENITO LERTXUNDI** MUSIKARIA

Bederatzi musikari alboan dituela kontzertua egingo du Benito Lertxundik Amaia antzokian gaur, egubakoitza, 19:30ean. Sarrerarik ez dago; aspaldi agortu ziren

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Orokorrean, plaza guztiak gus-tuko dituela dio, eta gogotsu datorrela gaur Arrasatera. Au-rreko emanaldietako oroitzapen onak dituen arren, kontzertu bakoitzaren aurretik saioak ze-lako zaporea utziko duen zalan-tza izaten duela aitortzen du. **Segituan agortu ziren sarrerak.** Gure ibilbidea diseinatzen du-gunean, gogoan izaten dugu bi-dean zehar zoazenean sumatzen dituzun gauzak, eta nik inguru horretan sumatzen nuen horre-

lako gogo edo irrika bat bazela. Geroago, publikoaren erantzuna ikusten duzunean, ikusten duzu sarritan aurrez dituzun pertzep-zio horiek betetzen direla. **50 urte egin dituzu agertokian, bai-na, bogan zaude oraindik.**

**"EZ DIOT SEKULA KASURIK EGIN MODAN DAGOENARI; NIRE URRATSEI JARRAITU IZAN DIET BETI"**

Zorionez, ez naiz sekula moda-ren atzetik ibili, eta konturatu-ta nago gauzen atzetik ibiltzen ez zarenean askotan gauza horiek zuregana etortzen direla geroa-go. Ez diot sekula kasurik egin modan dagoenari edo une ho-rretan datozen zein uhin berriei; nire urratsei jarraitu izan diet beti. Era berean, esango nuke bila ez ibiltze horrek gero zure ekimenean nolabaiteko iraupe-na duen zerbait sortzen duela. **Belaunaldiak batzen dituzu; asko-tariko adinetako zaleak dituzu.**

50 urte egin ditut dagoeneko taularen gainean, eta ezinbestean aldatu da nire publikoa; hasie-rako publikotik jende asko falta da, eta, zorionez, belaunaldi gazteak gehitu dira.

**Zein da gazteendako oraindik edan-garria den produktua egiteko duzun sekretua?**

Ez dut sekreturik; izan ere, kon-trakoa adieraziz gero, praktikan jartzeko formula bat dudala ai-tortu beharko nuke; eta ez da horrela. Nolabait esateko, nire arnasa edo egiteko modua da. Norbaiti aholkua eman behar banio -eta oso ausarta izango litzateke norbaiti aholkua ema-tea, kontu honetan ez duelako inork errezeta jakinik-, esango nioke bere taupada propioari, bere senak dioena esan edo egi-teko; gehiegi kalkulatu barik arrakasta izango duen edo ez. Egiten duzun horrek zu zeu kon-bentzitzen bazaitu, besteendako ere baliagarria izango da, segu-ru. Azken finean, erreferentzia norbera da.

**Urteekin eskamak kendu dituzula diozu, eta gaur egun gusturago sentitzen zarela taularen gainean.**

Hala da, bai. Nire izaeraren be-rezitasun bat da oso zorrotza naizela nire buruarekin, nahiko bihurria naiz nire burua asetzen. Horregatik, sarritan gertatu zait kontzertua bukatu eta haserre joan naizela etxera, ez zaizkida-lako gauzak gura moduan atera. Sentimendu edo haserre hori, duda barik, gasolina izan da hurrengoan hobeto egiten saia-tzeko. Gaur egun pasatzen zait, zerbait nire gustura irten ez bada, hurrengo kontzertua hasi aurretik nire buruari "gaur bai" esaten diot, eta jaioberri bat banintz moduan ateratzen naiz taularen gainera. Horrek guztiak eraman nau, urteen poderioz... ez naiz sekula horren ondo senti-tu. Nire egoitza naturala bila-katu da agertokia. Oso libre, aske sentitzen naiz egoera ho-rretan, eta horrek baldintzatzen du ziurragoa edo egiazkoa izatea. Gaur egun osatuago nago lan-bide horretan.

**Publikoak izan du eraginik segur-tasun hori hartzeko orduan?**

**"OSATUAGO NAGO, GAUR EGUN, LANBIDE HONETAN; NIRE EGOITZA NATURALA DA AGERTOKIA"**

Publikoak segituan nabaritzen du zelan zauden; edozer gauza pasatzen dela ikaragarriko per-tzepzio zorrotza du publikoak hura igartzeko edo sumatzeko. Publikoak artistaren momentu psikologikoa nabaritzeko gaita-sun oso fina du.

**Publikoak, sarritan, emanaldian gustura dagoen edo ez, musikariak aukeratu duen erreperitorioaren arabera adierazten du. Nola duzue markatuta gaurko kantu-zerrenda?**

Kontzertua non den -zein herri edo aretotan- ez dut nik, norma-lean, aintzat izaten. Amaia ant-zokian, kantu berriak eta zaha-rrak bateratuko ditugu bi ordu eta erdi inguruko iraupena izango duen emanaldian. Dis-kora eraman aurretik gustatzen zait lehenago publikoaren au-rrean probatzea kantu berriak. Emanaldietan hazi egiten dira kantuak eta hartu behar duten espiritua hartzen dute. Kantuek euren bizitza propioa dute; eta hori ikaragarri gustatzen zait. Zazpi edo zortzi bat kantu berri eramango ditut. Era berean, badakit jende asko ezagutzen dituen kantuekin baldintzatuta joaten dela; eta esperientzia hori niretako oso garrantzitsua denez, kantu zahar edo ezagunendako ere tokia egin dugu zerrendan. **Hamazazpi disko dituzu; Oroime-naren Oraina (2012) azkena. kantuak badituzenez, disko berria laster?**

Grabatzeko moduan nago, bai, baina ez dut presa handirik. Mamitu, osatu, gura ditut orain-dik; bazter askotako hautsa har dezatela gurako nuke, eta arna-sa moduan ateratzen direnean izango dira kantuak, nire ustez, grabatzeko modukoak.

**Data zehatz barik, orduan; hori da zure lan egiteko modua gaur egun?** Bai; gero eta gehiago, gainera. **2016. urtea amaitzen ari da. Nola joan zaizu?**

Ongi, aspektu guztietan. Bizitza ahalik eta pausatuen izatea gustatzen zait, gauzei lasai be-giratzeko astia izatea. Horrek ez du zerikusirik jendeak aipa-tzen dituen zorion eta zoritxa-rrekin. Zorionak su artifizialak direla iruditzen zait, oso erraz pasatzen direnak.

**Eta zer eskatuko diozu berriari?**

Eskatu, ez dut ezer eskatzen; lehen esan bezala, gauzen bila joanez gero, urrundu egiten da. Garrantzitsua da, niretako, adi-menak duen gauzak egiteko ahalmen horri bidea ematea; eta horretan saiatuko naiz.



# Amaia antzokiko 'hall'-a, kontzertu areto berriz

Texasko Micah P. Hinson eta Izaro, euskal talde berria, zuzenean ikusteko aukera izango da abenduaren 29an, 20:00etan. Sarrerak dagoeneko salgai daude, zazpi eurotan, *Arrasate.eus* Arrasateko Udalaren atarian eta Amaia antzokiko leihatilan

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat udalekin elkarlanean -tartean Arrasateko Udala- sustatzen duen musika programa da Gaztemaniak. Helburua da eskaintza komertzialaren interresgunetik kanpo geratzen diren korrante artistikoetako taldeak zuzenean eta sarrera merke baten truke ikusteko aukera eskaintzea. Era berean, euskal musikariei kontzertu horietan *telonero* moduan parte hartzeko aukera ematea bultzatzen du ekimenak, bereziki, musikari hasiberriei lekua eginda.

**Micah P. Hinson** amerikarra Indie estiloko Leonard Cohen dela diote adituek; guztiz ezezaguna izatetik, gaur egun, kultuzko ikono bihurtu dena. Folk-rock klasikotik dator, baina bere belaunaldikoek duten ezinonari eta soseguari buruzko ikuspegia du. Era berean, bere bizitzako pasarte biografikoek eragin handia dute bere sorkuntzan: espetxetako egonaldia eta drogekin arazoak, horien artean. Adituen esanetan, horiek ematen diote izaera katartikoa Hinsonen konposizioei, baina, oinazeak atzean utzi ondoren, izaera askatzailea dute haren zuzenekoek, orain.



Izaro, Eskoriatzako Inkernu tabernan egin zuen kontzertuan. IMANOL SORIANO

Iazko maiatzean argitaratu zuen *Broken Arrows*, zortzigarren lana, psikodelia eta western estiloak batzen dituena; hala ere, bilduma berria ateratzeko moduan da laster.

## Izaro, hirukote formatuan

Orain dela bi urte gitarra bere kabuz jotzen ikasi zuen Izaro Andres Zelaietak (Mallabia, 1993). Jolas moduan Youtubera igo zuen *Paradise* kantuen bideoak ikaragarriko harrera izan zuen, eta horrek eman zion musikan jarraitzeko indarra. Melodiko-

ki gozoak dira Izaroren kantuak, baina, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez kantatutako hitz gaziekin osatutakoak.

Ane Bastida, Iker Lauroba eta Oriol Floresekin batera, *OM* diskoa kaleratu zuen irailean. "Hirukote formatuan joko ditugu diskoko kantuak. Pozik eta gogotsu gaude. Irrikan nago Micah P. Hinson ezagutzeko; kutsu berezia du. Pertsonalki oso aberasgarria iruditzen zait nazioarteko artistekin ere jotzea. Ea zer topatzen dugun!", dio Izaro musikariak.

ohia) hartuko du lekukoa, eta ibilbideko kantuen bilduma eskainiko du bakarkako saio akustikoan. Gurrutzagaren emanaldia bukatutakoan, Espaloiko kudeatzaile berriek luntxa eskainiko diete bertaratutakoei. Ekitaldia borobiltzeko, 22:30etan hasita, Eibarko The Vartools boskotearen rock-and-roll indartsua nagusituko dira antzokian.

Horiek gaurko asmoak; hala ere, Ulaziak aurreratu du abenduaren 30ean Nevada Rock talde bizkaitarra ekarriko dutela.

## Kultura eskaintza zabala eta berria, Espaloia kafe antzokian

Bertsolariak, kontzertuak eta luntxa izango dira gaur 19:30ean hasita egingo duten inaugurazio ekitaldian

### A. A. ELGETA

Elgetako Udalak azaroan abiarazitako prozedura negoziatuak bere bidea egin du; Xabier Ulazia eibartarra izango da, aurreantzean, Espaloia Kafe antzokia kudeatuko duena (ikus 33.orria).

### Jon Gurrutzaga eta Vartools

Sustrai Colinak eta Amets Arzallusek bertsotan zabalduko dute inaugurazioko egitaraua 19:30ean. Ondoren, Elgoibarko Jon Gurrutzaga musikariak (Arima Beltza taldeko abeslari

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira abenduko saridunak. ZORIONAK!

#### TELEBISTA

Juan Ignacio Blain Uribarren (Arrasate)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Trini Blazquez Diaz (Oñati)

#### 'LEPOAN HARTU' LIBURUA

Alazne Inza Araiztegi (Oñati)

Maitane Gomez Anduaga (Bergara)

Gotzon Osinaga Uriarte (Oñati)

#### ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA

Anparo Irizar Beiztegi (Arrasate)

Leire Zenigaonandia Muruamendi (Arrasate)

Maite Larrañaga Olabarria (Bergara)

#### BENITO LERTXUNDIREN BINA SARRERA

Mariipi Laskurain Iturbe (Bergara)

#### BASKONIA-GALATASARAY / BASKONIA-DARUSAFKA BINA SARRERA

Patxi Bengoa Arana (Arrasate)

Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara)

Amaia Otadui Arana (Arrasate)

Miren Arana Gallastegi (Aretxabaleta).

M. Pilar Aranburu Latorre (Bergara)

Mertxe Kalparsoro Estelbar (Aramaio)

Iñaki Ugarteburu Artamendi (Elgeta)

Amaia Irizar Sainz (Aramaio)

#### BASKONIA-FC BARCELONA BINA SARRERA

Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

Ione Moñux Arantzeta (Bergara)

Gregorio Kortabarria Balanzategi (Arrasate)

Begoña Zabaleta (Oñati)

#### BASKONIA-MACCABI BINA SARRERA

Luis Elexpuru Unzueta (Aramaio)

Felipe Aranzabal Altuna (Bergara)

Andoni Elkoro Manzidor (Bergara)

Iker Altuna Arenaza (Aretxabaleta)

#### BASKONIA-UNICS KAZAN BINA SARRERA

Imanol Garmendia Zabalo (Antzuola)

Maria Gardoki Legorburu (Oñati)

Maria Lazkano Balanzategi (Arrasate)

Ruth Osinaga Zubiaga (Arrasate)

#### ARRASATEKO BERTSO JAIALDIRAKO BINA SARRERA

Iñaki Beristain Askasibar (Elgeta)

Idurre Otxoa Oianguren (Arrasate)

Itsaso Lazpiur Ibarzabal (Bergara)

#### TXIKILANDIARAKO BONUA

Justina Iñarra Mazmela (Arrasate)

Miren Arregi Zuazubiskar (Arrasate)

Ruben Horrillo Corral (Arrasate)

Ganix Garcia Sanchez (Arrasate)

#### DEBAGOIENKO JATETXETARAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Ane Zangitua Juaristi (Bergara)

Jokin Larrañaga (Oñati)

Arantxa Zeziaga Mondragon (Arrasate)

#### EUSKAL SELEKZIOAREN EKIPAMENDUA

Elena Rodrigo Provedo (Arrasate)

Gurutzte Gomez (Aretxabaleta)

Jose Mari Ugarte Alostui (Oñati)

#### MARI KIXKUR • OIHAN VEGA • MOBY DICK • MAMI LEBRUN • ITUIÑO SARRERAK

Raul Fernandez Manchado (Arrasate)

Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)

Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)

Iñaki Martinez Busteros (Arrasate)

Igor Larrañaga Ortueta (Aretxabaleta)

Amaia Arana Beitia (Arrasate)

#### PARTE HARTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI, 943 08 20 00. Orduetgia Ssteartetik lgandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Sari nagusia edo liburua** jasotzeko zatoz GOIENAREN egoitzara abenduaren 26 eta 27an edo urtarilaren 2tik aurrera. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera eman beharko da. GOIENA Otarloa Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Orduetgia: Astelehenerik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2016 + 2017 osoa: 55 euro.

Deitu: 943 25 05 05. [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**<sup>™</sup>

Euskara irabazle, denok irabazle!

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Oñatiko gimnastak**

Oñatiko Aloña Mendiko gimnasia erritmiko taldeko partaideek Gabonetako ikuskizuna egin zuten martitzenean Zubikoa kiroldegiko kantxa berdean. Arazo txiki batzuk izan zituzten musikarekin, baina horrek ez zuen festa zapuztu. Gimnastak, entrenatzaileak eta gurasoak pozik egon ziren eta pozik joan ziren bueltan etxera.

**2. Gabonetako kontzertua Bergaran**

Bergarako Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak, Orfeoia eta Orfeoi Gazteak eta Musika Eskolak urteroko Gabon kontzertua egin zuten zapatuan. Emanaldiak ez zituen epel utzi frontoiko harmailak bete zituzten ikusleak. Gabonei ongietorria emateko soinu banda ederra osatu zuten 200etik gora musikari eta abeslarik.

**3. Loramendiren Argazkizkiak**

Argazkizkiak lehiaketaren sariak banatu berri ditu Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak, eta irabazlea Martin Antxia aretxabaletarra izan zen narrazio batekin. Bigarren saria Aiora Padillak jaso zuen eta hirugarrena, Aitor Bengoak; biek ala biek bertsoak aurkeztu zituzten. Aurtengo gaia beldurra izan da.

**4. Goienagusikoak Nafarroan**

Goienagusi elkarteko kideak Iruñean izan dira eta Nafarroako Parlamentua ikusi dute. Parlamentuko presidente Ainhoa Aznarez antzuolarrarekin egoteko aukera ere izan zuten, gainera, eta talde argazkia atera zuten harekin Parlamentuan bertan. Ondo aprobetxatu zuten Iruñera egindako irteera.



## #DIOTENEZ

**ARTZAINAK NY-N**

Urbiako **fondaz** arduratzen direnak New Yorkera joan dira **oporretan** aurtengo udazkenean. Azaroan hartu dituzte aurten ere oporrak eta hara joan dira. **Bigarren**ez, gainera. AEBetako **hauteskundeak** parean tokatu zaizkie eta bertatik bertara bizi izan dituzte. **Trumpen** aurkako **manifestazioak** ere ikusi dituzte eta ez ziren urruti ibili **oñatiarrak**, gertutik jarraitu zituzten.

**ARDOA**

Arrasateko Santamas **Krosean** parte hartu duten **korrikalariak** botila ardo banarekin bueltatu dira etxera aurten ere, baina iazko ardoa **hobea** ei zen.

**AUTOA**

Auto bat dago **Epeleko igoeran**, N-636 errepidean, bazter batean, zepoa jarrita. Badira hiru bat **hilabete** han dagoela. Abuztua edo iraila ezker. Kristalen bat hautsita ere bai.

**SARITUA**

Arrasateko **Aritz Gordo** argazkilaria sariak jaso eta jaso ari da azkenaldian. Ez da modurik txarrena urteari amaiera emateko. Duela egun gutxi, esaterako, **Valladoliden** egon da, hango kirol argazki lehiaketan irabazi duen saria jasotzen. **Zegama-Aizkorri** mendi lasterketako koloretako argazki batek eman dio laugarren saria. **Aritz Egea** ageri da argazkian **Sancti Spiritu** gunean,

aldapan gora eta zaleen animoak jasotzen. Hilaren 15ean, berriz, Aldundiak emandako **Gipuzkoako** kirol argazkien lehiaketako bigarren saria eskuratu zuen. Argazki hori zuri-beltzean dago eta **Jon Idiakez San Pedro** motor gidaria ikusten da, lokatz artean eta lurretik oso gertu.

**GAILURRA**

**Aizkorriko** puntan izan ziren ETBko **Gailurra** mendi saioa egiten

dutenak eguaztenean. **Andoni Aizpuruk** eta **Irati Andak** herritarrak izaten dituzte bidelagun mendiko gailurrerako bidean, eta horrelaxe izan da orain ere. Batetik, **Aizkorri Bizirik** ekimeneko **Jose Mari Anduaga**, **Gaizka De Miguel** eta **Isi Caballero** debagoiendarrak. Eta bestetik, **Jaxinto Lizarralde** oñatiarra, makina bat aldiz Aizkorriara igotakoa. Datorren urtean **emitituko** dute programa hori.





5



6



7

### 5. Aretxabaletako musikariak gazteak

Aretxabaletako Leizarra musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskaini zieten herritarrei martitzenean. Herriko Plazako karpa bete egin zen ikasleen kantuekin gozatzeko. Abesbatza txikiak, pandero jotzaileek, tronpa ikasleek, biolin jotzaileek eta hainbat instrumentutako ikasleek hartu zuten parte.

### 6. Herritarrek modelo

Aretxabaletako Aretxarte merkatarie elkarteak neguko desfilea egin du Herriko Plazan jarritako karpan. Herriko merkatariei laguntzeko eta ondo pasatzeko helburuarekin, 50 lagunek jardun dute modelo lanetan alfombra gorriaren gainean. Karpa lepo bete duten ikusleak ere gustura, modeloak animatzen eta txalotzen.

### 7. Tenisean eta padelean Arrasaten

Guztira 80 bat lagunek parte hartu dute aurten Arrasateko santamasetako tenis eta padel txapelketan, eta AKE tenis elkarteak "positiboki" baloratu du edizioa, batez ere, "emakumeen parte-hartzea eta gazteena igo egin direlako, baita padeleko joko maila ere". Padel txapelketako finaleko azken puntua ikusgarria izan zen.



8

### 8. Carmelo eta M. Carmen

Bergarako Carmelo San Torcuatok eta M. Carmen Perezek 60 urte beteko dituzte ezkondata, abenduaren 29an. "Zorionik beroenak eta musu handi bana familia osoaren partetik eta oso ondo ospatu dezazuela egun berezi hau".



8

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

#### Posta elektronikoa

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

#### Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkariartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**  
Egubakoitza, 23 ESPANOL MORALES  
Zapatua, 24 RUIZ  
Domeka, 25 ETXEBERRIA  
Astelehena, 26 ALBERTO AZKOAGA  
Martitzena, 27 M. FCA. AZKOAGA  
Eguaztena, 28 CORCUERA  
Eguena, 29 IRIZAR

**BERGARA**  
Egubakoitza, 23 ALVAREZ-MOZOS  
Zapatua, 24 URRUTIKOETXEA  
Domeka, 25 URRUTIKOETXEA  
Astelehena, 26 ZABALA  
Martitzena, 27 OIARBIDE  
Eguaztena, 28 ESTELLA  
Eguena, 29 ALVAREZ-MOZOS

**OÑATI**  
Egubakoitza, 23 IGARTUA  
Zapatua, 24 ANDUAGA  
Domeka, 25 ANDUAGA  
Astelehena, 26 GARATE  
Martitzena, 27 GARATE  
Eguaztena, 28 JULDAIN  
Eguena, 29 JULDAIN

**ARRASATE**  
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09  
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30  
ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15  
M. FCA. AZKOAGA: Iturritz 17 / 943 79 79 99  
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri kalea 1 / 943 79 22 26  
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39  
AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74  
ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

**BERGARA**  
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05  
ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63  
MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
URRUTIKOETXEA: Oñondo plaza 4 / 943 76 11 74  
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

**OÑATI**  
ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28  
Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2016ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofijipuzkoa.com](http://www.cofijipuzkoa.com)).

## HILDAKOAK

**Francisco Gomez Gomez.** Eskoriatzan, abenduaren 14an. 70 urte.

**Severino Del Mazo Hinojal.** Aretxabaletan, 15ean. 88 urte.

**Maria Esperanza Murgoitio Pildain.** Arrasaten, 15ean. 84 urte.

**Inazio Gabilondo Mugertza.** Arrasaten, 15ean. 84 urte.

**Julio Valle Ortiz.** Arrasaten, abenduaren 16an. 83 urte.

**Ixabel Belar Olabarria.** Bergaran, abenduaren 16an. 102 urte.

**Maria Osa Altzibar.** Oñatin, abenduaren 16an. 92 urte.

**Teodora Atorrasagasti Gantxegi.** Bergaran, 21ean. 90 urte.

**Angel Osa Unamuno.** Bergaran, abenduaren 21ean. 86 urte.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



maribi 617 44 21 55  
**BERGARA**

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

**Goiena: irakurriena Debagoienan.**





## ZORION AGURRAK



ONATI  
**Ilargi Markuleta Kortajarena**  
Urtarrilaren 2an, 3 urte. Zorionak, bihotza, etxeko danon partetik. Askok maite zaitugu. Patxo potolo bat.



BERGARA  
**Paule Sanchez Eguren**  
Urtarrilaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Paule!



BERGARA  
**Marisa Escobar Miranda**  
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama Marisa! Egun polita pasatzea opa dotsugu. Eskerrik asko beti gurekin egoteagatik. Askok maite zaitugu. Muxu handi bat Alaineren eta Kenarren partetik.



ARETXABALETA  
**Nahia Oianguren Lopez de Lapuente**  
Abenduaren 31n, 6 urte. Zorionak, Nahia! Oso ondo pasatu eguna. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ANTZUOLA  
**Irati Aranguren Quintana**  
Abenduaren 31n, 8 urte. Zorionak, Irati! Heldu da eguna! Zortzi urte, maiz! Ondo ospatu, familia guztiaren eta, bereziki, Maialenen muxu handi bat. Muak!



LOS ARCOS  
**Iker Figueroa Garcia**  
Abenduaren 30ean, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat aitita-amamen eta lehenegusuen partetik!



ARRASATE  
**Enara Balantzategi Eiro**  
Abenduaren 30ean, 3 urte. Zorionak, *bitxo!* Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ANTZUOLA  
**Iraia Arenaza Perez**  
Abenduaren 29an, 6 urte. Zorionak, Janireren, amatxoren eta aitaxoren partetik. Ondo pasatu eguna!



ARRASATE  
**Jose Maria Oianguren**  
Abenduaren 28an, 64 urte. Zorionak, aitaitxa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo potolo bat familia guztiaren eta, batez ere, Izarren eta Unaxen partetik! Askok maite zaitugu!



ONATI  
**Eneko Aranburu Onaindia**  
Abenduaren 27an, 11 urte. Zorionak, *txikitin!*



BERGARA  
**Julene Garcia Mujika**  
Abenduaren 27an, 3 urte. Zorionak, Julene! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat, etxeko danon partetik. Aitaxo, amatxo eta Aner!



ARRASATE  
**Eider Iturralde Rubio**  
Abenduaren 25ean, 11 urte. Zorionak, Eider! Ondo pasatu zure eguna. Amatxoren eta familia osoaren partetik. Muxu bat. Askok maite zaitugu!



ARAMAIO  
**Ihintza Arana Barrios**  
Abenduaren 25ean, 5 urte jada! A ze opari ederra Olenzerok ekarri ziguna! Marrubizko eta txokolatetzko muxuak: Uxue, Amaieur, Goiatz. eta Jauritxikitik.



ARRASATE  
**Izaro Morales Murgia**  
Abenduaren 25ean, 3 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Hodeiren partetik.



ARETXABALETA  
**Egoitz eta Izadi Zabala Cabero**  
Abenduaren 24an, 4 urte. Zorionak, *guapisimos!* Heldu da zuen eguna! Oso ondo pasatu Gabon egunian! Segi horren alai eta sinpatiko; ez ahaztu inoiz! Muxu asko: Haizea, amatxo eta aitaxo.



ONATI  
**Eñaut Zubizarreta Iñarra**  
Abenduaren 24an, 3 urte. Zorionak, poxpolin! 3 urte! Patxo potolo bat etxeko danon partetik. Segi irripar politt horrekin etxekoak pozten!



ARRASATE  
**Beñat Velasco Gomez Iñarra**  
Abenduaren 23an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasatu zure eguna. Jarraitu gure bizitza alaitzen! Maite zaitugu. Patxo handi bat etxeko partetik.



BERGARA  
**Aitor Beistegi Frias**  
Abenduaren 23an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, Aitor! Jaso lau mila miloi patxo familia guztiaren eta, bereziki, anaiaren eta lehengusu-lehengusinen partetik.



ESKORIATZA  
**Jon Cabello Garcia**  
Abenduaren 23an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Heldu da zure eguna. Muxu handi bat denok partetik. Segi horrela. Askok maite zaitugu, Jon! Ondo pasatu!



ARRASATE  
**Ametz Zulueta Algorta**  
Abenduaren 22an, 8 urte. Geure Anbotoko damarentzako zorionak eta moso handi bat!



BEASAIN  
**Anne Gorostidi Alonso**  
Abenduaren 22an, 10 urte. Amamaren, izebaren eta osabaren partetik, zorionak eta patxo handi bat!



ARETXABALETA  
**Danel Lizarazu Altube**  
Zorionak, Danel! Urtetxoa bete duzu!! Jarraitu beti bezain alai izaten! Patxo handi bat aitaxoren, amatxoren eta familia osoaren partetik!



ANTZUOLA  
**Maddi Iturbe Gabiria**  
Abenduaren 21ean, 6 urte. Zorionak, printzesa, Noaren eta etxeko guztien partetik. Egun ona pasatu. Muxu potolo bat!



ARETXABALETA  
**Gari eta Oihan Hernandez Urzelai**  
Abenduaren 20an, 6 urte. Zorionak, bikote! Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Izarren partetik.



ONATI  
**Izar Diaz Agirregabiria**  
Abenduaren 20an, 4 urte. Zorionak, Izar! 4 urte! Patxo handi bat, familia danaren partetik.



ONATI  
**Beñat Arana Urtzelai**  
Abenduaren 19an, 7 urte. Zorionak, Beñat! Pozik ospatu zure eguna! Besarkada bat Unaxen eta etxeko guztien partetik!



ONATI  
**Eider Galdos Pombar**  
Abenduaren 17an, 4 urte. Zorionak, *pitxitik!* Gustora ospatuko zure urtebetetzia! Besarkada handi bat etxekuen partetik! Muxu!



ARETXABALETA  
**Yoel Prieto**  
Abenduaren 17an, 5 urte. Zorionak, Yoel! Jarraitu gure bizitza alaitzen eta behar dan bezala ospatu familiarekin eta lagunekin.



ONATI  
**Garazi Martins Lera**  
Abenduaren 15ean, 2 urte. Zorionak, Garazi! Muxu pila bat etxeko danen partetik. Oso ondo ospatu zure bigarren urtebetetzea!



BERGARA  
**Lier Bardezi Kerejeta**  
Abenduaren 14an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Askok maite zaitugu: Malen, aitaxo eta amatxo. Patxo handi-handi bat. Mua!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak urtarrilaren 5eko alean argitaratuko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 23

**ELGETA Gabonak Herri Eskolan**  
09:30ean San Tomas azoka txikia;  
10:30ean txorizo-jana; eta,  
11:30ean harrera Olentzerori eta  
Mari Domingiri.  
*Herri Eskolan, aipatutako  
orduetan.*

**ESKORIATZA Bilboko PINera**  
8 urtetik gorako haurrendako.  
Itzulerako autobusa 19:00etan,  
Bilbotik.  
*Ludotekan, 10:00etan.*

**OÑATI Olentzero ikastetxeetan**  
Elkar Hezin, 10:00etan  
haurtzaindegian eta 10:30ean  
aretoan; Txantxiku Ikastolan,  
kalejira eta San Tomas azoka  
10:30ean; eta, Urgainen,  
Gabonetako jaialdia 10:00etan.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**BERGARA Haur eta  
gaztetxoentzat ekintzak**  
Bergara Bizi! ekimenaren bidez,  
Bedelkarren eskutik.  
*Seminarioko patioan, 11:30ean.*

**ELGETA Eskulan tailerra**  
Mendizaleen plaza apaintzeko  
eskulan tailerra umeendako.  
*Aipatutako lekuan, 17:00etan.*

**ELGETA Olentzeroren etorrera**  
Intxortatik jaitsiko da.  
*Mendizaleen plazan, 18:30ean.*

**BERGARA Aldeta taldea**  
Kontzertua.  
*Aroztegin, 19:00etan.*

**OÑATI Oñatiko kirol sariak 2016**  
Kirolariak sarituko dituzte.  
*Udaletxean, 19:00etan.*

**ANTZUOLA 'Kalera, kalera'  
elkarretaratzea**  
Argazki masiboa egingo dute.  
*Zurrategin, 19:00etan.*

**ELGETA Espaloien irekiera  
ekitaldia**  
19:30ean Amets Arzallus eta Sustrai  
Colina bertsoan; 20:15ean Jon  
Gurrutxaga kontzertu akustikoa; eta  
22:30ean, The Vartools taldea.  
*Espaloian, aipatutako orduetan.*

**ARRASATE Benito Lertxundi**  
Ez dago sarrerarik Orioko  
musikariaren emanaldirako.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ZAPATUA 24

**ANTZUOLA Olentzero eta Mari  
Domingiri ongietorria**  
Eskolako umeen eta gurasoen  
eskutik, kalejira.  
*Errekalden, 11:00etan.*

**ARRASATE Txoronpio, Txoronpia  
eta Olentzero**  
11:20ean eskutitzak jasoko dituzte  
eta 13:15ean Seberren egongo dira  
hiru protagonistak.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**BERGARA Olentzero eta Mari  
Domingi ikasleekin**  
Kalejira egingo dute.  
*Pilotaleku parean, 11:45ean.*

**ARETXABALETA Gabon kantuan**  
Herriko umeak, gurasoak eta  
Basotxoko kantu taldeko kideak.  
*Herriko Plazan, 10:00etan.*

**ELGETA Gabon kantak**  
Maala Guraso Elkartearen eskutik.  
Amaieran, salda eta txorizoa.  
*Herri Eskolan, 11:00etan.*

**ESKORIATZA Olentzero eta Mari  
Domingi**  
12:00-13:00 gutunak jasoko  
dituzte, 13:00 kalejira trikiti  
eskolakoeekin, 17:30 Gabon kantak  
zaharren egoitzan, eta, 18:00  
Apotzagatik datorren Olentzerori  
ongietorria.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**OÑATI Gabon kantak Txantxiku  
Ikastolan**  
Kalejira egingo dute.  
*Aipatutako lekuan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA 'Kalera, kalera'  
ekimena eta Olentzero**  
12:00etan, Zurrategin, luntxa, eta,  
18:00etan, Olentzerori harrera.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ELGETA Eskulan erakusketa**  
Herritarrek egindako lanak ikusgai,  
abenduaren 28ra arte.  
*Elgetako buztin gelan, 16:00etan*

**OÑATI Olentzero eta Mari  
Domingi**  
Otaui Zuhaitzik irteno dira Jose  
de Azpiazu musika eskolaren,  
Haitzondo kuadrillaren eta  
Irazan Antzerki taldearen  
laguntzarekin.  
*Aipatutako lekuan, 17:30ean.*

**BERGARA Olentzero Osintxun**  
Umeak zubian egongo dira  
Olentzeroren zain.  
*Aipatutako lekuan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Olentzero eta Mari  
Domingiri ongietorria**  
San Josetik jaitsiko dira.  
*Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

**ARAMAIO Olentzeroren etorrera**  
Ongietorri ekitaldia.  
*Bizente Goikoetxea plazan,  
18:30ean.*

**BERGARA Olentzero Angiozarren**  
18:45ean kantu kalejira eta  
19:00etan Olentzerori ongietorria  
aizoko plazan.  
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ARETXABALETA Txistor  
mokadutxoak**  
*Kalera, kalera ekimeneko kideekin.  
Mitarte kalean, 19:00etan.*

**BERGARA Olentzero eta Mari  
Domingi gutunak jasotzen**  
Haurrendako ekintza.  
*Udaletxean, 19:00etan.*

## DOMEKA 25

**ELGETA Mendi irteera Intxortara**  
Kantsatzeke mendi taldearen  
eskutik. Tontorrean txistor pintxoak  
egongo dira.  
*Mendizaleen Plazan, 11:00etan.*

**ESKORIATZA Pettiren kontzertua**  
Inkernu tabernaren hamahirugarren  
urteurrena ospatzeko emanaldia  
gingo du musikari beratarak.  
*Inkernu tabernan, 20:00etan.*

## ASTELEHENA 26

**ARRASATE Mirandaolara irteera**  
Neska-mutikoendako ekintza.  
*Ludotekan, 09:30ean.*



A CERTEZA DE MUSICA

**ARRASATE Micah P. Hinson eta Izaro**  
Lehenak indie doinuak erakutsiko ditu. Leonard Cohenen oinordekoa dela  
diote. Bigarrenak, *Om* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, zazpi euro.  
*Abenduaren 29an, Amaia antzokiko hallean, 20:00etan.*

**OÑATI Gabonetako eskulanak**  
Umeendako ekintza.  
*Ludotekan, 10:30ean.*

**ARAMAIO Umeentzako tailerra**  
Irekoa.  
*Ludotekan, 12:00etan.*

**BERGARA Umeendako antzerkia**  
*Baserrian amets* delako lana 3-6  
urte arteko umeendako. Sarrerak,  
lau euro.  
*Zabalotegin, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Bixente  
Etxeandia txapelketa**  
Debagoieneko futbol eskolako  
neska-mutikoak elkartuko dira,  
abenduaren 29ra arte.  
*Ibarra futbol zelaian, 15:00etan.*

**ELGETA Gabonetako haur  
parkea**  
Umeendako puzgarriekin.  
*Pilotalekuan, 16:00etan.*

**ARRASATE Goiengazte eguna**  
Bailarako 12-17 urte arteko  
nerabeendako ekintzak. 16:00etan  
mahai-jolas erraldoiak eta  
18:00etan kontzertuak.  
*Herriko Plazan, aipatutako  
orduetan.*

**ARAMAIO Kosmetika tailerra**  
Erretiratuendako.  
*Egoitzan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Puzgarriak  
igerilekuan**  
Umeendako ekintza.  
*Kiroldegian, 17:00etan.*

**BERGARA 'Baserrian amets'**  
3-6 urte bitartekoentzat.  
Sarrera: 4 euro.  
*Zabalotegi aretoa / Bergara  
17:00etan*

**ANTZUOLA San Esteban krosa**  
17:30ean 5-8 urte artekoak;  
17:45ean benjaminak, alebinak eta  
infantilak; eta, 18:00etan, kadeteak  
eta goragoko mailakoak.  
*Herriko plazan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA 'Aretxabaletako  
ziklo-krosa' dokumentala**  
UDAren 70. urteurrenean,  
ziklo-krosari buruzko dokumentala.  
*Arkupen, 19:30ean.*

## MARTITZENA 27

**ARETXABALETA Gaztetxoendako  
mendi irteera**  
Gaztelekuko kideendako.  
*Herriko plazan, 08:00etan.*

**ARRASATE Mendi irteera**  
Ludotekako umeendako ekintza.  
*Ludotekan, 08:00etan.*

**OÑATI Buztigintza**  
Tailerra egingo dute.  
*Txaloka ludotekan, 10:30ean.*

**ARAMAIO Umeendako tailerra**  
Askotariko ekintzak.  
*Ludotekan, 12:00etan.*

**BERGARA Laborategi jolasak**  
Familiientzat tailerra.  
*Laboratoriumen, 12:00etan.*



**ESKORIATZA Sukaldaritza lehiaketa**

Gaztetxoendako ekintza.  
*Gaztelekuan, 16:30ean.*

**ELGETA Haur parkea**

Neska-mutikoendako.  
*Pilotalekuan, 16:30ean.*

**OÑATI 'Goa!zen' antzerkia**

Telesaileko protagonistetako batzuekin. Sarrerak, hiru euro.  
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARRASATE Gabonetako truke azoka**

Gaztetxoendako ekintza.  
*Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

**ARRASATE 'Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora'**

Mahai-ingurua Gema Lasarterekin, Ana Isabel Ugalderekin eta Maider Arregirekin.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**OÑATI 'X planeta, eguzki sistemaren maizter ikusezinaren bila'**

Ricardo Huesoren berbaldia.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Gospel kontzertua**

The Upper Room taldearen emanaldia. Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*

**EGUAZTENA 28****ARRASATE Mirandaolara irteera**

Ludotekako kideendako.  
*Garibaiko geltokian, 08:00etan.*

**OÑATI Talogintza**

Tailerra egingo dute.  
*Txaloka ludotekan, 10:30ean.*

**OÑATI Gabon jaia eguneko zentroan**

Musika eskolako laguntzarekin  
*Aipatutako lekuan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Zirku tailerrekoen emanaldia**

Xabi Larrearekin diharduten neska-mutikoen saioa.  
*Arkupen, 12:30ean.*

**ELGETA Tute eta briska txapelketak**

Erretiratuendako.  
*Ozkarbin, 16:00etan.*

**BERGARA 'Pupu eta Lore: haizearen herrira'**

Familiarentzako. Sarrerak, lau euro.  
*Zabalotegin, 16:30ean.*

**ARAMAIO Ipuin kontaketak**

Badut kontalariaren eskutik.  
*Liburutegian, 17:00etan.*

**OÑATI 'Nekazaritza Eskola Oñatin (1851-1869) eta bere garaia'**

Pedro Berriotxoaren berbaldia.  
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ELGETA Gabonetako emanaldia**

Elgetako musika ikasleen saioa, Lorea Larrañagaren aginduetara.  
*Espaloian, 19:00etan.*

**OÑATI Txuletons taldea**

Kontzertua egingo du.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**ARETXABALETA Magia saioa**

Imanol Ituiño mago bizkaitarrak helduendako ikuskizuna egingo du. Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 22:00etan.*

**EGUENA 29****OÑATI Mendi irteera Arantzazu aldera**

Oñatin historiaurreko giza aztarnak agertu diren kobazuloak ikustera.  
*Antixenan, 09:00etan.*

**OÑATI Gabonetako ur jolasak**

13 urte artekoendako: 10:30-12:30 eta 16:30-18:30.  
*Kiroldegian, aipatutako orduetan.*

**ARETXABALETA Gasteizera**

Izotz-pistara eta alde zaharrera.  
*Gaztelekuan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA Gasteizera**

Izotz-pistara eta alde zaharrera.  
*Gaztelekuan, 11:00etan.*

**ESKORIATZA 'Azken Eguzkilorea' antzezlan**

2-12 urte artekoendako, euskaraz.  
*Zaldibarren, 18:00etan.*

**BERGARA Xabier Arrillagaren omenezkoa**

Su Ta Gar, EH Sukarra, Diablues eta Blucifer, Azkaiter Pelox Trio, Emoneko musikariak oholitza gainean.

*Seminarioko karpan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Aretxabaletako Abesbatza**

Gabonetako kontzertua.  
*Parrokian, 19:30ean.*

**EGUBAKOITZA 30****OÑATI Kuadrillen arteko saskibaloi txapelketa**

Aloña Mendiren eskutik.  
*Zubikoan, 10:00etan.*

**OÑATI Buztina margotu**

Tailerra egingo dute.  
*Txaloka ludotekan, 10:30ean.*

**BERGARA 'Ugaztunak'**

Haurrendako tailerra.  
*Laboratoriumen, 10:30ean.*

**ANTZUOLA Haur parkea**

Jolas parkean: 11:00-13:30 eta 16:30-19:00.  
*Jolas parkean, aipatuko orduetan.*

**ARAMAIO Umeentzako tailerra**

Askotariko ekintzak.  
*Bizente Goikoetxea plazan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Uluburun' urperatze jolasak**

10-12 urtekoak 15:30ean eta 13-15 urtekoak 18:30ean. Sarrerak, hiru euro.  
*Zubikoan, 15:30ean.*

**ARETXABALETA 'Mami Lebrun' antzezlan**

Kepa Errasti aktore aretxabaletarrak idatzitako lana. Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI Zirku ikuskizuna**

*Lunaticus circus lana.* Sarrerak, lau euro.  
*Santa Anan 22:00etan*

**ARAMAIO Bertso saioa**

Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Oihana Iguaran eta Iker Agirre bertsotan.  
*Kultura etxean, 22:30ean.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAI ANTZOKIA**

**La llegada**  
Astelehena eta martitzena: 19:30

**Vaiana 3D**  
Astelehena eta martitzena: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**Phantom boy**  
Eguaztena: 17:00.

**ARETXABALETA****ARKUPE**

**Trolls**  
Eguaztena eta eguena: 17:00.

**EIBAR****COLISEO**

**El editor de libros**  
Egubakoitza: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Assassins creed**  
Egubakoitza: 19:45, 22:30.

**Absolutamente fabulosas**  
Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Assassins creed**  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ****BOULEVARD**

**Canta**  
Egubakoitza, zapatua eta astelehenerik eguenera: 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:15, 21:15, 22:30.  
Egubakoitza: 23:30.

**Canta, 3D**  
Egubakoitza, zapatua eta astelehenerik eguenera: 16:15.

**Assassins creed**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:30, 20:35, 21:15, 22:45.  
Zapatua: 17:00.

**Assassins creed 3D**  
Zapatua: 16:00.

**Rogue One**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 18:30, 20:00, 20:35, 21:15, 22:45.

Egubakoitza eta astelehenerik eguenera: 15:45, 16:45.  
Zapatua: 15:45, 16:45, 17:15.

**Rogue One 3D**  
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**Vaiana**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:10.  
Egubakoitza eta astelehenerik eguenera: 15:50.  
Zapatua: 15:50.

**Fiesta de empresa**  
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.

**La llegada**  
Egubakoitzetik eguenera: 22:40.

**Villaviciosa de al lado**  
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:35, 22:40.

**Hasta el ultimo hombre**  
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:00.

**Animales fantásticos...**  
Egubakoitzetik eguenera: 19:35.

**FLORIDA**

**Pixi Post... (euskaraz)**  
Egubakoitza eta eguaztena: 16:30.  
Zapatua: 12:00.  
Astelehena, martitzena eta eguena: 12:00, 16:30.

**Canta**  
Egubakoitza: 16:20, 18:15, 20:00, 22:30.  
Zapatua: 12:00, 17:30.  
Domeka: 18:00, 20:15, 22:30.

**Villaviciosa de al lado**  
Egubakoitza eta astelehenerik eguenera: 20:30.  
Domeka: 20:15.

**Rogue one**  
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 18:00, 20:45.

Astelehenerik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Vaiana**  
Egubakoitza: 18:25.  
Zapatua: 12:00.  
Domeka: 18:00.  
Eguaztena: 12:30, 18:25.

**KRITIKA****La comuna ★★★★★**

**Zuz.:** Thomas Vinterberg. **Herr.:** Xxxx (2000). **Aktoreak:** Ulrich Thomsen, Tryne Dyrholm, Marta Sophie Wallstrom Hansen.

**Pertsonak eta taldea****ANTONIO ZABALA**

*La comuna* Danimarkan joan den mendeko 70eko hamarkadan gertatzen da. 14 urteko alaba duen bikote batek, euren bizitzetara biraketa bat eman guran, etxean komuna bat sortzea erabakiko du. Bikoteko gizonak unibertsitetearen klaseak ematen ditu eta ikasle batekin maiteminduko da. Gertatutakoa emazteari kontatzen dio eta ideia "zoragarri" bat burutuko zaie: ikaslea komunan sartzea. Hortik aurrera, banakotasunaren eta kolektibitatearen arteko gatazka sortuko da. Pertsonen arteko arazoak taldearen bizikidetzaren eragina izango du. Eta hor sortuko da zalantza: komuna sortu duen bikoteak eskubidea du euren arazoak taldearen gainetik jartzeko?;

taldeko kideek besteenganako benetako interesa dute edo lortutako bizi eroso mantendu nahi dute?

Vinterbergen helburua ez da komuna bateko bizimodua sakontasunez azaltzea. Taldea edaten eta jaten, edo antolatzen dituzten bileretan ikusten dugu, ezer gehiago. Komuna pertsonaia nagusien bizitzan eta egoeran eragina duen osagaia da. Zuzendariaren mezua nahiko ambigua da.

Alde batetik, gizabanakoak alde egin arren taldeak aurrera jarraitzen duela aldarrikatzen duela dirudi; eta, beste alde batetik, komunaren bultzatzailearen bidea aintzat hartuta, taldearen indar fagozitatzailea azpimarratzen duela dirudi...



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

## Absurdia azken muturreraino

Luhuson egindako atxiloketez eta ondoren ezagutu ditugun inputazioez ari naiz, bai. Denbora darama ETAK bake-prozesuan aurrera egiteko armak entregatu nahian eta saiatu den guztietan errepresioarekin erantzun diote. Nazioarteko egiaztatzaileak Auzitegi Nazionalera eraman zituzten. Armagabetzea bideratzeko prest zeuden 5 pertsona atxilotu dituzte eta armak izatea leporatzen diete. Jardun armatua izan duen erakunde batek armagabetu nahi du eta ezin du; ez diote uzten. Absurdia muturreraino eramatea da hori. Inork nekez uler dezakeena.

Eta hau bezain absurdia da 2016ko abenduan Gaztelu Algecirasen mantentzea eta gaixorik dauden presoak kartzelan erretentzea.

Egoera iraultzeko gizarte zibilaren mobilizazioa da giltzarri. Gobernuak eta instituzioek egin nahi ez dutena guk geuk egitea eta horiek urratsak ematera behartzea.

Gabon hauetan hasita badugu aukera. Gaur bertan hasita, hainbat ekimen burutuko dira gure herrietan. Eta absurdia logiko bihurtzeko eta oztopatu nahi dutena ahalbidetzeko parte hartzea dugu aukerarik onena.

BUKATZEKO



Bergarako San Pedro parrokian dagoen Santo Kristo Hilzorikoa. ENEKO AZKARATE

# Bergarako Santo Kristo Hilzorikoa, Sevillara

Ariznoako San Pedro parrokian dagoen Kristo Hilzorikoa Sevillara eramango dute, hango Santo Angel elizan egingo den erakusketa baterako; Juan de Mesa eskultore sevillarraren artelana beste bi lanekin batera erakutsiko dute martxoan zehar

**Eneko Azurmendi** BERGARA

Martinez Montañes eskultorearen Santo Kristoak, Sevillako Karmeldarren komentuko Santo Angel elizan dagoenak, 400 urte betetzen ditu. Horretan oinarrituta, gurutzea bera zaharberritzeaz gain, erakusketa bat egitea pentsatu dute, martxorako aurreikusita daukatena eta Montañes bera erdigune duena.

Erakusketa horretan, Montañesen irakasle izandako Pablo Rojas eskultorearen obra bat, Montañesen gurutzea eta Juan de Mesaren –Montañesen ikasle izandako sevillarra– lanak erakutsiko dituzte, hala, eskultoreen hiru belaunaldi desberdin irudikatuta.

Erakusketa martxoan izango den arren, oraindik ez dakite

noiz eramango duten gurutzea Sevillara. "Oraindik ez daukagu data zehatzik. Ezin da asko luzatu, galdetzen didaten guztiei hori esaten diet, baina oraindik ez dakigu", adierazi du Jon Molinak, Bergarako parrokoak.

**Lehenik, zaharberritu**

Sevillara eramaten dutenean, parrokoak ohartarazi du Anda-

luziako Ondare Historikoaren Institutuak zaharberritu egingo duela gurutzea, erakusketan jarri aurretik. "Kaperako erre-taulan hartu zuen suak eta Santo Kristoaren belaun eta aurpegi aldeak belztu zituen keak", dio San Pedroko parrokoak.

**1622koa da obra**

Juan Perez de Irazabal bergararrak, erregearen kontu-eramailea zenak, eman zion Juan de Mesa eskultoreari Santo Kristoa hiltzorian lantzeko agindua, 1622an.

Lau urte geroago, ordea, Perez de Irazabalek Gurutziltzatuaren irudia bere jaioterrira, Bergarara, bidaltzea erabaki zuen eta ordutik gaur arte dago San Pedron, korupean eta Ebanjelioaren aldean dagoen kapera berezian, hain zuzen.

**Barrokoaren lan bikainenetakoa**

XVII. mendeko eskultura eskola sevillarreko maisurik bikainenetakoa da Juan de Mesa eta Bergarako Kristoa Barroko garaia Europar eman duen eskultura-lanik gorenetakoa da, aditu eta kritikari askoren ustetan. "Anatomia aldetiko zehaztasunak, gorputzaren mugimenduak, formen perfektzioak eta Jesusen aurpegiaren sentimenduak sortzen duen inpresio hunkigarriak erabateko maisularen aurrean gaudela baieztatzen dute", adituen esanetan.

**Sevillarako garraioa**

Molinak ziurtatu du ez dagoela bidean apurtzeko arriskurik. "Artelanak garraiatzeko enpresa espezializatuak daude, ez da edozein kamioitan joango. Alde horretatik, segurua da", dio.

**EROSKI**

ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarria 2016ko abenduaren 25era arte



KANTAUROKO LEGATZA, OSOA... 1,00KG

~~7'25~~  
€/Kg**6'50**  
€/Kg